ASTELEHENEKOA

# goiena"

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-04-02
ASTELEHENA
360. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM


MIREIA BIKUÑA

## Eskerrak emanez, agur EBA ligari

Lau urteko ibilbideari agur esan zion zapatuan Natra-Oñati saskibaloi taldeak | 24

Aramaion eta Oñatin ere sortu da 'Herrira', presoen eskubideen alde | 5




Dekala: mendi, bide eta abereak zaintzeko elkartea | 11



Mikel Irizar da Topaguneko euskara elkarteen presidente berria | 4



# Kimu berriak gure ohituretan ernetzen

Aiton-amonek, gurasoek, seme-alabek, gazteek... gure usadioak babesten kaleak lepo bete zituzten, Bergarako Erramu-zapatuan | 12

**Seminarioko patioan zeuden hegaztiek txikienen arreta erakarri zuten.**

JULIO CALLEJA

# Udako oporrak elkarlanean pasa gura dituzten gazteendako auzolandegiak

Udako oporretan kooperante zein auzolangile joateko deialdiak egin dituzte dagoeneko; auzolandegietarako izen-ematea hil honetan da. Aste Santuko oporrak gertu egon arren, udako oporretan ere pentsatzen hasi daitezke gazteak, elkarlanerako oporretan hain zuzen ere. | 2

## Sortu zirelako sortu eta sortuko dira besteak

Xabier Leteren arrastoa utzi zuten 30 piezak Amaian | 29


Urdangarin eta Berzaitz. | JULIO CALLEJA

## Mondrak eta Aloñak bina egin dute derbian, baina Mondra atera da galtzaile Mojategitik | 22

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

%2ko deskontua

Estación de Servicio ARRASATE
AVIA
AVIA MECA
gasolindegiaren eskutik.

► Zoaz 21. orrialdera.

# Erosotasuna alde batera, gazteak elkarlanerako gertu oporretan

▶ Kooperante zein auzolangile joateko deiak daude

▶ Auzolandegietarako izenematea hilaren 24an da



Gazteak Ibin (Alacant) mendi-magalean bidezidorra irekitzen, iaz. | AITOR LARRINAGA ANASAGASTI

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Aste Santuko oporrak ate joka ditugu, baina, gazte askorendako, harantzago begira jartzeko momentua ere bada: udara begira, hain zuzen. Izan ere, udako oporretarako eskaintza gehienetarako izenemate garaia da.

Zabalik dauden deialdien gaineko informazioa eman zuen Dorleta Kortazarrek, Arrasateko Gazte Bulegoko arduradunak, Arrasate Irratian. Eusko Jaurlaritzak antolatutako bi hitzordu nagusi nabarmentzen ditu, biak ere urteroko eskaintzan egoten direnak: Euskadiko Gazteak Lankidetzan eta auzolandegiak.

Deialdi horien guztien gaineko informazioa gazte bulegoetan edo udal gazteria sailetan eska daiteke; baita Internet bidez ere, *www.gaztebulegoa.com* eta *www.gazteaukera.euskadi.net* webguneetan.Udan begirale eta koordinatzaile lan egin gura dutenendako ere badaude hainbat deialdi.

**GKEei laguntzen**

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa "oihartzun handia izaten dabil azken urteotan", esan zuen Dorleta Kortazarrek Arrasate Irratian. Horretan izena eman daiteke Internetez. Martxoaren 31n ireki zuten epea, eta apirilaren 19an itxiko dute.

Garapen bidean dauden herrialdeetan udako egonaldiak egiteko programa da, eta 100 bat gazterendako lekua izaten du. Hile bat, bi edo hiruko egonaldiak izaten dira. Izenak dioen moduan, helburua da leku bakoitzean egiten dabiltzan proiektuetan laguntzea. Normalean, Gobernuz Kanpoko Erakundeak ibiltzen dira proiektu horiek aurrera ateratzen, eta laguntasuna behar izaten dute.

Joan-etorriaren gastua programak hartzen du bere gain, eta beste gastu eta tramite guztiak, norberak. 90 euroko kuota ipini behar izaten da.

Izena emateko baldintzak hauek dira: EAEn erroldatuta egotea eta 21 eta 30 urte artekoa izatea. Hori eta gero, aukeraketa batzordeak hainbat gauza baloratuko ditu, hala nola formazioa, garapenerako ekintzetan edo erakundeetan parte hartzea eta beste batzuk. Horrez gain, gazteek konpromiso batzuk ere hartu behar dituzte: besteak beste, joan aurretiko formazio saioetan parte hartzea, joandako lekuko bizimodura moldatzea edo egonaldia osorik egitea.

**"Jendea horri begira dago"**

Auzolandegietan leku askotako gazteak biltzen dira, borondatez eta ordainetan ezer jaso gabe aldi batez elkarrekin bizi eta jendartean eragina duen proiektu baten parte hartzeko. Askotariko proiektuak izan daitezke: beste batzuendako aisialdi ekintzak antolatu, natura-guneak txukundu edo landu, nolabaiteko premiak dituztenak zaindu, ondarea berreskuratu… denetarik.

Etxeko edo hotel bateko erosotasunik ez dagoen arren eta norberak eginbeharrak eta konpromisoak hartzen dituen arren, auzolandegietara joateko irrikatan egoten dira urtero gazte asko. Hala, Kortazarrek nabarmentzen duen moduan, "oinarriak oraindik ez dira atera, eta jende asko urduri dago, azken urteotan izenematea *on-line* egiten delako eta eskatu ahala ematen dituztelako lekuak". Hala, iaz "oso azkar" bete zen programa eta jende asko kanpoan geratu zen. Aurten, apirilaren 24an, 09:00etan dira izenematea martxan jartzekoak, *www.gazteaukera.euskadi.net* webgunean. Bestalde, oraindik ez dute jakinarazi aurtengo auzolandegiak non izango diren, baina Euskal Herrian eta kanpoan izaten dira.

Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban egiten diren auzolandegiei dagokienez, urtero epe bat irekitzen du Eusko Jaurlaritzak, auzolandegiak antolatu nahi dituzten erakunde edo elkarteek proposamenak aurkez ditzaten, eta, haiek

## Berriemaile Londresera

- ▶ Gazteaukeraren eta Basque Teamen eskutik, zortzi gazte Londresko Joko Olinpikoetara joango dira. Horiek aukeratzeko, *Gazte Olimpic Team* izeneko lehiaketa deitu dute.
- ▶ 2020ko Joko Olinpikoak Euskadin: gai horren araberako testua, bideoa edo testua eta bideoa bidali behar dira, estilo librean.
- ▶ Apirilaren 12ra arte, bera barne, aurkez daitezke lanak.
- ▶ Aukeratutako lau lagun Londresko Joko Olinpikoetan izango dira uztailaren 31tik abuztuaren 9ra arte, eta beste lau, Joko Paralinpikoetan, abuztuaren 29tik irailaren 6ra arte.
- ▶ 18 urte beteta izan behar dira bidaia egiten den momentuan, eta Gazte-txartela eduki.
- ▶ Saridunek Jokoen berri eman behar dute blogean, argazkiz, bideoz, elkarrizketaz…
- ▶ Formazioa, gastuak, tresnak… antolatzaileen ardura izango dira.

Logoa. | GAZTEAUKERA

## Gazteak Mizpirualden

Hirugarren urtez, Eusko Jaurlaritzak Bergarako Udalak aurkeztutako auzolandegi proposamena onartu du, eta aurtengo udan ere Euskal Herriko zein kanpoko gazteek alaituko dute Mizpirualde nagusien egoitza. *Belaunaldi arteko trukaketa* da auzolandegiaren izena, uztailean izaten da, eta gazteek egoiliarrekin lan soziokulturala egiten dute goizetan, eta Bergara eta inguruekin gozatzeko aukera dute arratsaldeetan.



Mizpirualde egoitzako auzolandegiak, iaz. | AMAIA BALIÑO SANZ





Egiteko asko dagoen lekuan ekin dezakete gazteek. | LAURA EEK QUESADA



Afan Foresten egindako auzolandegietako gazteek. | ITXASO GARCIA CHAPINAL

baloratu eta gero, batzuk aukeratzen ditu. Aurten ere, hirugarren urtez, Debagoienean, Bergaran izango dira auzolandegi batzuk. Bergaraz gain, toki hauetako auzolandegiak onartu dituzte: Araia, Lantziego, Ozaeta, Salinas de Añana, Gernika, Artzentales, Lekeitio eta Urretxu.

Eusko Jaurlaritzak antolatzen dituenak 15 egunekoak dira; gainerako kasuetan –Nafarroan, Espainian, Europan zein kanpoan– antolatzaile bakoitzak zehazten du iraupena eta beste baldintza guztiak ere. Hala, Euskadiko auzolandegietan parte har dezakete 18 eta 30 urte arteko gazteek. Beste kasu gehienetan ere, horixe da adin-tartea. Goizean auzolandegi programa barruan lan egiten dute eta arratsaldean, aisialdiaz gozatzeko aukera izaten dute.

Parte-hartzaile bakoitzak 72 euro ordaindu behar du. Auzolandegiak antolatzen dituen erakundeak ipiniko du non lo egin –normalean, udal eraikinak edo aterpetxeak– eta berak emango ditu otorduak ere. Gainera, parte-hartzailea aseguruarekin doa, eta auzolandegiko jardueran izan ditzakeen istripuak eta erantzukizun zibila estaltzen ditu. Osasun-estaldura, berriz, norbere kontu da. Bestalde, auzolandegi bakarrerako eman daiteke izena.

Kontuan hartu behar da ere auzolandegi guztietarako ez dela eskaera-kopuru berbera egongo, faktore asko tarteko direla: adibidez, atzerriko auzolandegietan ibiltzeko, ingelesez jakitea derrigorrezkoa da eta, kasu batzuetan, frantsesa edo alemana; bestalde, auzolandegi guztiek ez dute berdin irauten, eta auzolandegia luzea baldin bada, jende gutxiago egongo da hura egiteko moduan.

Auzolandegiak ezagutzen ez dituztenendako, Dorleta Kortazarrek Gazteaukeraren webgunea bisitatzea gomendatzen du: "Beste urte batzuetako esperientziak, bideoak... ipintzen dituzte, eta auzolandegia zer den jakiteko interesgarria izan daiteke", esan zuen Arrasate Irratian.

### "Aukera zoragarria da"

Bergarako Udaleko Gazteria eta Hezkuntza sailak ere gogora ekarri nahi dizkie izenemate horiek biak –Euskadiko Gazteak Lankidetzan eta auzolandegiak– gazteei. Nagore Narbaitza teknikariaren hitzetan, "gero eta arrakasta handiagoa duten programak dira, zorte ona izanez gero, bidaiatzeko aukera zoragarria eta berezia eskaintzen dutelako programa hauek".

Esperientzia politak kontatzen dituzte aurretik egondakoek. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak gogorarazten duenez, auzolandegiak ez dira "oporrak merke pasatzeko modu bat".

### Udalekuak ere, aukeran

Hori dena, Eusko Jaurlaritzaren eskaintzari dagokionez. Baina bestelako aukerak ere badaude.

Adin-tarte baxuagoetarako, ume eta gaztetxoendako, alegia, udalekuak dira ezinbesteko hitzordua. Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuetarako izena eman dutenen artean nortzuk joango diren apirilaren 3an, jendaurreko zozketan erabakiko da. Baina udaleku itxietan ibiltzeko aukera gehiago badago: hala, apirilaren 13ra arte, Euskal Udalekuetan izena eman daiteke (*www. euskaludalekuak.org*); apirilaren 2tik 10era, Bertsozale Elkartearen Bertso Udalekuetarako izenemateena, bertso eskoletan ez dabiltzan umeendako (*www.bertsozale.com*); eta apirilaren 16an irekiko da 14 eta 17 urte artekoen Oporraldiak programan izena emateko epea. Euskal Herrian eta Espainian egonaldiak egiteko aukera dute gaztetxoek. Foru Aldundiak antolatzen du, eta informazio gehiago dago *gipuzkoagazteria.net* webgunean.

IparProject
www.iparproject.com
info@iparproject.com
Barne diseinua - Gremioen koordinazioa
Erreforma eta ekipamendu integrala
Altzariak eta merkatuko lehen markak



BERGARA
Telleria 23 - D5 pabilioia. Labegaraieta industrialdea
Tel.: 943 76 98 30 / Faxa: 943 76 52 44

AZPEITIA
Landeta auzoa. Atxubiaga 5 - Behea
Tel.: 943 15 03 33 / Faxa: 943 15 73 16

# Mikel Irizar, Goienako lehen zuzendari nagusia izendatu dute Topagunea Euskara Elkarteen Federazioko presidente berria

▶ Euskaldunon elkarteen mugimenduaren eraldaketa prozesu sakona gidatzeko ardura izango du, besteak beste

▶ Euskarazko tokiko hedabideak une erabakigarrian daude, eta Topagunearen aurtengo erronken artean sektorea egituratzea dago

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Mikel Irizar da Topagunea Euskara Elkarteen Federazioko presidente berria. Durangon zapatuan Batzar Nagusian aukeratu zuten euskara elkarteek, sei urtez karguan egon den Karmen Irizarren ordez. Mikel Irizar, besteak beste, Goiena Komunikazio Taldearen bultzagile nagusi eta Goienako lehen zuzendari nagusia izan zen.

Euskaldunon elkarteen mugimendua eraldaketa prozesu sakon batean dagoela nabarmendu dute Topaguneko ordezkariek eta, eginkizun horretan, presidente berriak hartuko du Zuzendaritza Batzorde berritua gidatzeko ardura.

### Erronka handiak

Erronka handiekin heldu dio Zuzendaritza Batzordeak lanari. Izan ere, Euskal Herriko 96 euskaldunon elkarte batzen dituen federazioak mugimendu izaeran sakontzea da helburu nagusia, eta baita hizkuntza komunitate horren garapenerako mezu eta diskurtso berria gizarteratzea.

Iazko balorazioa egiterakoan gogora ekarri dute otsailean Bilbon egindako euskaldunon elkarteen mugimenduaren kongresua. Mugimenduaren norabidea irudikatu zuten; *Euskaldunon elkarteen oinarriparrak* izeneko ponentzian jaso zen hori.

2012an mugimenduaren antolakuntza eta jardunbidearen gogoetarekin burutuko da euskaldunon elkarteen kongresua, irailean egingo den azken bilkuran.

Testuinguru horretan aurkeztu ditu Topaguneak 2012rako helburu eta ekintza nagusiak: batetik, mugimendua bera egituratzeari begira maiatzean Azkoitian egingo den *Gunea Eguna* aurkeztu dute. Horrekin batera, eginkizun modura azpimarratu dute gizarte eragileek hizkuntza komunitatea indartzeko duten garrantzia eta erantzukizuna aldarrikatzea; haileko kongresuan, barne antolaketa aztertzeaz gain, horretan sakonduko da.

Bestetik, euskarazko tokiko hedabideak une erabakigarrian daude, eta Topagunearen erronken artean sektorea egituratzea dago; bereziki azpimarratu dute duela bi aste sortu zen Tokikom enpresa. Azkenik, ahalegin berezia egingo dute jakintza eta transmisio ildoetan sakonduz; mugimenduaren prestakuntzari arreta berezia jarri nahi zaio, belaunaldi berrietan inbertsioa eginez.



Mikel Irizar Durangoko batzar nagusian, eta atzean, Karmen Irizar orain arteko presidentea. | TOPAGUNEA

**MIKEL IRIZAR** | TOPAGUNEKO PRESIDENTEA

## "Mus partida honetan handira jokatzeko garaia da"

Sei urtez Topaguneko presidente izan den Karmen Irizar ordezkatzeko Mikel Irizar aukeratu zuten zapatuko Durangoko batzarrean.

**Baduzu eskarmentua euskalgintzan...**

Bai, batez ere toki hedabideetan. Duela 20 urte Arrasate Komunikabideak elkarte sortu berriko presidente izendatu ninduten Arrasate Press eta Arrasate Telebista kudeatzeko. Orduan eredu arrakastatsua sortu genuen, eta hamar bat urte beranduago Goiena Komunikazio Taldea sortzeko deitu ninduten. Hori ere sendo jaio zen, eta orain eskatu didate Topaguneko eraldaketaren ardura hartzea. Niretzat ohore handia da.

**Zertan da eraldaketa hori?**

Gizarte mugimenduak, oro har, duela 20 urte baino ahulago daude, eta gurea ere bai. Gainera, gure kasuan toki hedabide asko ditugu eta horietan ere eragin handia izaten ari dira bai iraultza teknologikoa eta baita krisi ekonomikoa ere. Gauzak horrela, Topaguneak hausnarketari ekin zion orain hiru bat urte eta iaz bere eraldaketarako oinarri–iparrak jarri zituen kongresu batean. Aurtengo irailean egingo dugu kongresuaren bigarren partea, eta hor ezarriko ditugu aurrera begirako jardunbideak. Bide hau eginez, eraldaketa betean dago mugimendua, indarberritzen ari gara.

**Zein norabidetan doa zuen bilakaera hori?**

Alde batetik, barne kohesioa indartu nahi dugu herrietako elkarteen eta federazioaren artean, mugimendu gisa funtzionatzeko. Bestetik, euskararen aldeko diskurtsoa berritzen ari gara, ekologiaren eta berdintasunaren parametrotan, elkarbizitzarako mesedegarri izan dadin. Azkenik, gure solaskidetza sendotu dugu eta presentzia areagotuko, gizarteak gure erreferentzia garbia izan dezan hizkuntza kontuetan. Finean, haizea euskararen alde jarri nahi dugu, gizartea norabide horretan mugi dadin.

**Eta zuen hedabideak?**

Hemen ere urratsak egin ditugu. Duela aste batzuk Tokikom enpresa sortu dugu Topaguneak eta hainbat toki hedabidek, esparru komunak kudeatzeko, solaskidetza bakarra eraikitzeko eta gure integrazio lantzeko. Arrisku handiak daude hedabide guztientzat, baina baita aukera handiak ere bereziki egitura arinetan gabiltzanontzat. Eta elkarlan emankorrean ari gara gure artean eta euskal hedabideen sektorearekin, euskararen hiztun komunitateak behar duen egitura komunikatiboa eraikitzeko.

**Asmo potoloak, inondik ere...**

Bai, baina mus partida honetan handira jokatzeko garaia da. Euskarak dagoeneko aje gutxi dauka; zailtasunak gizartean daude eta ahuldadeak, hiztunongan. Guk gizartean hartzen dugun pisuak emango dio euskarari indarra.




VK COMUNICACION

## E-learning, hezkuntza berria

Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon Linguak eta Conexiak hitzarmena sinatu dute "e–learning bidezko hizkuntza–irakaskuntza bultzatzeko". Horri esker, Mondragon Unibertsitateko ikasleek eta ikasle ohiek %15eko beherapena izango dute ingelesezko eta euskarazko sistema konbinatuko ikastaroetan matrikulatzeko. Hitzarmena sinatu zuten Adelaida Maidaganek (Mondragon Lingua), Joseba Bartolomek (Conexia) eta Josu Zabalak (Mondragon Unibertsitatea), hurrenez hurren.

# Mikroenpresen lehiakortasuna hobetzeko programa abiarazita

Hiru eta hamar langile artean dituzten enpresei zuzendutakoa da Mankomunitatearen ekimena

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Agentziak Mikro-Goiena izeneko programa abiarazi du.

Hiru helburu ditu programa horrek: mikroenpresen beharrak identifikatzea gero neurrira egindako hobekuntza plana diseinatzeko. Eta behar horiei erantzuteko ekintza plana martxan jartzea. Planak irailetik aurrera martxan egongo dira.

Hiru eta hamar langile artean dituzten enpresa txikiei zuzendutako ekimena da.

### Apirilaren 4a baino lehen

Parte hartzeko edo informazio gehiago jasotzeko 943 79 30 90 zenbakira dei daiteke edo *enpresa@debagoiena.net* helbidera idatzi, apirilaren 4a baino lehen. Garapen Ekonomikorako Agentziatik aurreratu dutenez, 15 eta 25 enpresa artean izango dira programaren onuradun.




Oñatiko *Herrira* zapatu arratsaldean, 13:00tan, aurkeztu zuten herriko plazan. | OIHANA ELORTZA.

# 'Herrira', presoen eskubideen defentsarako bilgunea

▸ Aramaion eta Oñatin *Herrira* taldeak aurkeztu dituzte asteburuan

▸ Debagoieneko preso guztiak Euskal Herritik kanpo daude

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Bilbon urtarrilean egin zen manifestazio jendetsuaren jarraipena da *Herrira* ekimena eta Aramaiora eta Oñatira ere heldu da. Asteburuan aurkeztu dituzte bi herrietako *Herrira* taldeak.

Euskal preso eta iheslariak etxeratzea du helburu *Herrira*k eta Oñatiko lau presoen egoera zein den azalduz hasi zuten hango taldearen aurkezpena zapatuan: bataz beste etxetik 600 kilometrotara laurak. Euren osasun egoeraren berri ere eman zuten, eta espetxe politikaren hainbat puntu ez dituztela onartzen azpimarratu zuten hainbat herritarrek plazan bildu zirenen izenean, hala nola: miaketak, isolamendua, komunikazioak interbenitzea, bisitan doazen lagunen kopuruaren muga, ikasteko trabak jartzea edo margolan eta eskulanetarako materiala ukatzea, beste batzuen artean. Aurkezpen parte-hartzailea izan zen eta herritar askoren ahotsa ez ezik, bertso musikatuak ere entzun ziren.

### "Irekia eta zabala"

"*Herrira* ekimena irekia eta zabala da eta jaso gura ditugu jendearen iritziak eta ekarpenak. Gaur taldearen aurkezpena egin dugu, baina lanean jarraituko dugu. Hamabostean behin elkartuko gara", adierazi zuen aurkezpenaren bukaeran Oñati *Herrira* taldeko Begoña Usandizagak. "Euskal Herriko gazteak zigortu egin izan dituzte, baina ikusten da gazteek ere gura dutela lan egitea presoak etxeratzeko, eta hori oso garrantzitsua da", gaineratu zuen.

### Euskal Herritik kanpo

Egun 600 herritar baino gehiago daude Euskal Preso Politikoen Kolektiboan, horietatik gehienak Espainiako eta Frantziako espetxeetan sakabanatuta. Debagoieneko preso guztiak ere, esaterako, Euskal Herritik kanpoko espetxeetan daude. Bailarako hiru presok dute aplikatuta Parot doktrina: zigorra beteta duten Luis Mª Azkargorta bergararrak eta Joxe Felix Zabarte arrasatearrak batetik, eta zigorra bete gabe duen Unai Parot arrasatearrak bestetik. Horrez gain, 20 urtetik gora espetxeratuta dauden debagoiendarrak ere badira, tartean Joseba Arregi eta Alberto Plazaola oñatiarrak.

### Apirilaren 14rako deia

Bestalde, Gernikako Akordioa izenpetu duten eragile politiko, sindikal eta sozialek, *Parot Doktrina*ren aurka apirilaren 14an Bilbon egingo den manifestaziorako dei egin dute. Doktrina horren aurrean Auzitegi Konstituzionalak hartu duen erabakia "bake eta konponbide nahien aurkako eraso zuzena" dela esan dute sinatzaileek, "eta eraso zuzen horri eman beharreko erantzuna bildu garen eragile politiko, sindikal eta sozialetik harago joan dadin" manifestaziora joateko dei egin diete herritarrei.

## 'Gazta' etxean 24 urte eta gero

Auzitegi Konstituzionalak eguenean jakinarazi zuen Jose Inazio Gaztañaga *Gazta* preso arrasatearrak *Parot Doktrina*ren kontra ezarrita zuen babes helegitea onartu zuela eta aske utziko zutela. Egubakoitzeko 22:30ean heldu zen Arrasatera Ocañako espetxetik, eta zain zituen lagunak. Salbuespena da Gaztañagaren kasua. Izan ere, berari eta beste bi euskal presori bakarrik onartu dizkiete *Parot Doktrina*ren kontrako babes helegiteak.



Txalo eta besarkada artean hartu zuten Seber Altuben. | JULIO CALLEJA



*Gazta* neskalagunarekin. | J.C.

**MANU UGARTEMENDIA**
'HERRIRA'

## "Salbuespen egoerak gainditzea da bilgunearen lehen helburua"



O.E.

*Herrira* ekimeneko bozeramailea da Manu Ugartemendia. *Herrira*ren helburua euskal presoak eta iheslariak etxeratzea dela berretsi du Oñatin.

**Herrirak lehentasuna ematen dio gaixotasun larridun presoen etxeratzeari.**

Bai, salbuespen egoerak gainditzea da lehen helburua: preso larriak etxeratzea eta *Parot Doktrina*rekin eta dispertsioarekin bukatzea.

**Gaixotasun larriak dituztenen artean dago Josu Uribetxeberria arrasatearra. Zein da bere egoera?**

Giltzurrunetako minbizia du eta horrelako egoeran Espainiako espetxeetan egotea bere eskubideen kontra dagoela ulertzen dugu. Espetxe politikak ez du laguntzen ez bere egunerokotasunean ezta minbiziari aurre egiten ere.

**Garai honetan, egoera aldatuko den zantzurik ikusten duzue?**

Mugimendu baikorrik eman ez duen alderdi bakarra alderdi popularra da, gehiengoa duena. Eman diren pausuak atzerakoiak izan dira. Gizarteak aldiz, bat egiten du preso eta iheslarien eskubideen defentsan, eta hor dago giltza, horrek mugiaraziko ditu Frantziako eta Espainiako gobernuak.

**Oñati eta Aramaioko *Herrira* taldeak aurkeztu dituzte asteburuan gurean.**

Euskal Herri osoan ari da hedatzen bai, hilabete gutxitan toki askotan txertatu da Herrira mugimendua.

# Egueneko grebaren ostean badagoela "zer egin" diote sindikatuek

## Grebaren balorazio positiboa eginda, lanean "jarraitu behar" dela diote

USOA AGIRRE | ARRASATE

Lan-erreformaren kontra joan den eguenean egin zen grebak "jarraipen zabala" izan zuen gure ibarrean, sindikatuen arabera. Grebaren erantzunarekin gustura izan arren, "lanean jarraitu beharra" dagoela diote sindikatuek.

LAB sindikatuko Jose Ramon Kortabarriak esan digunez, "aukera ezberdinak lantzen" jarraituko dute eta epe motzera negoziazio kolektiboko eremua "blindatzen" saiatuko dira: "Orain arte langileek zituzten erreferentziak herrialde bakoitzeko hitzarmen kolektiboak ziren eta hori errespetatzeko lanean jarraituko dugu, lan-erreformak hitzarmen horiek gainetik pasatzen baititu". Datozen asteetan proposamen bat landuko dute LABen, negoziazioa nola bideratu jakiteko. Sindikatuaren asmoa da gainerako sindikatuekin adostasunera iristea eta planteamendu bakarra egitea, "guztiok batera zeren alde borrokatu behar dugun zehaztu nahi dugu", esan digu Kortabarriak. LABen helburua izango da, beti ere, herrialdeetako hitzarmen kolektiboei eustea: "Orain CCOOk eta UGTk negoziatuko dute patronalarekin Espainian, baina Euskal Herriko egoera guztiz ezberdina da eta guk hemen negoziatu nahi dugu".

ELAko Amagoia Lasagabasterrek ere orain arte moduan lanean jarraituko dutela adierazi digu: "Joan den egueneko grebarekin ikusi zen langileak antolatzen ari direla eta agintariek hori kontuan hartuko zutela pentsatzen dut. Gakoa da guztiok antolatzea sektoreka, enpresaka,... antolatu eta ez isolatzea". Lan-erreformak borroka kolektiboa "deuseztatu" duela dio Lasagabasterrek eta orain "guztiz kontrakoa" egin behar dela: "Antolatu behar dugu Espainiako lan-erreforma gelditzeko eta beste eredu sozial baten alde lanean jarraitzeko".




Arrasateko saltoki bateko oharra, egueneko greba egunean. | JOKIN BEREZIARTUA

> **ESANAK**
>
> **"Epe motzera, gure helburua izango da herrialdeetako hitzarmen kolektiboei eustea"**
>
> JOSE RAMON KORTABARRIA | LAB

> **ESANAK**
>
> **"Murrizketekin jarraituko du Espainiako gobernuak, ez baitu beste aukerarik landu nahi"**
>
> AMAGOIA LASAGABASTER | ELA

### Murrizketak

Espainiako gobernuak murrizketekin jarraituko duela seguru daude bi sindikatuetako ordezkariak. Lasagabasterren hitzetan, "ez daukate bukaerarik" murrizketek, "eremu pribatuan lan-erreformarekin eta eremu publikoan bestelako neurriekin". Lasagabasterrek gehitu du: "Erreforma hau ez dago krisitik irteteko. Erreforma hau dago pentsatuta garai berriak datozenean guztia desorekatuta izateko eta betiko moduan aberastasuna gaizki banatzeko". Murrizketen bidean jarraituko dutela dio ELAko ordezkariak, "ez baitute beste aukerarik landu nahi".

Kortabarriak ere argi esan digu: "29ko grebarekin ez da ezer bukatzen. Lehengo erreformez gain etorriko dira beste batzuk; zaku horrek ez dauka bukaerarik". Orain arteko hitzarmenei eusteko tresnak lortzeko ahaleginak egingo dituzte LABen.

### "Erreforma beharrezkoa da"

Adegik ere egin du grebaren gaineko balorazioa. Gipuzkoan, grebaren jarraipena %60koa izan zela adierazi du eta greba "alferrekoa eta antzua" izan zela. Izan ere, Gipuzkoako enpresarien ustez, ez ditu antolatzaileen helburuak bete: "Jarraipena ez da izan jendetsua eta lan-erreforma ez da ez aldatu, ezta erretiratu ere egin behar".

Adegiren ustetan, lan-erreforma "beharrezkoa" da, lan-harremanetako erregulazioa "Europakoetara hurbiltzen" baitu eta "denbora berrietara" egokitzeko "beharrezkoa" baitzen. Enpresei "inguruko egoeretara egokitzeko malgutasuna" ematen die erreformak, lan-merkatuari "egonkortasuna" ematen dio eta enpresek "jasaten zuten desoreka konpontzen du", Adegiren arabera.

# Arrasateko kooperatiba eredua, Al Jazeera telebistan

## Duela 50 urte baino gehiago sortutako kooperatiba eredua goraipatzen du erreportajeak

E.A. / U.A. | ARRASATE

Mondragon taldearen eta Arrasateko kooperatiben ereduaren gaineko erreportajea egin dute Al Jazzeera English katean. "Espainia leporaino zorpetuta" dagoenean, duela 50 urtetik gora sortutako kooperatiben eredua goraipatzen du Sonia Gallego kazetariak erreportajean, kooperatibak, sorreran, "zalantza handiak" sorrarazi bazituzten ere hainbatengan.

Kooperatiba taldearen gaineko datu batzuk ematen ditu erreportajean: 80.000 langile dituen taldea, 256 enpresa, 18 herrialdetan banatuta... Kooperatiben oinarria eta izpiritua ere azaltzen ditu: bazkide bat, boto bat. Txanponaren beste aldean jartzen du erreportajeak Espainiako ekonomia; goraino "zorpetuta" dagoena eta geroago eta "herritar txiro gehiago" dituena. Aritz Otxandiano eta German Lorentzo ageri dira kameraren aurrean berbetan eta Arrasateko irudiak ageri dira: kalean hartutakoak, Olandixokoak eta Mondragon taldeko enpresa eta unibertsitateenak (MU, Euskadiko Kutxa, Fagor...).

### Otsailean grabatuta

Al Jazeera English kateko hiru kazetari izan ziren otsailaren amaieran Arrasaten, erreportajea egiteko datuak jasotzen. Korporazioaren egoitza nagusia, Fagor Arrasate eta Mondragon Unibertsitatea bisitatu zituzten, besteak beste.

Helbide honetan ikus dezakezue bideoa: *http://youtu.be/UeEaLtWxIPI*

# 105 milioi alokairua eta birgaitzea bultzatzeko

L.B. / U.A. | ARRASATE

Iñaki Arriola Etxebizitza sailburuak laster onartuko duen aginduan iragarri dira etxebizitza eta lurzoru arloko hainbat laguntza finantzatzeko kredituen zenbatekoak. Aurtengo kredituak dira. Herritarrek jasoko dituzte laguntza horiek. Tartean, 105 milioi euroko lerroa onartu da, alokairua eta etxebizitzak birgaitzea laguntzeko.

Laguntza horien artean dauden finantza neurriek, besteak beste, xede hauek dituzte: etxebizitza libre erabilia erostea, egiturako elementu komunak ohi bezala birgaitzearekin batera efizientzia energetikoa babesten duten eraikinak birgaitzea, igogailuak instalatzea, edota babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea bideratutako lurzoru ondare publikoak osatzeko lurzorua erostea; horrez gain, alokairua bultzatzeko neurriak ere jaso dira..

### Alokairuaren sustapena

Alokairuaren sustapenean jasotzen diren diru laguntzak jardun hauetarako izango dira: babestutako alokairurako etxebizitzak sustatzea; babestutako alokairuan eskaintzeko etxebizitzak erostea; zuzkidura bizitokiak sustatzea, eta landa eremuetan titulartasun publikoko etxebizitzak birgaitu eta alokairuan jartzea.

> **DATUA**
>
> **2036**
>
> URTERAINO
>
> Diru-partida gehiago iragarri dira 2013, 2014 eta 2015. urteetarako, eta gainerakoa 2036. urteraino inbertituko da.

### Kooperatibak teknologiako euskal sarearen proiektuan

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak, Mondragon taldearekin batera, Mondragon Open Innovation jardunaldia egin zuen joan den astean. Mondragoneko 200 enpresek hartu dute parte bost hilabeteko proiektuan eta berrikuntzaren gaineko 153 ekarpenetatik, 39 landu zituzten jardunaldian.

### Erosketa publikoek duten inpaktuaren gaineko gidaliburua

Emaus, IDEAS eta Bakeaz fundazioek *La Compra Pública en las Administraciones Públicas Vascas con una visión norte sur* gidaliburua argitaratu dute. Euskal administrazioen erosketek hegoaldeko herrialdeetan duten inpaktuaren berri ematen dute, lau produktu ikertuta: kafea, kotoia, egurra eta papera.

**Miren Amasorrain** | Erizaina eta DYAko monitorea

# "112ra deitu eta anbulantzia etorri arte nola jokatu erakusten dugu"

- DYAk lehen sorospenaren gaineko oinarrizko ikastaroak egiten ditu han-hemenka
- Aurreko astean Eskoriatzan egon zen, egoera baten aurrean nola jokatu behar den esaten

**MIREIA BIKUÑA** | ESKORIATZA

Miren Amasorrain erizaina eta DYAko monitorea da. Lehen sorospenen gaineko ikastaroak ematen ditu, eta aurreko astean Eskoriatzan egon zen. Espero ez dugun egoera baten aurrean nola jokatu erakutsi zuen. Lehen sorospenen "garrantzia" azpimarratu zuen, eta hark esandakoa ekarri dugu gurera.

**Zer lantzen duzua lehen sorospenen gaineko ikastaroetan?**

DYAko ikastaroen helburua da lehen sorospenen gaineko oinarrizko azalpenak ematea. Herritarrendako ikastaroak dira, oinarrizkoak, eta espero ez dugun egoera baten aurrean nola jokatu erakutsi gura izaten dugu. 112ra deitu eta anbulantzia etorri arte, zer egin behar dugun erakusten dugu.

**Nortzuk parte hartzen dute?**

Lehen sorospenean sentsibilitatea duten pertsonak etortzen dira ikastaroetara. Adin tarteari dagokionean, denetarik: helduak, nagusiak, edo erizaintzako modulua egiten diharduten gazteagoak. Oso praktikoak dira, eta euren hitzetan, baita aberasgarriak ere.

**Zeintzuk dira lehen sorospenen oinarrizko ezaugarriak?**

Erakusten dugun lehen gauza da, espero ez dugun egoera baten aurrean nola jokatu. Adibidez, erosketak egitera goazenean, pertsona bat lurrean badago, zer egin: lasai egon eta gaixoa lasaitu, ingurua babestu, eta 112ra deitu. Hori da jarraitu beharreko protokoloa.

**112ra deitzen dugunean, hainbat datu eman behar ditugu.**

Bai, eta oso inportantea da datuak ondo ematea, guk esandakoarengatik jakingo dutelako zenbaterainoko larria den kasua. Non gauden, zer gertatzen den, eta beste galdetuko digute. Gainera, deia egin duena identifikatu behar dute: izen-abizenak eta telefonoa eskatuko dizkigute. Oso inportantea da datuok ematea. Askok egiten dute datu pertsonalak eskatzerakoan, telefonoa eskegi. 112ra deituta, eskatutako datu guztiak eman behar dira, baita pertsonalak ere.

**Zeintzuk dira jakin beharreko oinarrizko ezagupenak?**

Kanpoko hemorragia izan edo barruko izan, modu ezberdinean jokatu behar dugula; zorabioen, intoxikazio edo epilepsia kasu baten aurrean zer egin behar dugun; edo bihotzekoa sufritu duen pertsona nola lagundu erakusten dugu.

**Gaixoa lasaitzea eta norbera lasai egotea ezinbestekoa da?**

Bai, duda barik. Gaixoari eskua ematea, eta dena ondo dagoela, eta lasai egoteko esatea, oso inportantea da. Horretarako, ezinbestekoa da, gaixoaren ingurua egokia izatea. Orain dela gutxi, Bergaran gertatu zitzaidan: pertsona bat lurrean zegoen min hartuta, eta ni laguntzen. Gure inguruan pertsona asko zeuden begira, marmarrean. Halakoetan, pertsona horiei joatea eskatu behar diegu.

**Ikastaroetan parte hartzen dutenek, zer galdetzen dute?**

Askok bizi izandako kasuak kontatzen dituzte, eta bereziki bihotzekoen aurrean nola jokatu behar duten galdetzen dute. Masajeak nola eman behar diren galdetzen dute; gaixoa zein posiziotan ipini behar duten...

Azken finean, duten mina dutela, gaixoa posizio egokian ipintzea inportantea da: tronbosia denean erdi-eseritako posizioa; bihotzekoa denean etzanda; zorabioa edo barneko hemorragia denean anti-shock posizioan...

**Norbera lasai egon behar dela esan duzu. Baina, egoera guztiak ez dira berdinak; adibidez, istripu larria edo zorabioa. Berdin jokatzen dugu?**

Zorabio baten aurrean lasai jokatzen duen pertsona, akaso, urduri ipiniko da istripuaren aurrean. Baina, normala da, egoerak ez direlako berdinak. Ahal dela, lasai egotea da aproposena, eta istripu kasuetan gu ondo babestea: txaleko distiragarria ipini eta protokoloa jarraitu.

Pertsona batzuek odol hotza dute eta lasai asko egoten dira edozein jarreraren aurrean. Beste batzuk aldiz, ihes egiten dute. Dena den, legeak dio edozein istripuren aurrean laguntza eman behar dugula, ezin dugula ihes egin. Hori horrela, legez laguntza eman behar dugunez, sorospenaren gaineko jakintza badugu, askoz hobeto.

**Gutxieneko laguntza nahikoa da?**

Ikastaroetan esaten diet, gutxi bada ere, zerbaitetan lagundu ahal dugula: hitz goxoekin, gaixoari eskua emanda... Anbulantzia etorri arte gaixoaren alboan egonez gero, asko da.

Halako egoeratan, kritikoak direnean, egiten dugun apurra hil ala bizikoa izan daiteke. Pertsona asko bizirik daude istripu lekuan ezinbesteko laguntza jaso dutelako.

**Lehen sorospen egokia ematearen garrantzia azpimarratzen diharduzu. Hezkuntzan lantzen dute halakorik?**

Geroz eta gehiago. Ikastaro hauek ikastetxeetan ere ematen ditugu, eta baita enpresetan ere. Enpresetan lehen sorospenekin lagundu daitezkeen istripu asko egoten da, eta oinarrizko ezagupenak izatea inportantea da.

Esango nuke txiki-txikitatik lehen sorospena zer den ikasi beharko genukeela. Nik ez nuen lehen sorospena eskolan landu, baina egun egiten da, eta beharrezkoa iruditzen zait.

**Hortaz, beharrezkoak dira halako ikastaro-hitzaldiak?**

Bai. Gainera, geroz eta gehiago egiten ditugu. Lehen sorospenarekin ohitu egin beharko genuke, une bakoitzean zer egin behar dugun jakiteko.




Miren Amasorrain erizaina eta DYAko monitorea, Eskoriatzako ikastaroa hasi aurretik. | MIREIA BIKUÑA

**"Ikastarora datoz lehen sorospenarekin ardura dutenak"**

**"Lasai egon, gaixoa lasaitu eta ingurua babestu behar ditugu lehenik"**

**"Bihotzeko baten aurrean zer egin behar den galdetzen dute askok"**

**"DYAkoak hasi gara ikastetxeetan oinarrizko ikastaroak ematen"**

## ZABALIK

**JON ETXEBERRIA**
http://goiena.net/iritzia/



# Arabako Gas Miragarria

AEBek zabaldutako bideari jarraituz Arbel Gasa izeneko gas mota "berri" baten sukarra mundu guztira zabaldu da azken boladan (Txina, Polonia, Errumania, etab.), arazo energetikoak arinduko dituen energi iturri berria (eta negozio borobila) izango delakoan. Gurera ere duela hilabete gutxi iritsi zen. Gogoratuko duzue Patxi Lopezek Texasetik jakinarazi zuela gas meatoki garrantzitsu bat aurkitu dela Araban, Erkidegoaren beharrak 60 urtez asetzeko gai izango litzatekeena. Azaldu zuen gas hori ezohizkoa dela, arbel gas motakoa, eta poltsa handi batean egon beharrean, poltsa txiki anitzetan eta haitzaren barnean gordea dagoela. Berrietan esaten zenez, duela urte batzuetatik ezagutzen zen gas poltsa horien existentzia Araban, eta, orain arte bere ustiapena bideragarria ez bazen ere, teknologia berri baten garapenak, Haustura Hidraulikoa (Fracking) izenekoak, egoera guztiz aldatu du.

> **"Ustiaketa prozesuak arazo larriak sortzen ditu ingurumenean"**

Istorioa ez zatartzearren edo, ez zuen kontatu, ordea, beste zenbait datu interesgarri. Garrantzitsuena, ustiaketa prozesuak ingurumenean arazo larriak sortzen dituela (ur kutsatua, metano isioak, lurrikarak...), eta, ondorioz, herrialde batzuek jadanik debekatu egin dutela (Frantziak eta Bulgariak, adibidez) eta beste batzuek moratoria bat jarri diotela (AEBetako zenbait estatuk barne). Baina ez da hori bakarrik, askok uste dute energia honetan jarritako itxaropenak neurriz kanpokoak direla, eta burbuila ekonomiko bat puztu dela bere inguruan. Eta badaude hori pentsatzeko arrazoiak: AEBetako Energia Departamentuak, argitaratu berri duen urteko txostenean, arbel gasaren ustezko erreserba nazionala %40 jaitsi du aurreko urteko estimazioarekiko, eta, bestalde, 2011n *New York Times*-ek argitaratu zituen barne dokumentuen arabera, AEBetako gas industriatik bertatik, pribatuan modu kritikoan ikusten omen dituzte arbel gasaren zabaltze planak.

Kontuak kontu, gurean, esplorazio lanak aurten hasiko dira 100 milioi euroko aurrekontuarekin. Badugu beste polemika bat hurrengo hilabeteetarako, zaborren kontua konpontzen dugunerako.

## USTEAK USTE

**INAZIO ARREGI** | iarregi@goiena.com

# Adierazpen askatasunaz

Kalean kritikak jaso ditut aurrekoan idatzitakoagatik. Ez dut jarraituko gaiarekin. Arazo larriak ditugu gizartean zaborraren bilketarenaren aldean. Kezkatu nau gogorren gazte batzuek egitea, eta ziotenez, ez edukiagatik, baizik eta nire izenaren ondoan helbide elektroniko bat (aldatuta jada) edo beherago kargua zetozelako. Idazteko dudan zilegitasunaz aparte, beste kolaboratzaile batzuena ere zalantzan jarri zidaten. Adierazpen askatasuna arautu nahian edo. Adierazpen askatasuna ez da arautzen. Onartu egiten da, edo ez. Arautu sasidemokraziek egiten dute. Hala uste dut, eta gaiak zaborra biltzeko edozein sistemak baino gehiago kezkatu nau. Gogoetarako uzten dut.

## KALE INKESTA

# Krisiak izango du eragina Aste Santuko oporretan?



**IRAULTZ ARLUZIAGA**
SORALUZE

"Pentsatzen nuen izango zuela, baina itxura denez ez. Nekazaritza turismo bat hartzen saiatu naiz, eta dena beteta dago".



**RAKEL MURGIONDO**
ARRASATE

"Uste dut jendeak urtean ez duela horrenbeste gastatzen, eta horrelako kapritxoetarako uzten duela dirua".



**JULEN FERNANDEZ**
ARRASATE

"Zerbait izango du. Guk Aste Santuan ez dugu gastu handirik egiten, senideren baten etxera joatea da aukera bat".



**MIREN LAZKANO**
ARRASATE

"Pentsatzen dut baietz. Jendeak egonaldi laburragoak egingo ditu edo hemen geldituko da. Ni hemen ibiliko naiz".

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Nire eskiroltasuna

**Aritz Galarraga**
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Greba eguna Hego Euskal Herrian eta lehenengo kontraesana: zutabe hau idatzi beharra. Eta, ondorioz, lan apur bat —askorik ere ez, irakurle maite— egin beharra. Baina, batzuek uste dutenaren aurka, ez dira poliziak, kazetariak baizik greba egunetan lana justifikatuen dutenak. Bestela, inork gutxik izango bailuke grebaren beraren berri. [...]

Nire eskiroltasuna, beraz, bekatu bat da, baina badu *mea culpa*-rik. Gainera, oso pribatua da, etxeko zulotik ari naiz lanean; inork ez nau ikusten, ez dut piketerik jasoko atean, ez komunekoan ere, eta, beraz, lasai asko egin ahal izango ditut bestelako beharrak ere. [...]

A, baina kontzientzia arintzeko telebista piztea bezalakorik ez dago. Lanean ari da ETB ere: elefante bat zuhaitz baten kontra ekinean, ETB1en; bakerada bat, ETB2n; marrazki bizidunak, nola ez, ETB3n; eta aurreko eguneko futbol partida, Marseillako Olympique Municheko Bayernen aurka ETBKsaten —bide batez, Milanek eta Bartzelonak jokatutakoak %30 egin zuen, eta ETB1 asteazken gaueko lider—. Zerbitzu minimoak dira horiek, edo zer? Greba-greba izateko, doitze kartak behar luke, ezta?

Iritsi dira halako batean eguerdiko albistegiak. Hego Euskal Herriko lau hiriburuetako egoeraren argazkia egin dute ETBn, txukun. Nahiz gauza arraro batzuk pasa: adibidez istiluak —anekdotikoak, kasu askotan— hiriburuetako manifestazioen aurretik ematea; Bilbon ertzain batek konortea galdu duela esatea, baina ez Gasteizen gazte bat ZIUn dagoela; edo Yolanda Barcina erakustea esanez greba politikoa izan dela, batzuek "independentxia" oihukatu dutelako. Ez, emakumea, greba politikoa da agintean diren politikari batzuek langileen aurkako lan erreforma bat erabaki dutelako.

Eguna bakean bukatzeko jakin dut ez nintzela eskirol bakarra: Athletic-ek partida zuen, eta jokatu ere bai, noski. Ikusi behar azken partida ikusi zuten milaka lagunak egon ote diren telebista aurrean, horietako gehienak grebalari zintzo askoak.

# Modeloak egin egiten dira

**Joxe Aranzabal**
http://goiena.net/blogak/faroa/

Stephan Bollinger argazkilari suitzarrak bideo argigarria egin du, erakusteko ez duela merezi modeloak eredutzat hartzea, modeloak publizitate agentziek egiten baitituzte.

Zelan bihurtzen da baina, neska arrunt bat modelo xarmangarri?

Argazkilariak hiru pauso azpimarratzen ditu:

1-Ile apainketa eta makillajea. Bi lan horiek erabat alda dezakete modelo bat.

2-Argiztapena eta ikuspuntua. Argazkilariak beti bilatuko du modeloaren alderik onena eta argiztapenik egokiena.

3-Photoshop eta azken ukituak. Publizitatean, afixa handietan eta aldizkarietan agertzen diren argazki GUZTIAK ukituak izan dira Photoshopen.

Hortaz, amaitzen du Stephan Bollinger argazkilari profesionalak, ez gaitezen liluratu modelo horiekin, euren irudiak neurri handi batean artifizialak dira-eta.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna** Ubane Madera
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale.
**Difusioa:** 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza


400 MENU ETA ZINERAKO 100 SARRERA
TITLE DOAN
DIRECTOR
CAMERA GORBEIAN
DATE
SCENE
TAKE
Parte har ezazu 8 kontsumizio biltzen dituzten 50 txartelen eta zinerako 2 sarreren zozketan.
WWW.CENTROCOMERCIALGORBEIA.COM
Zer egin behar da parte hartzeko?
1. Egin 10€-ko edo gehiagoko erosketa bat Gorbeia Merkataritza Parkeko edozein establezimendutan sustapenak dirauen bitartean.
2. Sartu www.centrocomercialgorbeia.com-en eta eman izena.
Zure datu pertsonalak (izena, abizenak, helbidea, eta abar) eta erosketa-tiketari dagozkion datuak biltzen dituen formulario bat bete beharko duzu, eta egindakoan, maiatzaren 2ko zozketan parte hartu ahalko duzu.
IMAGEN21
Ikus Oinarri osoak honako web-orri honetan: www.centrocomercialgorbeia.com
GORBEIA
10 URTE AURREZTEN
Sustapenak martxoaren 30etik apirilaren 30era iraungo du
Carrefour
DECATHLON
Norauto
CÓCTEL
CORTEFIEL
Mr. Wok

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Enrike Ibabe** | EAko zinegotzia Aramaion (1987-1991) (1999-2003)

- Zinegotzi izan zen nekazaritza alorrean
- Arazo batzuk izan arren, agintaldi lasaiak izan zituen
- Udal, lantegi eta baserriko lanetan aritzen zen

# "Nire garaian guztion onerako lan egiten genuen; orain, beste bista batekin begiratzen dute"



Enrike Ibabe, Aramaioko Zubietagainekoa baserrian. | MIRYAM GALILEA

**MIRYAM GALILEA** | ARAMAIO

Aramaiokoa bertakoa da Enrike Ibabe, bizi den Zubietagainekoa baserrian jaiotakoa, eta bitan izan da zinegotzi bere herrian 1987-91 tartean eta 1999-2003an. Politika ez zaiola batere gustatzen aitortzen du, baina Udalean Nekazaritza Sailean egindako lanak gogoz gogoratzen ditu.

**Bi agintalditan izan zara zinegotzi; zergatik sartu zinen politika munduan?**

Zinegotzi Aramaion orain dela 23 urte egon nintzen lehenengo aldiz, eta orain dela 11 urte bigarren aldiz, baina ni politika munduan ez naiz sekula sartu. Ez zait politika batere gustatzen; EAn sartu nintzen talde batean egon behar nuelako, baina independentea izan naiz beti. Auzoari eta herriari laguntzeko sartu nintzen Udalean.

**Urte haietako zein oroitzapen dituzu?**

Egon nintzen denboran ez zen gorabehera handirik egon. Talde askotariko politikariak zeudenez, eztabaida bat edo beste egoten zen, baina gertakari berezirik ez genuen izan.

**Zein lan egin zenituen oposizioan?**

Mendiko kontuetan egiten nuen nik lan. Azkeneko agintaldian, mendiko 80 hektareako landaketa egin behar izan nuen; bide publikoak zaintzen nituen… Beti zegoen zerbait egiteko.

**Erabaki inportanterik hartu behar izan zenuen?**

Batzuk bai; obrak egin behar zirenean, ondo begiratu behar ziren paperak. Baina, orokorrean, herri lasaia da, txikia. Nik egiten nuen lanean, konkretuki, Udalaren konfiantza nuen erabaki batzuk hartzeko. Mendian lanak egiten zirenean, adibidez, hasieran bideak nola zeuden ikusi eta amaitzerakoan nola uzten zituzten zaindu behar zen; honen inguruan, fidantza bueltatzen zitzaien edo ez; hori izaten zen nire lana.

**Zinegotzi garaian, Udalean eta baserrian egiten zenuen lan?**

Eta lantegian ere bai! Arrasateko lantegi batean egin nuen lan 60 urte bete nituen arte, eta orduan erretiratu nintzen. Lehenengo agintaldian, lantegian eta Udalean egiten nuen lan, eta baserrian, noski. Orduan, lantegiak ordaintzen zizkigun Udalean lan egindako orduak, baina hori, denborarekin, kendu egin zuten. Bigarren agintaldi hasieran ez genuen kobratzen, baina gero, orduak ordaintzen hasi ziren. Nik neuk, erretiratuta nengoenez, herriarentzat utzi nuen dirua.

**Zer egiten zenuen gusturen?**

Mendiko lanak oso gustura egiten nituen. Txikitatik mendian eta baserrian ibilia naiz, eta etxean moduan egoten nintzen lan horietan. Baina ez zen hain lan lasaia, batzuetan arazoak egoten ziren -eta: bizilagunen arteko arazoak: batak zerbait apurtu duela, besteak hau egin diola… baina fidantzak edukita, bakoitzak zer ordaindu behar zuen adostu eta pakea.

**Fidantzak izan zenituen lagun orduan?**

Fidantzak inportanteak dira gauza hauetarako. Bi modu zeuden egiteko: jabeek ordaintzen zituzten edo, bestela, mendia erosten zutenek; orokorrean, mendia erosten zuenak ordaintzen zuen, eta, nire esperientziagatik, fidantza ordainduz gero hobetoxeago zaintzen zuten mendia eta bidea.

**Kanpotik begiratuta, nola ikusten duzu gaur egungo Aramaioko Udala?**

Jende larregi dago lanean; gehiegi, beharbada. Lehen, hiru egoten ginen: arkitektoa, noizbehinka aparejadorea… eta beste guztia pare bat lagunen artean egiten genuen; orain, bikoiztu egin da. Eta, orokorrean begiratuta, Aramaioko Udala nahiko ondo dago, baina udal asko herriari begiratu barik egoten dira, hurrengo agintaldirako botoei begira bakarrik. Lehen, guztion onerako lan egiten genuen; orain, beste bista batekin begiratzen dute.

**Politikara edo Udalera lanera bueltatu gurako zenuke?**

Ez. Adina daukagu eta lasai egoteko garaia da. Orain erretiratuta nago, lan apur bat egiten dut baserrian eta nekatzen naizean gelditu egiten naiz; beste inon ez nago sartuta. Lan pixka bat goizean eta mus partida arratsaldean, hori da dena.

**"Politika munduan ez naiz inoiz sartu; ez zait batere gustatzen"**

**"Mendiko lanetan ibili nintzen Udalean, eta etxean moduan egoten nintzen"**

**"Auzo eta herriari laguntzeko hasi nintzen lanean Udalean"**

**"Orain, jende larregi dago Udalean lanean; lehen, hiru lagunekin konpontzen ginen"**


ALKATE ANDREA, HARIRA!



GOIENA TELEBISTA | HARIRA | IMA BERISTAINEKIN ELKARRIZKETA

APIRILAK 3, 21:25 | APIRILAK 4, 13:00 | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

PARTE HARTU ETA EGIN GALDERAK ALKATEARI

SAIOAREN AURRETIK: posta: posta: *harira@goiena.com* | Goiena.net: albistearen barrenean, galdera edo iruzkina utzi.

ZUZENEAN: 943 25 05 03 | Twitter: traola *#harira* | Goiena.net: ikusi streaming bidez, eta egin galderak eta iruzkinak.

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# HERRIAK



Joan den eguenean elkartu ziren Bekala elkartekoak; irudian, zuzendaritza batzordeko hainbat kide. | MIKEL ORTUETA

ESKORIATZA

# Mendi, bide eta abereez arduratuko den elkartea sortzekotan dabiltza

- Dekala izena jarri diote; Degurixa, Kargaleku, Leixargarate eta Alabitan du lan-esparrua
- Lursailetako jabe, abereak dituzten baserritar, ehiztari eta mendizaleak daude taldean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Degurixa, Kargaleku, Leixargarate eta Alabita inguruneen izenen lehenengo hitzak batu eta horiekin Dekala elkarte berria osatzekotan dabiltza Eskoriatzan. Dagoeneko bidali dute Jaurlaritzara elkarte moduan erregistratzeko dokumentazioa, eta haren erantzunaren zain daude orain talde horretako partaideak.

Gipuzkoako Diputazioak udalerriko bideak berregituratzeko eta mendi batzuen erabilera ere berriro planteatzeko asmoa zuela jakin zen Eskoriatzan orain dela hainbat urte. Aizkorri-Aratz parke naturala ere sortu da azken urteotan, eta bi gertaera horiekin kezkatuta, hainbat eskoriatzar batu dira eta elkarrekin lanean hastea erabaki dutela jakinarazi digu Bolibar elizateko Mikel Ortuetak. Horren harira, honakoa esan digu: "Elkartea sortzekotan gabiltza Degurixa, Kargaleku, Leixargarate eta Alabita inguruneetako mendiak, bideak, horietan dauden abereak eta horrelakoak kontrolatzeko eta hobetzeko".

### Dagoeneko 27 kide

Dagoeneko hamabi bat batzar egin dituzte; azkena joan den eguen arratsaldean egin zuten. Ingurune horietan lursailak eta abereak dituztenek egin zituzten hasierako bultzatzaile lanak; Bolibar eta Mendiola elizateetako eta Lete auzokoak badira ere, Mazmelako eta bestelako elizateetako eta Eskoriatzatik kanpo bizi diren jabeak ere badaudela azaldu digu Ortuetak. Denborarekin, beste hainbat arloko eskoriatzarrak ere gehitu direla gaineratu digu hark. Denera, 27 bazkide ditu gaur egun elkarteak, kaltetutako lurjabeak, ganadua lur horietan izaten dutenak, txabola jabe, ehiztari eta mendizaleak batuta.

Horren harira, eskoriatzarrak nabarmendu gura izan du elkartearen ateak "irekita" dituztela, eta hortaz, gura duen edozeinek eman dezakeela izena. Interesa dutenak Ortueta berarekin jarri behar dira harremanetan, 649 05 17 35 telefono zenbakira deituta.

Elkartearen helburuaz ere egin digu berba: "Kudeaketa baikorra, produktiboa, arrazionala, jasangarria eta ingurunearekin errespetuzkoa bermatzea da asmoa, hori da, hain zuzen ere, sentiberatasun desberdineko eta behar ezberdinetako bazkideak egotearen arrazoi nagusienetakoa. Orain proiektua lantzen gabiltza, eta bakoitzaren lanak banatzen".

### Dirulaguntzak

Horren harira, honakoa gaineratu du Bolibar elizatekoak: "Bideekin zerikusia duena konpondu nahi dugu; horrekin lotuta esan beharra dago zona bakoitzak berea konpontzen duela; horretaz gainera, ehizarako araudi bat ezarri, abearendako bazkalekuak hobetu eta horrelako gauzak egin nahi ditugu". Hori guztia egiteko, dena dela, dirulaguntzak behar dituzte, eta arlo horretan ere lan egiten hasi direla dio: "Lan potoloenak egiteko dirulaguntzak behar ditugu, gure baliabideak ez dira-eta oso handiak". Udala proiektuan sartuta dagoela eta, ahal duen neurrian, laguntzeko gertu dagoela azpimarratu du Ortuetak. Lan egiteko gogorik ez da falta elkarte berri horretan.

**ESANAK**

**"Kudeaketa baikorra, produktiboa, arrazionala, jasangarria bermatzea da asmoa"**

MIKEL ORTUETA | ELKARTEKO KIDEA

**"Lan potoloenak egiteko dirulaguntzak behar ditugu, gure baliabideak ez dira-eta oso handiak"**

MIKEL ORTUETA | ELKARTEKO KIDE



'Xabalote' txorimaloa, 12 urtetik gorakoen artean irabazle. | U.M.



Kalesako paseoek arrakasta izan dute. | JULIO CALLEJA



Jendea saltokiak ikusten. | JULIO CALLEJA




'Bergarako erletxoak', 12 urtetik beherakoen artean irabazleetako bat. | U.M.



Eguerdi partean nekeza zen Bergarako kaleetan ibiltzea zegoen jende kopuruarengatik. | JULIO CALLEJA

BERGARA

# Indartsu, koloretsu eta beti bezain bizi, Erramu-zapatua

## Azokaren bueltan nagusiak, familiak zein gaztetxoak ibili ziren, kaleak lepo
## Gauak, berriz, bestelako bisitariak erakarri zituen, baina hura ere lepo

**UBANE MADERA** | BERGARA

Gustura utzi ditu bisitariak Erramu-zapatuko azokak beste urte batez. Fidel askoak ditu gainera jarraitzaileak, urtero-urtero, kale egin barik datozenak, bai Bergaratik eta baita ingurutik ere. Horren adierazle autoak aparkatzeko burukominak: "Nik Zubiaurren aparkatu behar izan dut mila buelta eman ostean", kontatu digu bisitarietako batek.

Behin autoaren "samina" utzita, baina, penak ahaztu eta azokaz polito gozatzeko aukera izan zen zapatuan. "Eta eguraldi honekin gehiago", zioten.

Krisia krisi, ikusten ez ezik, erosten ere ibili zen jendea, batez ere, jakiak; ogia, gozoak, eztiak... eta derrigorrezko bilakatu diren talo eta txorizoak: "Gosalduta etorri gara, baina etorri eta segituan jan dugu taloa eta txorizoa", kontatu du Karmelek.

### Txorimaloak eta beste

Ganadu, artisau, baserritar eta bestelako saltokiez gain, azokako ezinbestekoen artean, Jardun elkartearen txorimalo lehiaketak ere jarraitzaile sutsuak izan zituen: 24 taldek parte hartu zuen, 200 bat lagunek. Horien artean irabazle izan ziren 12 urtetik gorakoetan, *Xabalote* gaztelekua; eta beherakoetan, *Bergarako erletxoak*, *Bergarako skaterrak* eta *Euskarabi*. Euskarazko esaldirik onena, berriz, gaztetxekoek asmatu zuten: *Urrundik etorri ta gure altxorra badigu kentzen zergatik bidean jarri ta gure hitza ez diogu azaltzen?*



**JESUSA ARAMENDI**
OÑATI

"Urtero etortzen naiz, bai. Oso gustuko dut Erramu-zapatuko azoka, batez ere, oso gauza ederrak daudelako, eta oso-oso genero ona, eta genero ona geroago eta leku gutxiagotan egoten da".



**EZOZI ETXEBERRIA**
SORALUZE

"Arizaga baserritik etortzen gara, 6-7 bat urtez geroztik. Plaza ona da Bergara saltzeko, gu behintzat, ezin gara kexatu dagoen krisiarekin. Gure kasuan, jendeak gehien gauza gozoa eta batez ere ogia erosten du".



**RAMON AGIRREZABAL**
BERGARA

"Beti-beti irteten dut Erramu-zapatuan. Ganadu asko ikusi dut, oso ederra, makineria ere asko dago... aurten ere bastante itxurazkoa da azoka. Dena ikusten dudanean, ogia erosi eta bazkaltzera joango naiz".



**JUANITA URBISTONDO**
ANTZUOLA

"Askotan etorri izan naiz Bergarako Erramu-zapatuko azokara. Gustatzen zait ikustea, eta erosi ere erosten dut, gaur, pastel bat. Lehenagoko erara egindako gauzak dira eta hori gustatzen zait".



**IÑAKI OLABARRIA**
BERGARA

"Ni ez naiz saltzera etortzen, artisautza erakustera baizik; izan ere, uste dut artisautzaren etorkizuna gazteengan dagoela, baina horretarako erakutsi egin behar zaie, gazteen artean eskola egin egin behar da ".



Bisitariak Toribio Jauregiren argazkiak ikusten, barikuan Aroztegi aretoan. | U.M.

BERGARA-ELGETA

# 300 bisitari baino gehiago 'Bergara 1936' erakusketan

Bestalde, Elgetan lubakiak txukuntzen ibili ziren zapatuan, apirilaren 22rako




Elgetarrak (tartean Oxel Erostarbe alkatea) lubakiak txukuntzen. | JULIO CALLEJA

**UBANE MADERA** | BERGARA-ELGETA

Barikuan inauguratu zuten Bergarako Aroztegi aretoan gerra hasi zenetik Elgetako frontea erori arteko argazki erakusketa (*Bergara 1936*) eta dagoeneko 300 ikusletik gora izan ditu. "Eta garrantzitsuena da zapatuan asko ibili zirela argazkietako jendea identifikatzen, eta guretzat hori da garrantzitsua", adierazi du Juan Ramon Garaik, Intxortan 1937 elkarteko ordezkariak.

Toribio Jauregiren bilduma da Aroztegin dagoena ikusgai, "Intxorta elkartea, udal artxiboa eta Bixente Jauregiren (Toribioren semea) arteko elkarlanari esker" egindakoa, Juanje Amasorrain zinegotziak azaldu moduan: "Gauzak ezkutuan egotea ez da ona, hobe da jendeak jakin dezala, ez mendekua hartzeko, baizik eta jakiteko zer gertatu zaien norbere arbasoei", adierazi du.

Bixente Jauregik ere nabarmendu du gertutasun hori: "Jendea etor dadila: hau da tio, aitajauna… izendatzen laguntzeko".

### Lubakiak garbi eta gertu

Bestalde, Elgetan dozena bat lagun auzolanean ibili zen zapatuan lubakiak txukuntzen, apirilaren 22ko oroitzapen-ekitaldiari begira (Elgeta jausi zela 75 urte). "Lurrarekin betetako zaku asko usteldu egin dira; porlan-hondarrez betetzen gabiltza orain. Milatik gora aldatu behar ditugu", kontatu du Patxi Basauri Turismo zinegotziak.

OÑATI

# Arantzazura igo dira Gipuzkoako erromesak, "bakera heltzeko"

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

*Zorionekoak bakegileak* irakur zitekeen pankarta eusten Jose Inazio Munilla Gipuzkoako gotzaina eta Juan Kruz Mendizabal eta Joseba Gonzalez bikarioak buru zirela joan ziren ehunka erromes zapatu goizean Arantzazura oinez, "gero ta gertuago dagoen bakera heltzeko". Horixe esan zuen Munillak eguerdiko otoitzaldiko homiliaren hasieran: "Egunen batean jakingo dugu zer-nolako eragina izan duen otoitzak terrorismoaren bukaeran" (…) "Itxaropenez begiratzen diogu garai honetan zabaldu den etorkizunari; eta, aldi berean, galdera egiten diogu geure buruari, zein izan behar ote zukeen gure ekarpena bide berri honetan…" gaineratu zuen.

Arantzazuko plazan egin ordez, basilika barruan egin zuen Gipuzkoako gotzainak aurten 20 minutuko otoitzaldia, 2.000 lagun inguruen aurrean. Gehienak autobusetan joanak; Gipuzkoatik eta Gernikatik joandako 30 autobusetan. Beste hainbat euren kontura joan ziren.




Erromesak Arantzazuko igoeraren hasierako maldetan gora, Soraluze jatetxearen parean. | OIHANA ELORTZA



**PERIKO ALKAIN**
DONOSTIA

"Lehen bakea urrutiago zegoen eta jende gehiago etortzen zen; egun gertuago egonda ere ez digute bake handirik ematen. Batzuk euskal arazoaren inguruan datoz, beste asko norberaren fedea suspertzeko".



**ARANTZA URTZELAI**
OÑATI

"Bakearen alde etorri gara, beharrezkoa delako eta denok horren bila gabiltzalako. Urtero etortzen naiz, bai ona baita irailean Arantzazuko Amabirjiñaren egunean egiten denera, hura berezia da oñatiarrondako, geuria".



**JOXE MANUEL URKIZU**
ORIO

"Bakearen alde mobilizatu beharra dagoelako etorri gara. Jendea mentalizatu egiten da hemen esandakoarekin, denok batera egin behar dugu bultzada. Erromesaldi hauek ere izan dute tokia gauden bake egoerara heltzeko bidean".



**EUGENIA, MERTXE, JUANE, MIREN, AMAIA, ASUN, ENKARNI**
DONOSTIA

"Aspalditik etortzen gara Arantzazuko erromesaldi honetara, duela urte asko hasi ginen etortzen. Batzuk manifestazioak egiten dituzte bakea eskatzeko, eta gure modua hauxe da, erromes etortzea. Bakearen alde Arantzazuko Amabirjiñari eskerrak ematera etorri gara eta eskatzera. Fede handia diogu Arantzazuko Amari. Igoera honetaz aparte, beste igoera, erromesaldi, batzutan ere parte hartu izan dugu; elurra ari zuela ere igo ginen behin. Aurtengo honetara autobusean etorri gara, Donostiatik".




Enplegurako orientazio eta arreta bulegoa jardunean segituko du. | M.G.

# Herriko Udalak enplegua sustatzen segitu nahi du

## Enplegu batzordearen aurrekontua 500.000 euro izango da, aurrekoan baino zerbait handiagoa

**MIRYAM GALILEA** | ARRASATE

Enplegua bultzatu nahi du Arrasateko Udalak, eta, horretarako, Enplegu batzordearen aurrekontua 500.000 euro izango da, aurrekoan baino handiagoa.

Orain arte bezala, epe luzean dauden langabeentzako ikastaroak eta lan kontratuak egiten jarraituko dute; aurreko urtean 27 egin ziren. Enpresa berrientzako dirulaguntzak ere ez dira faltako, eta Ibai Arte, Mankomunitate eta bestelakoekin hitzarmenak egingo dituzte.

**DATUA**

**11,57**

KO LANGABEZIA

Martxoan jasotako azken datuen arabera, langabeziak gora egin du, eta Arrasaten %11,57 da.

**Krisi garaia**

Enpresa berriak bultzatzeko dirulaguntzak egonda ere, krisi garaian oso zaila da negozio berri bat martxan jartzea. Hala ere, Udalak hori bultzatzen du eta Debagoieneko Mankomunitateak, berriz, lokalak eskaintzen ditu enpresa berri horiek kokatzeko. Momentu honetan sortzen diren enpresa gehienak teknologia berrien ingurukoak dira.

**Langabezia**

Martxoan jasotako azken datuen arabera, langabeziak berriro ere gora egin du Arrasaten, eta momentu honetan %11,56 da. Azkeneko sei urteetan goraegin du, baina tendentzia nabarmenik ez da ikusten, bai adin, ikasketa maila edo industria eta zerbitzu alorretan berdintsu dago-eta.

**Orientazio zerbitzua**

Udalako Orientazio Zerbitzuan, enpresen zerrenda, behar eta eskaintzak jasotzen dituen inbentarioa dute, eta, langabezian dagoen pertsonaren profilaren arabera, haiekin harreman zuzenean jarri eta koordinatu egiten dute.

Enplegu Sailak, Orientazio Zerbitzuaz gainera, bestelako ekintzak ere kudeatzen ditu. Ikuspuntu integrala du Udalak, eta ekonomia kanal tradizionalak aztertzeaz gainera, beste ekonomia mota batzuk ere begiratzen dituzte.

Aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen diete herritarrei, eta harreman estuena Lanbiderekin du. Egunotan, Lanbiderekin sinatutako hitzarmena amaitu egingo da, eta aurrerantzean oraindik ez dago argi beste bat sinatuko duten edo ez. Dena den, gertatzen denaz aparte, Udalak aholkularitza zerbitzu hori eskaintzen jarraituko du.

### LANBIDEREKIN HITZARMENA, KOLOKAN

Enpleguaren barne sustatzen diren gai askoren inguruan Udalak Lanbiderekin du harreman estua. Harekin ikastaroak eta dirulaguntzak kudeatu izan ditu orain arte, baina egunotan hitzarmen hori bukatu egingo da eta oraindik ez dago argi hemendik aurrera hori berritu edo bertan behera geldituko den. Hala ere, Lanbiderekin jarraitu edo ez, aholkularitza zerbitzua ematen jarraituko du Arrasateko Udalak, orain arteko leku berean. Hara joan, hitzordua eskatu eta lehenengo harremana egin ondoren, lan eskaera bideratuko da. Joxerra Askasibarrek, Enplegu batzordeburuak, dioenez, "Arrasateko Udalak esfortzu handia egiten du bere konpromisoa aurrera eramateko eta bere programak mantentzeko".

### Enplegurako laguntzak

- Epe luzeko langabeentzako ikastaroak eta lan kontratuak egiten dira.
- Enplegua sustatzeko, Mankomunitate, Ibai Arte eta bestelakoekin hitzarmenak.
- Enpresa berrien sorrerarako dirulaguntzak eta lokalen eskaintza.

### Lan-erreformak zer dakarren

Joxerra Askasibarrek, Enplegu batzordeburuak, azaltzen duenez, lan-erreforma berria eraso basati eta bortitza da. Aldaketa ugari ekarriko ditu, eta, beste leku guztietan bezala, udal funtzionamenduan ere igarriko dira aldaketa horiek. Askasibarrek dioenez, lan-erreforma horrekin, langileen eskubideak urratu, lan prekarioa finkatu eta kontratazio lan poltsak baldintzatuko dira. Hain zuzen ere, euskal langileen egoera kaxkarra izango da.

# Nerabeen gurasoentzako ikastaro berriak maiatzean

**U.M.** | ARRASATE

Arrasateko Udaleko Prebentzio Zerbitzuak gurasoentzako ikastaroak antolatu ditu, eta maiatzaren 3an hasiko dira.

Ikastaroak 12-18 urte bitarteko nerabeen gurasoentzako dira eta Kulturateko Loramendi gelan emango dituzte maiatzaren 3an, 10ean, 17an eta 24an, 18:00etatik 20:00etara.

Oraingo honetan, AGIPAD elkarteko psikologoa izango da hizlaria, eta izen-ematea apirilaren 25a baino lehen egin beharko da Gizarte Zerbitzuetan edo BAZen (943 25 20 07 edo *prebentzio@arrasate-mondragon.net)*.

Hain zuzen ere, maiatzaren 3an *Geure seme-alaba nerabeak* gaia landuko dute; 10ean, berriz, *Seme-alabak hazterako orduan adostasuna bikotearen artean, lortu al daiteke?*; maiatzaren 17an, *Arauak eta mugak ezartzen* gaiari buruz arituko dira; eta, amaitzeko, maitzaren 24an *Nola bideratu nerabeen gaueko irteerak?* eztabaidatuko dute.

**TXALOAK ETA TXISTUAK**

# Dendetako kartoiak kalean sakabanatuta

Arrasateko komertzioek ordutegi eta egun bereziak dituzte kaxak eta kartoliak kalera atera eta haiek birziklatzeko. Irakurle baten esanetan, ostiraletan, txikiteo egunean, nahiz eta horiek txukun utzi, kalean dauden umeak hartu eta jolasean ibiltzen dira, eta dena zikintzen dute. Portaloian, plazan eta beste hainbat lekutan gertatzen dela dio. Konponbide gisa, eguna aldatu edo gurasoek umeak kontrolatzea eskatzen du.




NEREA ARTOLA



Jon Garai eta Kepa Urteaga, egubakoitzean, Arrasateko kiliki eta erraldoiekin. | IRATI GOITIA

# Buruari eraginez, San Juan jaiak "guztion" artean antolatzeko deia

▶ Jaiak antolatzeko prozesu parte–hartzailea abiaraziko du Udalak

▶ Herritarren inplikazioa nahi dute, guztion gustuko jaiak antolatzeko

I.G./ X.U. | ARRASATE

San Juan jaiak antolatzeko prozesu parte-hartzailea abiaraziko du Arrasateko Udalak. Helburua da herritarren artean antolatzea herritarrendako erakargarri izango den jai egitaraua, eta egubakoitzean egindako prentsaurrean adierazi zuten Udaleko ordezkariek ze asmo duten: "Jendeak parte-hartzen ez badu jaiak hil egiten dira", adierazi zuen Kepa Urteaga kultura zinegotziak. Eta, gaineratu zuen lehen bi egunetan –San Juan bezpera eta San Juan eguna– jende askok hartzen duela parte, baina hurrengo egunetan behera egiten dutela jaiek: "Horrenbestez, egun horiek indartzea da nahi duguna".

**Indarrak batu**

San Juanetarako ideia berriak dituen edonor animatu zuten prozesu horretan parte-hartzera: bai norbanakoak eta baita elkarte edo taldeak ere. Gaineratu zuten elkarte eta talde ezberdinek indarrak uztartzen badituzte ekintza erakargarriagoak antolatu ahal izango direla, eta hori dela helburua: "Jende askok ohitura du lotura duen elkarte edo taldeek antolatutako ekitaldietara joateko, baina ez besteetara. Horregatik, elkarte eta taldeak batuz gero, ekintza potenteagoak antolatu ahal izango dira".

San Juan jaiei bultzada emateko lehen bilera apirilaren 3an egingo dute, Kulturateko Loramendi gelan, 19:00etan. Hala, lehen batzar horretan finkatuko dituzte aurrera begira jorratuko dituzten gaiak eta bileretarako egutegia.



Jaietako kaleko postu bat. | GOIENA

## Kaleko postuak jartzeko prozedura

San Juanetan, bide publikoan –Garibai eta Kontzezino kaleen artean– saltzaile ibiltariek salmenta postua jarri ahal izateko lizentzia xedatzeko baldintza plegua onartu du Udalak. Hala, postu horiek jartzeko izena emateko epea apirilaren 10ean hasi eta maiatzaren 14an bukatuko da.

Arrasateko Udalak maiatzaren 21ean egingo duen zozketaren bidez banatuko dira lizentziak.

## Usaetxeko labirintoa gertu jolasteko!

Joan den astean Usaetxeko ludotekako haur eta gurasoak jo eta ke ibili ziren lanean labirinto erraldoia egiten. Labirinto hori guztien artean batutako materialaz egin dute, eta, *Berramesten* izeneko blogean idatzi bezala, gertu dago dena: "Beraz, Arrasateko haur, heldu eta gazteok baduzue jolaserako beste aukera bat".



JULIO CALLEJA

## Ikasleak, antzerkiaz gozatzen

22. Antzerki Jardunaldien barruan, inguruko ikastetxeetako ikasleek antzerkiaz gozatzen ibili ziren joan den astean. Azken saioak egubakoitzean egin zituzten Amaian, eta Institutuko eta Arizmendikoen txanda izan zen orduan. Erretratuan, Arizmendi Almenekoak *6. maila bukatu dut*, antzezlaneko une batean.



GOIATZ ARANA

## Besaidek gertu ditu apirilerako mendi irteerak

Besaide Mendi Elkarteak gertu ditu apirilean egin beharreko irteerak. Batetik, apirilaren 21eko eta 22ko asteburuan mendiko eskiko irteera egingo dute Frantzia aldera. Tuc de Mulleres eta Tuc Port de Vielha aldera joango dira. Izen-ematea apirilaren 16an eta 17an egin ahal izango da (19:00-20:00).

Apirilaren 22an, berriz, mendi irteera egingo dute Bizkaira, Karrantza aldera. Izen-ematea hilaren 16an, 17an, eta 18an (19:30-20:30).

## Eguaztenean Zarugalde itxita egongo da, goizez

Iberdrola energia enpresak egin beharreko lan batzuk direla-eta, Zarugalde kalea itxita egongo da datorren eguaztenean, apirilak 4. Zehazki, Iberdrolako langileek arketa bat egiteko itxiko dute Zarugalde kalea, baina lan horiek goizez bakarrik egingo dituzte. Hala, 09:00etatik 11:00etara bitartean automobilek ezin izango dute kale hori zeharkatu. Eguerdia baino lehenago, berriz, normaltasun osoz ibili ahal izango da Zarugalden.

# Bergarako besarkadaren gaineko erakusketa zabaldu dute Irizarren

## Erakusketa iraunkorra da, 1839ko hitzarmena gogoratzen duena




Elortza alkatearekin batera, Justina Elexpuru eta Maren Belastegi zinegotziak eta erakusketako arduradunak, Irizarren. | E.M.

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Bergarako besarkadari buruzko erakusketa iraunkorra ikusgai dago Irizar jauregiko sarreran egubakoitzetik. Inaugurazioan, Jesus Elortza alkatearekin batera, Justina Elexpuru eta Maren Belastegi zinegotziek, David Zapirain historialariak, Amaia Labaien Islada Multimediako diseinatzaileak eta Mikel Ibarzabal artisauak hartu zuten parte.

Irizar jauregia hautatu dute erakustoki bezala 1839. urtean bertan berretsi zutelako Lehen Gerra Karlistari bukaera emango zion hitzarmena. 1833an hasi zen Lehen Gerra Karlista eta Maroto jeneral karlistak eta Espartero jeneral liberalak 1839ko abuztuaren 31n sinatu zuten hitzarmena. Jesus Elortza alkateak egubakoitzeko aurkezpenean azpimarratu zuenez, herriko kultura eta arkitektura ondarea nabarmendu eta turismoa bultzatu nahi izan dituzte Irizarren zabaldutako erakusketarekin.

### Erakusketak bi atal

Erakusketak bi atal nagusi ditu: batetik, atariaren sarreran, eskuineko aldean, Bergarako hitzarmena azaltzen da. Bertan Maroto eta Espartero jeneralen tamaina erreraleko figurak daude eta bi figuron artean, panel batek hitzarmenaren nondik norakoak sakonago azaltzen ditu. Mikel Ibarzabal bergararrak egin ditu Bergarako besarkadaren protagonisten figurak. Bestetik, ezkerreko aldean, Irizar jauregiko lorategiaren eta jauregiaren alderdi historiko-artistiko esanguratsuenak batzen dituen egitura jarri dute ikusgai.

Erakusketa astean zehar 10:00etatik 20:00ak arte izango da ikusgai eta zapatu eta jai egunetan goizez zabalduko dute, 10:30etik eta 13:30era.

### Liburuxka, lagungarri

Erakusketarako *Besarkadak. Bergarako bake hitzarmena gogoan* izenburuko liburuxka kaleratu dute, euskaraz eta gazteleraz, 4.000 ale guztira. David Zapirain historialariak egindako ikerketa lanean oinarritutakoa da eta 19 orrialde ditu, ilustrazioekin lagunduta. Testuak Zapirainenak eta Juan Carlos Morarenak dira. Aipatutako liburuxka Turismo Bulegoan izango da eskuragarri.

Aste Santura begira, Turismo Bulegoa egubakoitzean zabaldu zuten udaletxeko sarreran eta apirilaren 15era arte izango da zabalik. Ohikoa denez, bisita gidatuak antolatuko dituzte eta Irizar izango da geralekuetako bat.



Mikel Ibarzabal, Marotoren figuraren ondoan. | E.M.



Gelak gertatzeko lanean dihardute egunotan Seminarioko patioan. | E.M.

# Aranzadiko Martinez de Irala eraikineko irakasleak, Seminariora

**E.M.** | BERGARA

Aste Santuaren ostean, Matxiategin, Martinez de Iralako eraikinean dauden Aranzadiko ikasleak Seminariora igaroko dira. Aurreikusitako epeak betetzen badira, apirilaren 16rako gertu egongo dira aurrefabrikatutako gelak Seminarioko patioan. Izan ere, Seminarioko eraikinean egiten dihardute berrikuntza lanak aurrera doaz, baina bukatu ez dituztenez, ikasleendako aurrefabrikatutako moduluak jartzen ari dira patioan. Jaurlaritzako Hezkuntza sailak utzi ditu aipatutako modulu horiek.

### Eraikinean eta patioan

Guztira, bigarren hezkuntzako 200 ikasle inguru aterako dira Martinez de Iralako eraikinetik, bederatzi gela hain zuzen. Horietako bost gela Seminarioko erakinean egokituko dituzte eta beste laurak aurrefabrikatutako moduluetan, patioan.

Egunotan Aranzadikoek utziko duten Martinez de Iralako eraikina Hezkuntza sailarena da. San Martin eskolak kudeatuko du etorkizunean; gaur egun San Martineko jangela, haurreskola eta lehen hezkuntzako hiru gela jasotzen ditu.

## OHARRAK

**HAUR LITERATURAREN EGUNA SAN MARTINEN**

Haur Hezkuntzatik hasi eta ziklo guztietan ipuin kontaketak egingo dituzte gaur arratsaldean San Martin ikastetxean, haurrak ipuinekin gozatzeko helburu soilarekin. Ziklo bakoitzarentzat prestatutako ipuinen irudiak eta laburpenak jarriko dituzte ikusgai eskolan. Hans Christian Andersenen bizitza eta idazlanak aztergai izan zituzten aurreko astean.

**BIZIKASIK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK**

Bizikasik pare bat ikastaro iragarri ditu datozen asteotarako. Alde batetik *Jendaurrean nola hitz egin* landuko dute (apirilak 24, 26 eta maiatzak 3 eta 8) eta bestetik *Ipuin kontaketa tailerra* egiteko aukera izango da apirilaren 25etik maiatzaren 10era. Bietan ere plaza mugatuak dira eta izen-ematea kultura etxean, 943 77 91 58 telefono zenbakian egin daiteke.

**IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABEENDAKO**

Miguel Altuna institutuan langile eta langabeei zuzendutako ikastaroak antolatu dituzte. %100ean diruz lagundutako ikastaroak dira: *Autocad; Soldadura elektrikoa eta erdi-automatikoa*; *Orga jasotzailearen erabilpena*; eta *Egiaztapen dimentsionala*. Argibideak 943 76 70 49 eta 688 81 50 70 telefono zenbakietan.

**HAURRENDAKO UR JARDUERAK**

Sei hilabete eta 4 urte bitarteko haurrendako ur jarduerak antolatu dituzte Agorrosinen. Ikastaroa apirilaren 21ean hasiko da eta eta ordura arte plaza libreak betetzeko aukera eskaintzen dute. Argibide gehiago Agorrosin Kirolgunean, 943 77 70 95 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

**ODOL ATERATZEAK, ASTE SANTUAREN OSTEAN**

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak jakitera eman duenez, apirileko odol ateratzeak Aste Santuaren ostean egingo dituzte. Hain zuzen ere, apirilaren 11n eta 25ean egingo dituzte odol ateratzeak anbulatorioan, ohiko ordutegian, 18:00etatik 20:30era.

**SAN MARTZIALGO KANTINARAKO ESKAERAK**

Uztailaren 1ean San Martzialgo kanpan irekiko den kantina eta txosnaren esplotazioa adjudikatuko ditu Udalak. Irabazi asmorik gabeko elkarteek eta talde herrikoiek emaiatzaren 30era arte daukate eskaerak aurkezteko epea zabalik. Argibide gehiago udaletxean edo 943 77 91 00 telefonoan.



San Joxepeko zuzendaritzako kideak, eguazteneko batzar orokorraren ostean ateratako irudian. | E.M.

# San Joxepe erretiratuen elkarteko zuzendaritzan pare bat aldaketa

Carlos Arrondo presidentearen ordezkoa ez dute oraindik izendatu; Jose Mari Larrañaga eta Jose Ignacio Zabala dira zuzendaritzako kide berriak

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

San Joxepe elkarteko kideek urteko batzar orokorra egin zuten eguaztenean, erretiratuen egoitzan. Zuzendaritza eta elkarteko bazkideekin batera, Justina Elexpuru zinegotziak hartu zuen parte, Udala ordezkatuz. 80 lagun inguru elkartu ziren.

Besteak beste, zuzendaritzan hainbat aldaketa egitea adostu zuten batzarrean. Zazpi urtez zuzendaritzan egon ostean (horietatik sei presidente karguan), Carlos Arrondok zuzendaritza utzi du eta harekin batera Maria Eugenia Silanes atera da. Jose Mari Larrañaga eta Jose Ignacio Zabala dira zuzendaritzako kide berriak eta beste zortzi lagun gehiago dira zuzendaritzan: Jose Inazio Beristain, Begoña Garitano, Beatriz Larrañaga, Jose Ramon Lozano, Rosa Mari Larrañaga, Benjamin Lazkano, Antolin Marchena, Mari Karmen Otaola. Oraindik ez dute presidente berria izendatu, baina datozen asteotan hartuko dute horren gaineko erabakia.

San Joxepek 1.608 bazkide zituen abenduan, horietatik 946 emakumezkoak eta 662 gizonezkoak. 80 urtetik gorako bazkideak 429 dira, %26,2 hain zuzen.

**Logroñora irteera**

Urtean zehar antolatutako ekitaldiekin jarraituz, San Joxepekoek Logroñora irteera iragarri dute apirilaren 24rako. Bergaratik 08:30ean aterako dira eta bazkal aurretik Iregua bailaran zehar ibiliko dira. Argibideak 943 76 21 40 telefono zenbakian.

## Tibeten aldeko mozioa onartu zuen aho batez udalbatzak

**E.M.** | BERGARA

Aurreko asteleheneko osoko bilkuran Tibeteko giza eskubideen eta askatasunaren aldeko mozioa onartu zuten aho batez. Jaurlaritzari zein Espainiako gobernuari hauxe eskatzen dio aipatutako testuak: "Europako Legebiltzarrak 2000ko uztailaren 6an eman zuen ebazpenaren arauak jarrai ditzatela, eremu guztietan herri tibetarraren autonomia osoa bermatuko duen akordioa ahalbidetuz; salbuespen bakarrak defentsako politika eta kanpo-politika izango lirateke". Era berean, hiru urteko epemugaren ostean, erbestean dagoen Tibeteko gobernua onar dadin Europako Legebiltzarrak egin duen proposamena onar dezatela adostu zuen udalbatzak. Azkenik, Tibet herrirako Europar Batasuneko ordezkari bereziaren izendapena babestuz 1998ko urtarrilaren 16ko eta 2002ko apirilaren 11ko Europako Legebiltzarrak eman zituen ebazpenei berehala erantzun diezaietela eskatu die Udalak Jaurlaritzari eta Espainiako gobernuari.

Tibetar Herriarekiko Elkartasun Elkartearen *Una bandera por un estado de autonomía plena para Tibet* kanpainaren barruan kokatzen da onartutako mozioa. Txinako indar armatuak 1949an sartu ziren Tibeten, indarrez. Ordura arte herrialde independentea zen.

### Pentekoste jaietarako kartel lehiaketa deitu dute

Bergarako Udalak, aurtengo Pentekoste jaietako egitarau ofizialeko azala ilustratzeko kartel lehiaketa deitu du. Lehiaketan edozein pertsonak har dezake parte. Kartelek 24 x 34 zentimetroko neurria izango dute, eta formatu bertikala. Teknika librea erabili ahal izango da baina *Pentekoste Jaiak 2012 Bergara* testua azaltzea derrigorrezkoa da. Irabazleak 400 euro jasoko ditu. Lanak kultura etxean aurkeztu behar dira apirilaren 24ko 13:00ak baino lehen. Interesatuek kultura etxean edo 943 77 91 58 telefono zenbakian jaso ditzakete lehiaketaren gaineko argibide gehiago.

### Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga, maiatzaren 31ra arte

Urtero legez, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2012. urteko errolda onartu du Bergarako Udalak. Hain zuzen ere, zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31ra arte izango da zabalik. Egun horretatik aurrera errekarguarekin eskatuko da. Udaletik jakitera eman dutenez, helbideratutako erreziboak maiatzaren 31n kargatuko dituzte zergadunen kontu korrontean.

Edozein argibidetarako udaletxera jo dezakete interesatuek astelehenetik egubakoitzera, goizez, 14:00ak arte, edo kontuhartzailetzako 943 77 91 64 telefono zenbakira deituta.



MIGUEL ALTUNA

## Enpresa simulatuen azokan

Miguel Altuna Institutuko ikasleek Bartzelonako Enpresa Simulatuen Azokan hartu dute parte, Estatu barruko zein kanpoko beste 62 enpresa simulaturekin batera. Garbi SLS enpresa simulatuarekin izan ziren bergararrak. Ikasleek stand bat ipini eta gainontzeko enpresekin harreman komertzialak ezartzen dituzte. Goi mailako Administrazio eta Finantzen Zikloaren barruan moduluetako ekintza praktikoa izan da Bartzelonakoa.




ENEKO AZKARATE

## Mendizale gaztetxoak Gorlan

Pol-Pol Mendizale Taldeko eta herriko ikastetxeetako (Aranzadi, Mariaren Lagundia eta San Martin) guraso eta ikasleek, 80 bat guztira, Gorlara joan-etorria egin zuten aurreko domekan. Eguraldia lagun, Fraiskozuritik oinez atera eta Gorlako txirrindularitza igoeraren amaiera bertatik bertara ikusteko aukera ere izan zuten. Pol-Poleko urak herrira ekartzeko XIX. mendean eraiki zuten eta duela urte gutxira arte erabilia izan den ur-kanala ere ezagutu zuten. Han, gainera, Mendia Bizirik taldeko kideekin topo egin zuten, uraren ibilbidearen gaineko azalpenak ematen zebiltzala. Gorlan, indarrak hartu, mokadutxoa egin, karrera ikusi eta pozik itzuli ziren etxera.


EAJko eta Bilduko zinegotziak hilaren 28ko osoko bilkuran. | MIREIA BIKUÑA

ESANAK

**"Ez garela pedagogikoak?" Atez ateko batzarretan 657 herritar egon dira"**

IOSU LIZARRALDE | BILDUKO ZINEGOTZIA

**"Galdera argia egin behar da: atez atekoaren aldekoa zara? Bai ala ez?"**

LOURDES IDOIAGA | EAJKO

# Atez atekoaren aldeko konpromisoa hartu dute

## Bildu udal taldeak mozioa aurkeztu zuen martxoko osoko bilkuran; EAJk galdeketa egitea eskatu zuen

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Udalak atez atekoaren aldeko bidean beste urrats bat eman du: martxoko osoko bilkuran "emaitza onenak lortzen dituen hiri hondakinen bilketaren, atez atekoaren, aldeko konpromisoa" hartu zuen mozio bidez. Bilduk alde bozkatu zuen eta EAJk kontra. "Udal Gobernuak aurrez egin behar zuena, eta ez egin ez duena da, prozesu bat martxan ipini, eta ikerketa ekonomiko-finantzarioa egin atez atekoaren eragina baloratzeko", esan zuten jeltzaleek.

**"Oñati garbia gura dugu"**

Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioan, Debagoieneko Mankomunitatearekin batera "hondakin gutxien sortzeko azterketa abiarazi eta familien artean konpostatze kanpaina egitea" eskatzen zen. "Oñatiarrok arazo bat daukagu hondakinekin: ez dugu organiko gramo bakar bat ere biltzen modu berezituan. Arazo bat daukagu, baina konponbidea ere bai: hondakinen murrizketari, berrerabiltzeari eta birziklatzeari ekingo diogu. Oñatiko errekak, mendiak eta airea garbi nahi ditugu", esan zuten.

Horren harira zera erantzun zuen Lourdes Idoiagak, EAJren izenean: "Oñatiko Udalak behin eta berriz eskatu zuen organikoa batzeko bosgarren edukiontzia martxan jartzea. Baina aurreko agintaldiko mankomunitateak ez zigun aukerarik eman. Eta guk ere Oñati garbia gura dugu. Erabat ados gaude zabor gutxiago sortu behar dugula, konposta egitea bultzatu behar dugula, eta zero zabor bidean jarri, ahalik eta gehien birziklatzeko. Eta hori guztiori bosgarren edukiontziarekin ere egin daiteke, nahiz eta borondatezko sistema izan", esan zuen.

**Galdeketa egitea**

EAJk ere zabor bilketari buruzko mozioa aurkeztu zuen. "Atez atekoaren kontra gaude", "atez atekoa atzerakada da", eta "zabor bilketa sistemak eztabaida sortu du eragile, alderdi politiko eta herritarren artean" aipatzen zuten jeltzaleek mozioan; eta eskaera zehatza egiten zioten udalbatzari: "herritarrok atez ateko bilketa sistemaren inguruan dugun iritzia jakiteko galdeketa eskatzen dugu. Helburu horrekin, galdera argia eta nahasmenari tarterik uzten ez diona egitea eskatzen dugu: Oñatin atez ateko sistema ezartzearen aldekoa zara? Bai ala ez?".

Horren aurrean, erantzun egin zuen Iosu Lizarralde zinegotziak: "Galdera hori oso sinplista da, arazoari konponbidea ematen dion irtenbideak planteatu barik. Galdeketari dagokionean, nik beste galdera bat egingo dut: zilegi al da herritarren osasuna arriskuan ipintzen duen galdeketa egitea?".Bilduk ez zuen mozioa onartu.

**"Ez garela pedagogikoak?"**

Bildu udal taldeak erreferentzia egin zion EAJko etxez etxe banatu dituen triptikoei. "Diozue pedagogiaren bidez lortzen direla emaitzak. Ez garela pedagogikoak? Atez atekoaren batzarretan 657 herritar egon dira, eta askok esan digute batzar pedagogikoak izan direla", esan zuen Lizarraldek.

# Alemaniako ikasleak Elkar Hezikoekin, astebetez

Astebete egingo dute Ditzingen herriko 23 ikasle eta bi irakasleek Oñatin. Elkar Hezi ikastetxearekin duten elkartrukeari esker, ikastetxeko jardueratan eta eskolaz kanpokoetan parte hartuko dute. Aste bukaeran, adibidez, Urbian egon ziren. Oñatiko ikasleak maiatzean joango dira Alemaniara.


ELKAR HEZI

## San Martingo etxeen zozketa zerrenda ikusteko azken egunak

Etxebidek bidalitako zerrenda kontsulta daiteke udaletxeko iragarki-taulan, *www.oinati.net* atarian edo Santa Anako beiratean, apirilaren 4ra arte. Tarte horretan zerrendarekiko alegazioak aurkez daitezke. Era berean, epe hori zehaztu dute bi logelako etxeen kupoan sartu ahal izateko izena emateko. Bi logelako sei etxe zozketatuko dituzte.

## Oñatin bizi diren aretxabaletarrek bazkaria egingo dute

Orain dela bi urte egin zuten moduan, Oñatin bizi diren aretxabaletarrak Soraluze jatetxeko mahaiaren bueltan elkartuko dira apirilaren 28an. Interesatuek apirilaren 22a baino lehen Oñati eta Arrano tabernatan, 678 21 59 48 (Rosa) ed0 648 19 10 37 (Miren) telefonoetan eman behar dute izena. Orain dela bi urte 34 aretxabaletar festa giroan elkartu ziren.

## Aloñako igoerarako izena emateko epea zabalik dago

Apirilaren 22an jokatu da Aloñako VIII. igoera, eta dagoeneko izena emateko epea zabalik dago: apirilaren 15era arte eman daiteke, Euskadiko Kutxan 15 euro (mendian federatuak) edo 20 euro (federatu ez direnak). Dortsala hartzeko orduan federatu txartela eta ordainagiria erakutsi beharko dira. Ez dute dirurik itzuliko.

## Pazko Astean hasiko dute udaberriko tenis txapelketa

Pazko Astean, apirilaren 14an hasiko dute udaberriko tenis txapelketa. 16 urtetik gorakoendako txapelketa da, eta interesatuek hiru bide dituzte izena emateko: *www.oinati.net* ataria, *zubikoa@oinati.net* helbidea edo 943 71 63 75 telefonoa.

Lehen fasea ligaxka modura jokatuko dute, eta azken fasea kanporaketa bidez.

## Udalekuetako eta zaintza zerbitzuko matrikula zabalik

Etzi, eguaztena, bukatzen da uztaileko udalekuetan (uztailaren 2tik 27ra) eta zaintza zerbitzuan parte hartzeko izena emateko epea. Neska-mutikoen matrikula (65 euro) Euskadiko Kutxan ordaindu behar da. Zaintza zerbitzurako izena-emateko txartela udalekuetakoarekin batera entregatu beharko da.

ARETXABALETA

# Enpresa ekimen eta kontratazio berriendako laguntzak martxan

Udalak 50.000 euro bideratuko ditu; laguntza bakoitzera 25.000 euro

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udaleko Enplegua eta Garapen Ekonomikoa Sailak bi diru laguntzen deialdia egin du. Batetik, herrian martxan jartzen diren enpresa ekimen berrien sorrerarako diru laguntzak bideratuko ditu. Udalak beti ere, enpresa ekimen berri bakoitzeko emango duen laguntza ez da 7.000 euro baino gehiagokoa izango. Hala ere, martxan jarriko den ekimen berria lehen sektorean (nekazaritzan edo abeltzaintzan) edo hirugarren sektorean (merkataritzan edo turismoan) badago, edo gizarteratze edo laneratze enpresa bat denean, zenbatekoa %10ean igo ahal izango da.

Laguntza horiek lortu ahal izateko, besteak beste, herrian egon beharko dira enpresa horiek erroldatuta, eta 15 langile baino gutxiago izatearekin batera, Bidegarritasun Plana eginda eta Debagoieneko Mankomunitateak, Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomikoa Sailak edo enpresa sorrerara bideratutako beste edozein erakundek lagundutako ekimenak izan beharko dira. Horretaz gainera, gutxienez hiru urtean egoitza Aretxabaletan mantentzeko konpromisoa hartuko dute.

**Lana sustatzeko laguntzak**

Bestalde, Aretxabaletan jarduera duten enpresei, egindako kontratazio berriengatik diru laguntzak ere ematea aurreikusi du Udalak. Horren bidez, herrian lanpostu berrien sorrera eta mantentzea bultzatu nahi du eta zailtasun handienetan dauden herritarren laneratze prozesuan lagundu.

Kontratazio berriengatik ondorengo zenbatekoak jasoko dira: kontratu mugagabeak jardunaldi osoan, 2.000 euro; kontratu mugagabeak jardunaldi partzialarekin, goikoarekin proportzionala; urte beteko kontratuak jardunaldi osoan, 1.000 euro; edo urte beteko kontratuak jardunaldi partzialarekin, goikoarekin proportzionala. Kopurua igoko da denbora luzean langabezian, emakume, 45 urtetik gorako edo ezintasuna duten pertsonak kontratatu ezkero. Enpresa batek gehienez bi kontratazio aurkeztu ahal izango ditu urtean. Horrez gain, enpresa bakoitzeko emango den laguntza ez da 4.000 euro baino gehiagokoa izango.

Deialdiak azaroaren 30era egongo dira zabalik, beti ere diru funtsa agortu bitartean. Aurrekontuari dagokionez, Udalak 25.000 euro bideratuko du deialdi bakoitzera. Horien gaineko informazio gehiago gura dutenek martxoaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkituko dute.



Jaiki elkarteko hainbat kide dantzan iaz ekainean. | MIRARI ALTUBE

## Musika, dantza, antzerki eta margo tailerrak gertatu ditu Jaiki elkarteak

M.B. | ARETXABALETA

Jam Plin Plan proiektuaren harira, bat-bateko sorkuntzari buruzko tailer zikloa antolatu du Jaiki elkarteak. Apirilaren 21ean izango da lehena: Laia Bedosek pintura tailerra emango du; maiatzaren 5ean, Carla Fernandezekin dantza egiteko aukera egongo da; maiatzaren 12an, Jurgi Etxabarriarekin antzerkia egiten jardungo dute parte-hartzaileek; eta ekainaren 2an, musika sortuko dute Aitor Zenarruzabeitiak lagunduta. Tailerrak zapatuetan izango dira, 16:00etatik 19:30era.

Izena emateko 943 53 43 96 telefono zenbakira deitu edo *jaikielkartea@yahoo.es* helbidera idatzi behar da apirilaren 18a baino lehen.



KURTZEBARRI ESKOLA

## Ingelesa praktikatzen Mendaron

Kurtzebarriko 6. mailako neska-mutilak Morga-Meakaurren egon dira atzerriko hizkuntzan murgiltzeko egonaldiaren programan parte hartzen. Egonaldia martxoaren 26tik 30era izan da Mendaroko ikastolako gazteekin batera. Aste osoan askotariko ekintza egin dituzte ingelesean murgildurik. Eguraldia lagun izanik, primeran pasa dute.

# Nafarroako konkista eta Bateragune osoko bilkuran

Garoñako itxieraz eta Espainiako Gobernuaren lan erreformaz ere jardun zuten udalbatzako kideek

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Astelehenko ohiko osoko bilkuran lau mozio eztabaidatu eta onartu zituen udalbatzak –PSE-EEko zinegotzia falta zen–. Batetik, Nafarroako 500. urteurrenaren gainekoa eta hainbat ekitaldi egitea onartu zuten; eta bestetik, sektore publikoaren erreformaren gainekoa, Garoñako zentral nuklearrari buruzkoa eta Bateragune auziari dagokiona.

Aretxabaletako Nafarroa birizik ekimenak 1512-2012 Nafarroaren Konkista Adierazpena aurkeztu zion udalbatzari, eta erakundeei eta herritarrei eta zera eskatu zien: 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimenaren ikurra ikusgai izatea; 2012an, Herriko Plaza aurrean dagoen hagan Nafar bandera ezartzeko onespena ematea ikurrinarekin batera; uztailaren 25ean, Albako Dukearen armada Nafar hiriburuan sartu zen 500. urteurrena izanik, nafar bandera dolu xingolarekin plazako hagan bakarrik jarri ahal izatea (ikurrinik gabe); eta agiri honi zein ekainaren 16ko Euskal Herriko ibilaldi nazionalari atxikitzea.

Bilduk sektore publikoaren erreformara bideratutako neurrien kontrako mozioa aurkeztu zuen "zein baino zein murriztaileagoak direlako". Hala, Espainiako gobernuak iragarritako neurriak errefusatu eta ongizate estatuaren defentsan kontsentsua mantentzea eskatu zuen. Bestalde, Garoña berehala ixteko eskatu zuen mozioa onartuta; eta kontsumoaren gutxitzea eta energia iturri berriztagarrietan oinarritutako energia aurrezpenaren aldeko apustu garbia egiteko.

Azkenik, Bateragune auziaren aurrean zera onartu zuten aho batez: "Udal honek, herritarren gehiengoaren eskaera kontuan hartuz, Bateragune auzian Entzutegi Nazionalak emandako ebazpena bertan behera utzi eta Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto aske uztea".

ESKORIATZA

# Rafa Ruedaren kontzertua eta 'Kataia eten barik', apirileko protagonistak

Atzoko margo lehiaketara aurkeztutako lanak ikus daitezke Ibarraundin

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaleko Kultura Sailak apirileko ekintza gehienak Aste Santuko oporren osterako gertatu baditu ere, atzo, domeka, VI. Margo Lehiaketa Aire Librera aurkeztutako lanak bisita daitezke dagoeneko Ibarraundin. Gaurtik eguaztenera eta apirilaren 10etik 20era arte bisita daiteke hori astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara; Aste Santuan itxita dago museoa.

Apirilaren 13an, ostera, Rafa Rueda musikariak Inkernu taberna bisitatuko du. PILT taldeko partaide izateagatik ezaguna egin zen bizkaitarrak kontzertu akustikoa eskainiko du, 22:30ean. Betiko moduan, debalde izango da musika emanaldi horretarako sarrera. Bestetik, hileko hirugarren domekarekin batera, apirilaren 15ean Herrixa dantzaren saioa egingo dute unibertsitatean.

Bestalde, hilaren 20tik 27ra bitartean *Kataia eten barik* egitaraua egingo dute, *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lelopean.

**Liburutegira hilaren 18raino**

Apirilaren 20rako, Liburu Azoka 2x1 antolatu dute. Liburuak liburutegira eroan behar dira, eta bakoitzaren truke, bi txartel jasoko dituzte parte-hartzaileek azokan liburuak eskuratzeko; apirilaren 18a baino lehen eroan behar dira liburuak herriko liburutegira. Liburu azokarekin batera, umeendako tailerrak ere egingo dituzte hilaren 20an, 18:00etan. Apirilaren 24an, Angel magoaren bisita izango dute zaharren egoitzan; eta hurrengo egunean, ipuinen irakurketa emanaldia egingo dute. Charles Dickensen jaiotzaren II. mendeurrena dela eta, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eginiko irakurraldia izango da hori.

Egitarau horren barruan, apirilaren 27an, jolas tradizionalen jaialdia egiteko asmoa dago plazan; eta hilaren 28an, *Euskararen espektakulue. Zergatik praktikatzen dugu sexua erderaz?* izeneko antzezlana aurkeztuko dute Oihan Vegak eta Aretxabaletako beste hainbat artistek unibertsitatean. Eskaintza zabala dute eskoriatzarrek apirilean.

## OHARRAK

**ARANTXA IREGI ALKATE**

Eskoriatzako alkate Beñat Hercek lehenengo alkateorde Arantxa Iregiren esku utzi ditu epe batez alkatetza legeak agindutako eginbeharrak. Ordezkapena martxoaren 30etik apirilaren 15era artekoa da.

**JOSKINTZA TAILERRA**

Amuskak antolatuta, apirilaren 16tik ekainaren 18ra bitartean joskintza ikastaroa dago. Interesatuek bihar, martitzena, baino lehen diru sarrera egin behar dute honako kontuan: 3035 0044 85 0441021091 (Euskadiko kutxa). Bazkideek 32 euro ordainduko dituzte eta gainerakoek, 47 euro.



Martxoaren 28ko osoko bilkurara bi herritar agertu ziren, udalbatzari eskaera batzuk egiteko asmoz. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

# 'Fracking'-aren eta Bateragune auziaren aurkako mozioak onartu ditu udalbatzak

EAJk, bestalde, Arabako udalei dagozkien opor fiskaletatik jasotako diru kopurua eskatzeko beste mozioa bat aurkeztu zuen; aurrera egin zuen

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Eguaztenean (hilak 28) egindako ohiko osoko bilkuran mozioak izan ziren protagonista. Azken orduan Bilduk aurkeztutakoa kontuan hartuz hiru mozio bozkatu zituen udalbatzak eta guztiak onartu ziren. Lehena, Bildu udal taldeak aurkeztutakoa, gasa lur azpitik ateratzeko *fracking* teknikaren aurkakoa zen.

Hala, Aramaioko udalbatzak Fracking ez Araba plataformak egiten dituen aldarrikapenekin bat egin zuen, hau da, Eusko Jaurlaritzak gasa lortzeko apurketa hidraulikoa ikertzeko abian dauden baimenen etetea eskatu zuten. Duela aste batzuk Mikel Otero plataformako kideak hitzaldia eskaini zuen kultur etxean eta bertan izan ziren herritarrek harridura eta kezka erakutsi zuten gasa lortzeko modu horrek ingurumenean eta osasunean izan ditzakeen ondorioen berri jasotzerakoan. Aho batez onartu zen.

## EAJ, udalei dagokiena eskatzen

Bigarren mozioa EAJk aurkeztu zuen, Arabako Batzar Nagusiek ere onartutakoa: udalei dagozkien eta opor fiskaletatik jasotako kopuruen gainean aritu zen Iñaki Nafarrate. Zinegotzi jeltzalearen arabera, Arabako Diputazioak enpresei emandako "opor fiskalak" moduan izendatutako diru kopurua jaso ostean Arabako udalei ez zaie dagokiena eman. Mozioak aurrera egin zuen, EAJren eta Aramaioko Alkartasunaren aldeko botoekin (3) eta Bilduren abstentzioarekin (5).

Azkenik, Bilduk Bateragune auziaren aurkako mozioa aurkeztu zuen, auzi horretako inputatuak askatzea eskatuz. Aramaio Alkartasuna eta Bilduren aldeko botoekin (7) eta EAJren abstentzioarekin (1) onartu zen.

## Hainbat eskari eta galdera

Eskari eta galderen tarteak luze jo zuen. Osoko bilkurara agertu zen herritarretako batek Azkoaga auzorako errepidean horma batek errepidera erorita "hiru bat aste" daramatzala jakinarazi zuen eta ea noizko konponduko den galdetu zion alkateari. Ramon Ajuriak erantzun zion esanez Diputazioaren errepidea dela eta jakinaren gainean daudela.

Bestalde, EAJk hainbat proposamen egin zituen. Besteak beste, herriko plazarako sarrera autoei irekitzea, euskal foru zuzenbidearen gaineko liburuxka bat ateratzea eta Maider Unda borrokalariari "merezitako" omenaldia egitea.

ANTZUOLA

# Aurtengo Debagoieneko Dantzari Eguna apirilaren 21ean izango da

Ibarreko dantza taldeek euren dantza propioak ekarriko dituzte Antzuolara erakustaldia egiteko

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Urtero ibarreko herri ezberdinetan ospatzen da Dantzari Eguna. Hasieran, zazpi herritan egiten zen jaia; egun, lau herritan egiten da: Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan eta Antzuolan. Azkenengoz, orain dela lau urte egin zuten Antzuolan Debagoieneko Dantzari Eguna. Aurtengo jairako antolakuntza lanak abian direla azaldu digute Oinarin dantza taldeko kideek. "Dantzari eta txistulariak batuta, 150 lagun inguru elkartuko gara Dantzari Egunaz gozatzeko", aurreratu digute, ilusioz. Lore Gazteak, Oñatz, Oinarin eta Lagun Artean taldeen dantzak, besteak beste, ikusgai, hilaren 21ean.

## Egitarau zabala

Talde guztiak 10:30ean batuko dira, eta kalejira egingo dute herriko kaleetan barrena 12:00 aldera. 12:30ean goizeko saioa hasiko da, talde bakoitzak bere dantza erakustaldia eginda. Askotariko dantzekin gozatzeko aukera: ikurrin-dantza, bunako, makil-dantza, txankarranko, arin-arina, fandangoa, agurra, esku-dantza, sueltoa, mistoa...

Eguerdian bazkaria egingo dute eskolako patioan. Arratsaldean bigarren saioari ekingo diote eta, besteak beste, ondorengo dantzak izango dira: ezpata-dantza, brokel-dantza, makildantza eta uztai-dantza.

ELGETA

# Apirilean fadoa, 'clown' inprobisazioak eta antzerkia Espaloian

Atlantikoa belaontziz zeharkatu duen Jesus Guerrak bere abenturaren berri emango du

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Hilaren 19an abiatuko da Espaloiak apirilerako gertatu duen programazioa. Udalak Intxorta 1937 kultur elkartearekin batera antolatutako ekintza bat izango da lehenengoa: Pablo Beldarrainen liburu baten aurkezpena egingo dute frontea jausi zeneko 75. urteurrenean. Egun berean, 19:00etan, itsasgizon baten istorioak izango dira protagonista antzokian; Jesus Guerra tolosarrak Atlantikoa belaontziz zeharkatu zueneko abenturak ekarriko ditu Elgetara.

## Fadoa eta umorea

Musika hitzordu bat dute Espaloian apirilerako: Soraluzeko Ventos de Saudade taldeak fado doinuak ekarriko ditu antzokira hilaren 20an, 22:30ean. Aurretik Elgetan egondako taldea da; Portugalgo musikaren ezaugarri nagusietako bat izango da nagusi.

Antzezlanak, apirilean, bi izango dira: Bergarako Amaia Arriaran kide duen Improvisibles taldeak *clown* inprobisazioak egingo ditu hilaren 26an, eguena, 20:00etan hasita.

Panta Rhei taldea, berriz, familia osoarendako den *Auzokideak* antzezlanarekin etorriko da hilaren 27an, barikua. Txotxongiloen bitartean ezintasunen bat dutenen egunerokoari buruz ariko dira taula gainean.



Panta Rhei taldearen *Auzokideak* antzezlana. | PANTA RHEI

LEINTZ GATZAGA

# Gatz museoa zabalik izango da Aste Santuan

Pazko asteko egunetan hitzordua aurrez egin beharko dute museora doazen bisitariek

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Gatz museoak ez du aterik itxiko Aste Santuan. Eguen Santuan eta Egubakoitz Santuan ere zabalik izango da eta jaiegunetako ordutegia izango dute bisita gidatuek: 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Gatza lortzeko prozesuaren nondik norakoak azalduko dizkiete bisitariei orduan.

Pazko astean, ostera, aurrez egin beharko dute hitzordua bisita gidatuak gura dituztenek. Horretarako, telefonoz deitu (665 73 95 50) edo helbide elektroniko bidez egin eskaera: *labidea1@euskalerria.org*.

Labidea dendak, ostera, ez du ordutegi aldaketarik izango opor egunetan. Jaiegunetako ordutegia izango du Aste Santuko jaiegunetan, eta ohikoa gainerakoetan.

## Mundumiran ate irekiak

Maiatzaren 18tik 20ra bitartean ospatuko den Mundumira jaialdia, ostera, Gatzaga ezagutzera emateko aproposa izango delakoan daude herritarrak: "Honaino sekula iritsi ez direnak pozik utziko ditugula uste dugu, eta Gatzagak dituen altxorrak ezagutzera emateko aukera izango dugu".

Hori horrela, Udalak erabaki du ate irekiak egitea egun horietan gatz museoan; munduko kulturen jaiak iraun bitartean izango ditu museoak zabalik ateak. Horrez gain, bisita gidatuak antolatzeko asmoa ere badaukate, aurrez zehaztutako orduetan. Horiek zelan eta noiz egin pentsatzen dabiltza orain, eta opor ostean zehaztu eta lotuko dituztela kontu guztiak jakinarazi dute.

# APIRILEKO SARIAK

**KAMISETA**

Bidali KLUBA DANBAKA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

DANBAKA



**IPUINAK UMEENTZAT**

Bidali KLUBA IPUINAK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

PAMIELA argitaletxea



**KAMISETA + POLTSA**

Bidali KLUBA SKUN-FUNK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

skunkfunk



**PUZZLEAK UMEENTZAT**

Bidali KLUBA PUZZLEAK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

Ikastolen Elkartea



**Parte hartzeko**

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: *kluba@goiena.com*
SMS bidez.

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

## KOLOORE KAMISETAK ETA IZERDI-JERTSEAK



koloore

*www.koloore.es.*
**ESKAERAK:**
*koloore@koloore.es.*

**Parte hartzeko**

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: *kluba@goiena.com*
SMS bidez: Bidali KLUBA KOLOORE [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

## Atera etekina

goienakluba" 2012

# %2ko deskontua

**AVIA MECA**
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

- **%2ko deskontua**, gasolindegian erregaia erosita.
- **%2ko deskontua**, dendako produktuetan.

## LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAI

**AQUARIUM**
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

**ARGIA**
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

**BEGIONDO**
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21

**EUREKA!**
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78

**ESKO SPORT**
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

**GAHIR**
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41

**GAES**
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55

**GUZTIZ EDER**
edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.

**IKER**
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

**IZENADUBA BASOA**
Euskal Herriko parke mitologikoa
Mungia, 94 674 00 61

**JAIXAK**
denda
Bergara, 943 76 31 45

**LASTAI**
haurtzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

**LILURA**
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71

**MULTIOPTICAS**
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

**NAREN**
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89

**RENAULT AUTOBERRI**
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72

**TXURI URDIN**
izotz jauregia
Donostia,
943 46 44 00

Urteko kuota: **50 €.** | Tel.: **943 25 05 05**
e-posta: *kluba@goiena.com* | *goienakluba.com*

goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!

# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

## Mondrari ezer gutxirako balio dio puntuak; Aloñak gertuago dauka maila mantentzea

Derbiko puntu banaketak ez zituen pozik utzi, ez arrasatearrak eta ezta oñatiarrak ere



Jon Ander Ormaetxea (Mondra) eta Mikel Urkia (Aloña) derbiko une batean. | JULIO CALLEJA

**EMAITZA**

MONDRA
**2-2**
ALOÑA MENDI

**FITXA TEKNIKOA**

**Mondra:** Gartzia, Lopez Rekarte (Urra, 48. min.), Alain, Calzon, Merkader (Peio, 18. min.), Crespo, Gonzalez, Pavon (Zabala, 45. min.), Zaitegi, Aizpurua (Azkarate, 73. min.) eta Ormaetxea (Jon, 82. min.).

**Aloña Mendi:** Idigoras, Mendoza, Endika, Agirre, Palacios (Millas, 85. min.), Bikuña (Lizarra, 82. min.), Ugarte (Xabi, 87. min.), Urkia (Aritz, 61. min.), Moreno (Roberto, 61. min.), Juaristi eta Olalde.

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE

Nork bere helburuak lortzeko, urrezko puntuak zeuden jokoan zapatuko derbian. Mondrak hiru puntuak beharrezkoak zituen sailkapeneko zulotik irteteko (azken-aurrekoa den Rotetak galdu egin zuelako Bergaran), eta Aloñak Ohorezko Erregionalean geratzeko txartela lortzeko. Bi taldeetako kideak ez ziren gustura geratu lortutako puntuarekin. "Irabazteko gogo biziz irten gara, baina ez dugu asmatu. Ni neu oso buru-makur nago", esan zigun bukaeran Mondrako Jon Ander Ormaetxeak.

Puntu banaketaren ondoren, Aloñak gertuago dauka, matematikoki, maila mantentzea, baina Mondrak lehian jarraitu beharko du zulotik irteteko. Puntuak hirunaka irabazi beharko ditu, bestela... Maila mantentzeko lehian dauden Roteta eta Behobiarekiko duen abantaila da, partidu bat gutxiago jokatu duela. Horiek ere, urrezko puntuak izango dira.

**Mondrak, lehen gola**

Puntuek zuten balioaren jakitun gogo handiz irten ziren zelaira Mondrako jokalariak. Baina, gogoa ez da nahikoa partiduak irabazteko, jokatu ere egin behar da; eta alderdi horretan, nahiko hanka motz daude arrasatearrak. Akaso, sailkapenean duten egoerak sortutako urduritasunak ez die jokaldi garbiak egiteko aukerarik ematen.

Zapatuko derbian, lehen gola Mondrak egin zuen 41. minutuan, baina, aurretik, Aloñak lau aukera garbi izan zituen, gehienak, arrasatearren atzeko lerroan egindako hutsengatik.

Unai Bikuñak laugarren minutuan baloia zutoinera bidali zuen. 10.ean, kontraeraso ona egin zuen Aloñak: Bikuña, Juaristi eta Morenoren artean baloia gidatu, eta azken horrek egindako erdiraketa ez zuen inork errematatu.

Aloñak baloia eta lehia menderatuta zituenean, lortu zuen Mondrak lehen gola. Oñatiarren defentsak ezin izan zuen eskuinetik erdiratutako baloia urrundu, eta Jon Ander Ormaetxeak buruz sartu zuen gola.

Kolpe gogorra izan zen Aloñarendako, eta atsedenetik bueltan, kosta egin zitzaien partiduan sartzea.

**1-2koarekin, Mondra larri**

Gutxienez berdinketa lortzeko asmoz aldaketa bikoitza egin zuen Andoni Azkargortak Aloñan: aurreko lerroa indartzeko Idigoras eta Garmendia irten ziren zelaira.

Mondrak lerroak aurreratu zituen, eta oñatiarrek kontraerasoa baliatu zuten lehen gola sartzeko: 71. minutuan berdindu zuen Mikel Palaciosek. Berdinketarekin indarberritu egin zen Aloña, eta 82. minutuan, Roberto Idigorasek, Axier Ugartek ezkerretik egindako jokaldia errematatuz, bigarrena sartu zuen.Gol hark kinka larrian ipini zuen Mondra, eta bihotzarekin buruarekin baino gehiago, aurrera egin zuten. Arriskurik ez zuen jokaldi baten berdinketa lortu zuten: ezkerretik egindako erdiraketa urruntzera gaizki irten zen Aloñako atezaina, eta Jon Del Paláciok binakoa egin zuen, 87. minutuan.

OHOREZKO ERREGIONALA

## UDAk egin zuen jokoa, baina Beriok sartu zituen golak

**EMAITZA**

UDA
**0-2**
BERIO

**M.B.** | ARETXABALETA

Futbolean golak dira puntuak ematen dituztenak. Premisa horren lekuko izan ziren atzo Ibarra futbol zelaian. Aretxabaletak menderatu zuen partidua, baina Beriok egin zituen golak; eta irabazi egin zuten. "Taldea zoriondu beharra daukat. Lan itzela egin dugu, baina futbolean golek agintzen dute, eta ez dugu asmatu", esan zigun Juanan Cruzek partidu bukaeran.

**Zelai erdian akatsa**

Aretxabaletak golak egiteko aukera asko sortu zituen, baina lehena Beriok egin zuen. UDAk baloia galdu zuen zelai erdian, eta kontraerasoa baliatuz aurreratu zen Idiakezen taldea. Aretxabaletarrek berdintzeko aukerak izan zituzten atsedenaren aurretik, baina ez zuten asmatu. Bigarrenean, Berio atzean sartu zen. UDAk berdinketa egiteko gol aukerak sortu arren, donostiarrek egin zuten bigarren gola.


Haritz Igartua Berioren area barruan baloiarekin. | JULIO CALLEJA

SASKIBALOIA | Natra-Oñatik agur esan dio EBA ligari | 24





**JON ANDER ORMAETXEA**
MONDRAKO JOKALARIA

"Gogotsu irten gara zelaira, puntu beharrean gaudelako, baina aurreratu arren, puntu bakarra lortu dugu. 21 puntu daude jokoan oraindik eta lanean jarraituko dugu, baina ni neu, nahiko buru-makur nago".



**ROBERTO IDIGORAS**
ALOÑAKO JOKALARIA

"Mondraren lehen golak min egin digu, baina gai izan gara berdindu eta aurretik ipintzeko. Bagenekien Mondrak puntu beharra zuela, eta kontraerasoak baliatu gura izan ditugu aurrean min egiteko. Puntu bat gehiago daukagu".

OHOREZKO ERREGIONALA

# Rotetari irabazita, matematikoki, Ohorezko Erregionalean geratuko da Bergara

Lander Ugartek sartu zuen mahoneroen gola 15. minutuan

**EMAITZA**

BERGARA
**1-0**
ROTETA

**M.B.** | BERGARA

Bergarak lortu ditu Ohorezko Erregional mailan segitzeko beharrezko puntuak. 41 ditu zapatuan Roteta menderatu ostean, eta lasaiago jokatuko dituzte azken zazpi jardunaldiak. "Helburuak bete ditugu. Orain lasaitu egingo gara, baina ez zaigu komeni gehiegi erlaxatzea. Bestela, oso luzea egingo zaigu denboraldia. Hurrengo urteari begira egin beharko dut lan", esan digu Neka Galanek.



Jokin Baltzategi lurrean, Rotetako hiru jokalarien artean. | JULIO CALLEJA

**Zutoinera eta langara**

Partidua oso ondo hasi zuen Bergarak. Roteta baino gehiago izan zen, eta hiru gol aukera garbi sortu zituen hasieran. Berehala egin zuen gola. Rotetako atezainak penalti egin zion Bergarako aurrelariari, baina epaileak ez zuen ezer adierazi. Urrundutako baloia Lander Ugartek ate barrura sartu zuen. 15. minutua zen. Abantaila handitzeko bi estrategia jokaldi ere izan zituzten atsedenaren aurretik.

Bigarrenean Roteta nahi eta ezin ibili zen. Bergarak bi baloi bidali zituen zutoinera eta bat langara, baina ez zuen gol gehiago egin.

EUSKAL LIGAKO GAZTEAK

## Jaitsieratik ihes egiteko puntuak

Gazte mailako euskal ligan dihardúen Aretxabaletako taldeak jaitsieratik ihes egiteko puntuak lortu zituen Hernaniren kontra: 2-1. Partidu parekatua izan zen, baina etxekoek irabazi zuten. Biak ala biak oso parekatuta daude sailkapenean. Hiru puntuekin, UDAk Hernani atzean utzi du sailkapenean.



JULIO CALLEJA

2. MAILAKO NESKAK

## Sailkapeneko laugarrenaren kontra jokatuko dute Mondrako neskek Eguen Santuan

**M.B.** | ARRASATE

Mondrako neskek Aste Santuko oporrak hartu baino lehenago, bigarren mailako partidua jokatu beharko dute San Juan taldearen kontra: eguenean, 12:00etan, Mojategin.

**"Defentsa sendoa"**

Partidu gogorra izango da, baina Mondrak irabazten badu, maila mantentzeko aurrerapauso handia emango du. "Talde gogorra da: atzean sendo, kontraerasoan jokatzen du. Ez dituzte aukera asko sortzen, baina ondo aprobetxatzen dituzte. Hori horrela, irabazten badugu maila mantentzeko bidean urrats inportantea emango genuke", esan digu Jon Zuloaga entrenatzaileak.

Bigarren mailako txapelketa bukatzeko lau jardunaldi bakarrik falta dira.

ERREGIONAL PREFEREN.

## Azken sailkatuaren kontra irabazi zuen Aretxabaletak

Erregional preferentean dihardúen Aretxabaletak puntu inportanteak irabazi zituen zapatuan, mailako azken sailkatuaren, Intxurreren, etxean: 0-1, irabazi zuen. Garaipenak arnasa hartzeko eta jaitsierako postuetatik ihes egiteko bidea ematen die aretxabaletarrei. Lau final geratzen zaizkie; hurrengoa, Ibarran, Soraluzeren kontra.

ERREGIONAL PREFEREN.

## Antzuolak ez zuen punturik lortu Eibarren jokatutako partiduan

Antzuolak 1-0 galdu zuen Eibartarrak taldearen kontrako lehia. Juanina Garairen taldeak aukera ezin hobea zuen bigarren partidua jarraian irabazteko, baina ezin izan zuten golik sartu. Antzuolarrak zazpigarren daude 40 punturekin. Eibarren irabazita aukera zuten sailkapeneko goiko lekuetara salto egiteko. Hurrengo partiduan Getariaren bisita izango dute.

EMAKUMEAK IGOERA

## Arizmendiko neskek ezin izan zioten golik sartu Arrobi Berriri

Arizmendiko neskek igoera fasea jokatzen dihardute, eta aste bukaeran ezin izan dute golik sartu Arrobi Berri taldearen kontra: 0-0. Biek ala biek partidu parekatua jokatu zuten, eta aukerak sortu arren, ez ziren golak sartzeko gai izan. Arizmendiri lau partidu geratzen zaizkio igoera fasea bukatzeko, eta bosgarren dago 14 punturekin.



Natra-Oñati taldeko jokalariak harmailetan zeuden neska-mutikoez inguratuta. | MIREIA BIKUÑA

EBA LIGA

# "EBAko talde txarrena izan gara, baina zalego onena izan dugu; eskerrik asko"

## Natra-Oñatiko jokalariek saskibaloiko zaleak omendu zituzten zapatuan

**EMAITZA**

NATRA-OÑATI
**97-101**
ZORNOTZA

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Natra-Oñatik EBA ligako bidea iazko maiatzean hasitako moduan bukatu du: zaleei eskerrak emanez. "Eskerrik asko, onenak zarete" zioen pankarta ipini zuten. "EBAko talde txarrena izan gara, baina zalego onena izan dugu. Eskerrik asko", esan zuen Iñigo Zabaleta kapitainak.

Agur eguna izan zen. Aloña Mendi saskibaloi sailak izan duen talde onenaren agurra. Aro baten agurra. Harmailak lepo bete ziren Xabi Igartuaren taldea animatzeko eta omentzeko. Omenaldi xumea izan zen. Aloñako jokalariak banaka-banaka irten ziren kantxara, zaleen eta Zornotzako jokalarien txalo artean. Malkoak ikusi genituen jokalari askoren aurpegietan: pozik eta triste.



Ander Gartzia jaurtiketa egiten Zornotzako defentsaren aurrean. | JULIO CALLEJA

**Luzapenean ere ez**

Partidua gutxienekoa izan zen, baina etxeko jokalariek ahalegin berezia egin zuten irabazteko. Bizkaitarrek agindu zuten lehen zatian, baina atsedenaren ondoren, Igartuaren taldeak erasoa hobetu zuen, eta markagailuan aurretik ipini zen. Azken minututan berdinketa izan zen nagusi, eta bost minutuko luzapena jokatu behar izan zuten arauzko 40 minutuak 84nako berdinketarekin bukatu ostean. Zornotzak hobeto aprobetxatu zituen luzapeneko jaurtiketak. Aloñak bigarren luzapen bat behartzeko jaurtiketa izan zuen, baina ez zuen asmatu.



**IAGOBA GAMARRA**
JOKALARIA

"Sentsazio ezberdinak ditut: pozik nago, zaleen erantzunarekin; baina, triste, lau urteko etapa bete dugulako. Urte oso onak izan dira. Eskasena, azkena: ez dugulako helburua bete. Zer egingo dudan? 26 urte daramat saskibaloian eta akaso, erretiroa hartzeko ordua da".



**IÑIGO ZABALETA**
JOKALARIA

"Talde honekin azken partidua jokatu dut, eta arraro sentitzen naiz. Jokalari askok euren bidea egingo dute, baina pozik nago, lau urteko masterra izan delako. Asko ikasteko aukera izan dut. Kanpotik etorri diren jokalariek asko aberastu dute taldea eta jokalariak".



**GORKA KINTANA**
JOKALARIA

"Helburua EBAn mantentzea zen, eta ez dugu lortu. Baina ni zaleengatik pozten naiz: eurek eman digutena, guk emandakoa baino askoz gehiago izan da. Aurrerantzean zer? Ba nire asmoa jokatzen segitzea da. Ez dakit non, baina jokatzeko asmoa daukat".



**ENEKO BLANCO**
JOKALARIA

"Lau urte bikain izan dira, eta maila galdu dugun moduan galtzeak pena ematen du. Baina saskibaloiari eman diogun bultzada ikaragarria izan da, eta sailkapeneko zuloan egon arren, hamabost egunero, Zubikoako harmailak bete egin ditugu".



**XABI IGARTUA**
ENTRENATZAILEA

"Lau urteko bazkari goxoa izan da, baina postreak huts egin digu. Partidu askotan lehiakorrak izan gara, baina batzuk, ezin izan ditugu irabazi. Orain atseden hartuko dut. Azken bi urteak gogorrak izan dira: lana eta entrenamenduak tartekatzea oso zaila egin zait".

LEHEN NAZIONALA

# Mondragon Unibertsitateak mailari eusteko beste pauso bat eman zuen

## Hirugarren lekuan dago, eta horrek maila mantentzeko balioko lioke

**EMAITZA**

MU
**92-66**
SAN INAZIO

**M.B.** | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak Lehen Nazional mailan mantentzeko beste urrats bat eman zuen San Inaziori irabazita. Hori gutxi balitz, EBA ligan dihardüen EHU Araba taldeak ere irabazi egin zuen, eta EBAn geratuko da. Hori horrela, Lehen Nazional mailako jaitsiera fasea hirugarren tokian bukatzen duen taldeak, maila mantenduko du. MU hirugarren tokian dago zapatuan irabazi ostean, eta toki horri eutsi beharko dio Lehen Nazionalean geratzeko. Hurrengo jardunaldian La Salleren etxean izango du beste pauso bat emateko aukera.



MUko jokalaria saskiratzea egiteko gertu. | JULIO CALLEJA

EUSKADIKO TXAPELKETA

# Bergararrek joko txarra egin arren, irabazi egin zuten norgehiagoka

Muniategiren mutilek mailari eustea lortu dute, azkenaldian larri ibili arren

**EMAITZA**

SORALUCE BKE
**34-30**
CORAZONISTAS

**IRATI GOITIA** | BERGARA

Denboraldi hasieran jarritako helburua beteta bukatu du Soraluce BKEk liga: mailari eustea. "Puntu beharrean geunden eta azken partidua izanda, emaitza zen garrantzitsuena. Gaizki jokatu dugun arren, lortu dugu irabaztea. Oso urduri jokatu dugu" adierazi zigun Josetxo Muniategi entrenatzaileak amaieran.



Soraluce BKE-ko jokalaria gola sartu nahian, hala-nola. | JULIO CALLEJA

**Joko gutxiko partidua**

Lehia oso parekatu izan zen zapatu arratsaldean Labegaraietan jokatu zena. Lehen zatia hobea izan zen, jokaldi luzeekin eta taldeko jokoarekin. Hasieratik hasi ziren irabazten bergararrak, baina, indarrak oso berdinduta izan ziren eta gol bateko aldea lortu zuten asko jota. Lehen zatia bukatzeko minutu bat falta zenean, Muniategi entrenatzaileak hutsartea eskatu zuen, izan ere, azken erasoa eurena zen eta gola sartzea oso garrantzitsua zen atsedenaldira lasaiago joateko. Eta baita sartu ere. Hala, bi puntuko aldeaz amaitu zen lehen zatia (18-16).

Bigarren zatian, aurkaria etxekoen jokoa apurtzera irten zen eta Muniategiren mutilek ez zuten horri aurre egiten jakin. Joko trabatua izan zen nagusi. Lehia amaitzeko hamar minutu gelditzen zirenean, defentsa aurreratua egitea erabaki zuen aurkariak eta orduan jokatu zuten hobeto bergararrek; lehiako alde handiena atera arte, lau puntu (34-30).

EMAKUM. PREFERENTE

## Aloña Mendiko neskek galdu, Egia Bera Beraren aurka (16-21)

Egubakoitz arratsaldean jokatu zuten Aloña Mendiko neskek Egia Bera Beraren aurka. Talde indartsua hartu zuten etxean eta ezin izan zuten irabazi. Udaberri Kopa prestatzeko egin duten txapelketako azken lehia izan zen. Orain, goi mailako taldeen aurka arituko dira Kopan.

LEHEN TERRITORIALA

## Izarraitz taberna Aloña Mendik ezin izan zuen Tolosa mendean hartu

Gipuzkoako lurraldeko txapelketako Izarraitz taberna Aloña Mendi taldeak zapatuan hartu zuen sailkapeneko bosgarrena etxean, Tolosa. Oñatiarrek ez zuten kanpotarrei aurre egiten jakin eta ezin izan zuten irabazi. Amaieran, zortzi goleko aldea adierazten zuen markagailuak (32-40).



JULIO CALLEJA

EUSKADIKO TXAPELKETA

## Estu eta larri irabazi, Ford Mugarrik

Sailkapeneko azkena hartu zuen atzo etxean Ford Mugarrik, baina putz galantak bota zituzten etxeko jokalariek Deustuko Unibertsitateari irabazteko. Arrasatearrak ez ziren fin ibili; defentsan huts asko eta erasoan makal. Hala, bigarren zati ia osoan aurretik joan ziren kanpotarrak, baina Herreroren mutilek jakin zuten lehiari buelta ematen eta amaieran 32 eta 30 irakur zitekeen markagailuan.



Ford gama. Kontsumo mistoa: 3,3–10,3 (l/100km). CO2 isurtzea: 87–244 (g/km). 5.000 euroko deskontua Ford gamako 5.000 autotan (Urban bertsioak eta Ka modeloak izan ezik). Honakoa hartzen du barne: promozio-deskontuak, kontzesionarioaren ekarpena eta deskontua Ford Creditek duen Vente a Ford Credit kanpainaren bitartez finantzatuz gero (10 urte baino gehiago dituen auto bat edo ibilgailuak desegiteko tokira bideratua dagoen auto bat utzita)

Ford
Go Further
ford.es

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE


Iazko lasterketan, korrikalariak Urtiagainen gora. | JOSETXO ARANTZABAL

MENDI-LASTERKETA

# Eman daiteke izena Aloñako VIII. Igoeran parte hartzeko

## Mendi–lasterketa apirilaren 22an egingo da; korrika zein parapentean arituko dira lasterkariak

**IRATI GOITIA** | OÑATI

Dagoeneko eman daiteke izena Aloñako VIII. Igoerarako. Apirilaren 22ra arteko epea dago horretarako eta *www.aloina.net* orrialdean egin daiteke edo Oñatiko Turismo bulegora joanda. Izena emateko ezinbestekoa da 18 urtetik gora izatea. Ordaindu beharreko kuota 20 euro da eta gehienez 300 partehartzaile izango dira.

Dortsalak lasterketaren egunean bertan banatuko dituzte Oñatiko plazan 8:30etatik 10:00etara bitartean. Ordu-erdi beranduago hasiko da lasterketa -10:30ean- Foru Enparantzatik bertatik. Helmuga leku berean kokatuko da; 13:30etan itxiko da kontrola.

**Lasterketaren ezaugarriak**

Hamabost kilometro eta erdiko lasterketa gogorra da Aloñakoa. Euskal Autonomi Erkidegoko froga gogorrenetarikoa dela esan ohi da, zortzi kilometrotan 1000 metro igo behar direlako. Guztira 2200 metroko desnibela du lasterketak eta Aloñako punta da punturik gorenena -1238 metro-.

**Korrika edo parapentean**

Aloñakoa Para-Mendi froga ere bada, eta, hala, korrikalariez gain, parapente pilotuek ere hartuko dute parte.

Egingo duten ibilbidea, baina, ez da bera izango. Froga korriketan egingo dutenek Oñatiko plazatik ekingo diote lasterketari eta Urtiagaindik pasa ostean, Aloñako gainera igo beharko dute. Behin gailurrean dagoen gurutzeari bira eman ostean, jaitsierari ekingo diote berriz ere plazara iritsi arte. Gorako eta beherako bidea, ordea, ez da berdina izango.

Froga parapentean egingo dutenek, bestalde, Urtiagainen ekingo diote lasterketari eta gailurreraino dauden 3,5 kilometroak korrika igo beharko dituzte; 750 metroko desnibela gainditu beharko dute. Hegoaldeko haizea badago, gailurretik bertatik egingo dute salto. Iparraldekoa bada, berriz, Belarreraino jaitsi eta bertatik aireratuko dira. Lur -hartzea Berezao auzoan izango da. Handik korrika joan beharko dute Oñatiko plazan egongo den helmugaraino.

Mendi-Parapente lasterketan parte-hartu nahi dutenak Debagoieneko Amillena Aire Kirol Taldearekin jarri behar dira harremanetan honako helbidearen bitartez: *amillenahegan@gmail.com*.

Amillenatik adierazi dute lasterketa antolatzearen helburua dela parapentea promozionatzea eta ezagutzera ematea.

TXIRRINDULARITZA

# Gaur hasiko da Gueñesen Euskal Herriko Itzulia eta zapatuan bukatu da Oñatin

**I.G.** | DEBAGOIENA

Gaur hasiko da Euskal Herriko Itzuliaren 52. edizioa Gueñesen (Bizkaia), 13:20ean. Txirrindulariek 153 kilometro egin beharko dituzte lehen egunean.

**Maldan gora**

Bi etapa dira maldan goran bukatuko direnak: Arraten bukatuko den hirugarrena eta helmuga Ibardinen izango duen laugarrena.

**Itzulia gurean**

Gure bailaratik ere pasako da Euskal Herriko Itzulia. Garagartzatik Arrasatera sartuko da hirugarren etapan. Azken bietan, baina, Oñatik izango du protagonismoa, bertan bukatuko baitira biak.


JULIO CALLEJA

ERRUGBIA

# Lo irtenez gero, ezin irabazi

Kanpanzar–Arrasatek galdu egin zuen zapatuan Construcciones Rivago Santander taldearen aurka. Lokartuta irten ziren etxekoak eta lehen zatian ez zuten talde jokorik egin. Bi plakajetan huts egin zuten eta kanpotarrak bi entseguko abantailarekin joan ziren atsedenaldira. Bigarren zatirako iratzarri ziren Isasiren mutilak, baina dagoeneko berandu zen; 20 eta 40 galdu zuten.

## FUTBOLA

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Oiartzun-Beti Gazte | 3-1 |
| Elgoibar-Behobia | 1-0 |
| **Bergara**-Roteta | 1-0 |
| Hondarribia-Aurrera | 0-2 |
| Trintxerpe-Pasaia | 2-1 |
| **Mondra-Aloña Mendi** | 2-2 |
| Urola-Anaitasuna | 0-1 |
| **Aretxabaleta**-Berio | 0-2 |
| Tolosa-Real Union | 2-1 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Anaitasuna | 58 | 28 |
| 2 | Pasaia | 51 | 27 |
| 3 | Tolosa | 51 | 27 |
| 4 | Real Union | 48 | 28 |
| 5 | Oiartzun | 48 | 27 |
| 6 | Berio | 45 | 28 |
| 7 | Aretxabaleta | 43 | 27 |
| 8 | Beti Gazte | 42 | 27 |
| 9 | **Bergara** | 41 | 27 |
| 10 | **Aloña Mendi** | 35 | 27 |
| 11 | Aurrera | 35 | 28 |
| 12 | Trintxerpe | 34 | 27 |
| 13 | Urola | 32 | 27 |
| 14 | Hondarribia | 29 | 27 |
| 15 | Elgoibar | 26 | 28 |
| 16 | Behobia | 26 | 28 |
| 17 | **Mondra** | 21 | 27 |
| 18 | Roteta | 20 | 28 |

**HURRENGO JARDUNALDIA**

Behobia-Oiartzun
Roteta-Elgoibar
Aurrera-**Bergara**
Pasaia-Hondarribia
**Aloña Mendi**-Trintxerpe
Anaitasuna-**Mondra**
Berio-Urola
Real Union-**Aretxabaleta**
Beti Gazte-Tolosa

**EMAKUMEZKOEN BIGARREN MAILA**

| | |
|---|---|
| Mondra-San Juan | Eguena |

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

| | |
|---|---|
| Intxurre-Aretxabaleta B | 0-1 |
| Eibartarrak-Antzuola | 1-0 |

**1. ERREGIONALA, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Mondra B-Allerru | 3-0 |

**1. ERREGIONALA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Ontzerri-Aretxabaleta C | 5-0 |

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Ostadar-Bergara | 0-5 |
| Lagun Onak-Aloña Mendi | 1-1 |

**OHOREZKO GAZTEAK, JEITSIERA**

| | |
|---|---|
| Mariño-Mondra | 3-5 |

**GAZTEAK LEHENENGO MAILA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Eibartarrak-Aloña Mendi | 2-0 |
| Arizmendi-Eibartarrak B | 0-1 |

**KADETE OHOREZKO MAILA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Aretxabaleta | 1-1 |
| Bergara-Orioko | 2-0 |

**KADETEEN LEHENENGO MAILA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Real Union-Arrasate | 1-1 |

**EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Arizmendi-Arrobi Berri | 0-0 |

## ESKUBALOIA

**EUSKADIKO TXAPEL. GIZON.**

| | |
|---|---|
| Soraluce BKE-Corazonistas | 34-30 |
| Ford Mugarri-Deustuko Uniber. | 32-30 |

**LURRALDE TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Tolosa | 32-40 |

**2. LURRALDEKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Talleres Onda-Arrasate | 21-28 |

**FORU ALDUNDIKO SARIA.**

| | |
|---|---|
| La Salle Saieko-Soraluce BKE | 53-36 |

## SASKIBALOIA

**EBA MAILA**

| | |
|---|---|
| Natra Oñati-Zornotza | 97-101 |

**LEHEN NAZIONAL MAILA**

| | |
|---|---|
| MU-San Inazio | 92-66 |

**SENIOR GIZONEZKOAK**

| | |
|---|---|
| MU-Allerru | 80-65 |
| Leihoak Zast-Soraluce BKE | 59-64 |

**SENIOR. BIGARREN MAILA**

| | |
|---|---|
| Errotaundi-Aloña Mendi | 52-47 |

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Easo Alde Zaharra-Eskoriatza | 47-41 |

GU
RE
KI
RO
LA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

TRIATLOIA

**Ander Agirre** | Antxintxika Triatloi Taldeko atleta

# "Gaztetan profesional izatearekin amesten genuen, baina orain..."

- Bergarako kirolaria duatloi denboraldi aparta egiten dabil
- Denboraldi hasieran Basaurin irabazi ostean hainbat podium egin ditu

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Ander Agirre (Bergara, 1981) duatloi denboraldi aparta egiten dabil. Ez da sorpresa, azken urteotan aurrealdeko postuetan ibili delako, baina ez garaipenak eskuratzen. Afizionatu mailako txirrindularia izandakoa –besteak beste Irizarrekin eta Velascorekin ibili zen–, ziklismoa utzi eta bi urte lehiatu barik egon ostean dortsala janzteko arra sartu zitzaionetik geratu barik dabil.

**Batzuei gertatzen zaie txirrindularitza utzi eta lehiarako gogoa galtzea. Ez hori bakarrik, baita kirola egiteko gogoa joatea ere.**

Nire ustez horiek ez dira kirolzaleak, ez dute kirola gustuko edo oso erreta amaitu zuten. Esan nahi dudana da lasterketetan ibili ostean normala dela nekatuta egotea, baina kirola gustuko duena denbora gutxira hasiko da mendira joaten, mendiko bizikletan buelta bat ematen... Zerbait egiten.

**Zuk, ordea, lasterketetan jarraitzen duzu.**

Bai, edozer gauzarekin *pikatzen* den horietakoa naizelako. Bizikleta utzi eta bi urtez egon nintzen nire kasa kirol apur bat egiten, triatloi taldearen inguruan herrian giro polita zegoela ikusi nuen arte; hala *engantxatu* nintzen.

**Eta aurten zer egin duzu bereziki horren ondo ibiltzeko?**

Ez dut apartekorik egin. Esan nahi dudana da urte osoan egiten dudala kirola, eta noski, entrenatzen ibili garen arren ez da oso negu aproposa izan. Egia da beste urte batzuetan maila oso altua egon dela, eta akaso aurten apur bat behera egin duela.

**Imajinatzen dut afizionatu mailan gauza asko utzi behar izan zenituela lasterketengatik. Eta orain?**

Orain ez. Gaztetan profesional izatearekin amesten genuen, baina ez genuen halakorik lortu, eta orain garbi daukat kirolari amateurrak garela, *globeroak* (barre). Garbi dago aurrean ibiltzeko entrenatu egin behar dela, eta esaterako, Aste Santuak gogor entrenatzeko aprobetxatuko ditut. Baina, ez ditut beste kontu batzuk alde batera uzten.

**Euskal Herriko selekzioko hautatzaileak ere ohartu dira egiten ari zaren lanaz.**

Bai, Burgosen egin zuten lasterketarako deitu ninduten, baina zapatuetan tarteka lan egitea ere tokatzen zaigu, eta ezin izan nuen joan. Cadizen-edo izan bazen lasterketa hori, bada, seguruenik ez nintzateke animatuko, baina Burgosen izanda, etxetik gertu, gustura joango nintzateke. Gainera, selekzioan oso giro ona egoten da.

**Antxintxika Triatloi Taldeko kide izanda, eskertuko da presio eta bestelakorik gabe ibili ahal izatea, ala?**

Lehen aipatu moduan, gaur egun ez gabiltza honetan profesionaletara iristeko. Hau da, taldeak helburu batzuk ezartzea, ze lasterketetara joan behar duzun esatea... Niri ez litzaidake gustatuko. Bailarako taldean gaude, giro oso ona dugu eta lagunartean ibiltzen gara.

**Duatloi denboraldia aurrera doa, eta laster hasiko dituzue triatloiak. Gogoz?**

Egia esanda igeri egitea da gutxien atsegin dudana, eta gainera, modalitate horretan ez naiz oso ondo moldatzen. Aspergarria egiten zait igeri egitea, eskerrak igerilekuan mp3a jarri eta musikarekin eramangarriagoa dela, baina hala ere... Baina, triatloiek ez dute duatloiekin zerikusirik, askoz bereziagoak dira eta giro hobea egoten da. Gogoz nago triatloi denboraldia hasteko.

**Gaztetan bizikletan lehiatu arren, korrikako saioetan oso ondo moldatzen zara. Esaten duzunez, igeri ez horren ondo...**

Afizionatuen mailan lehiatzen ginenean negu parteko entrenamenduetan korrika mordoa egiten genuen, eta baliteke horrek laguntzea. Noski, duatloietan hasi nintzenean hanketatik dezente sufritzen nuen, orkatilak, belauneko mina... Baina, gorputza ohitzen joaten da, eta min horiek guztiak desagertu egin ziren. Diogun moduan, 20 urterekin korrika dabilena akaso 60 urterekin ezinean ibiliko da, baina 20 urterekin bizikletan dabilena 60 urterekin ere ibili ahal izango da.

**Aste Santurako planik?**

Hemen geratuko naiz entrenatzen, triatloiak segituan datoz-eta!

**"Antxintxika bailarako taldea da, lagun koadrila, eta giro ona dugu"**




Ander Agirre, Oñatiko duatloian bigarren helmugaratzen. | JULIO CALLEJA



Korrikako saioan, aurrealdeko postuetan. | J.A.



Amaieran, taldekideekin berbetan. | J.A.

## Bilboko triatloia helburu

Maiatzaren 19an egingo dute distantzia luzeko Bilboko triatloia, eta Agirrek lasterketa hori du begiz jota: "Badakit ez dela niri ondoen datorkidan distantziako proba, eta maila oso oneko kirolariak egongo direla, baina ahal duguna egitera joango gara". Bergarakoak proba hori du begiz jota, baina triatloi denboraldi osoa egiteko asmoa dauka: "Atsegin dut zapatuetan lasterketak izatea, ahal badut proba guztiak egingo ditut".

HEZIKETA

# Gaur egungo eskola jazarpen kasuetan teknologia berrien presentzia handituz doa

## 12-17 urteko nerabeen %44k ikaskideren bat inoiz jazarri izana aitortu dute

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Hezkuntza Sailak emandako datuen arabera, 2010ean 90 jazarpen-susmo izan ziren EAEko ikastetxeetan; horietatik 33 frogatuta gelditu ziren. Gainera, jazarpen bide berriak sortu direla antzeman da; mugikorren edo Internet bidez egindako jazarpenak, hain justu ere.

Deustuko Unibertsitateak egindako ikerketa batek jasotzen du Bigarren Hezkuntzan dauden 12-17 urte bitarteko gazteen %44k onartzen dutela inoiz kideren bat jazarri izana, eta %30,1ek dio inoiz ziber-agresio baten biktima izan dela.



Nerabea mugikorretik mezuak trukatzen. | ELIACIM LOPES

### Ziber-erasoak

Asko dira Internet bidez egiten diren erasoak: zurrumurru edo komentario kaltegarriak zabaltzea, lotura horiek lagunen artean zabaltzea, kideren bat kontzienteki *on line* talde batetik baztertzea, ikaskideren baten identitatea usurpatu eta haren izenean mezuak zabaltzea, MSN kontuko pasahitza aldatu eta haren izenean mezu iraingarriak zabaltzea... Baita ikaskide bat egoera barregarrian grabatu eta sare sozialen bidez zabaltzea ere.

### Biktimak

Beste ikerketa batek erakutsi du neskek eraso gehiago jasaten dituztela, eta, gehienbat, Bigarren Hezkuntzako 2. eta 3. mailetan izaten direla. Atzerapenarekin, baina martxan da Eskola Bizikidetzaren Behatokia.

# Arrasaten ere Gurasolagun egitasmoa martxan jartzeko ahaleginean

## Dei berezia egiten diete guraso euskaldun berriei; apirilaren 4rako eman behar dute izena

L.Z. | ARRASATE

Arrasateko AED eta Txatxilipurdi elkarteek elkarlanean bultzatutako egitasmoa da. Helburua da guraso euskaldun berrien eta euskaldun zaharren artean euskarazko mintzapraktika saioak aurrera eramatea. Hau da, guraso euskaldun berriei euren mintzaira mailan sakontzeko aukera ematea eta, bide batez, Arrasaten euskara bizitzeko, praktikatzeko, hobetzeko eta berreskuratzeko aukera ematea. "Proiektuaren plangintza, egutegia, helburuak... parte hartzen duen guraso bakoitzarekin zehazteko asmoa daukagu, azken finean eurak izango baitira egitasmo honen ardatz", adierazi dute bultzatzaileek. "Parte-hartzaileen esku egongo da kafe baten bueltan, ibilalditxo baten aitzakiaz, parkean jolastuz edo zein maiztasunez elkartuko diren eta beraien ibilbidean ze helburu edo ze asmo dituzten zehaztea".

### Izen-ematea zabalik

Parte hartu nahi duten gurasoek apirilaren 4a baino lehen eman behar dute izena *gurasoak@txatxilipurdi.com* edo *zaharberri@aedelkartea.com* helbideetara datuak bidaliz —izen-abizenak, auzoa, telefono zenbakia, umearen adina, eta helbide elektronikoa—. Ludoteketan edo AED elkartean ere eman daiteke izena.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera** guraso.com

ARIZMENDI IKASTOLAKO LANBIDE HEZIKETA

# Tailerrak jasangarritasunari buruz



**Gartzen Undagoitia**
Eraikuntzako ingeniaria

Energia berriztagarrien erabilera gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da gure artean; hala ere, zoritxarrez, gizartearen zati handi bat ez da jabetzen zer-nolako arduragabekeriaz darabilgun energia kontsumoa. Azkenaldian, Estatu mailan egiten diren mintegietan, parte-hartzaileak bat datoz energia-hazkuntza jasanezinaren auzian. Energia eta eraikuntzako profesionalek zein mundu erdiko gobernu eta legegileek argi dute gas naturala, ikatza eta petrolioaren garaia bukatzen ari dela; horregatik, azken boladan denak ari dira buru-belarri panorama berri horren bueltan.

Urte gutxiren barruan eraldaketa handia datorkigu energiaren sektorean, eta aukera ezin hobea izango da energiaren demokratizaziorako eta herritarren artean kontzientzia eta, batez ere, ezagutzak zabaltzeko. Baliabideak agortzen ditugun bitartean eta planetak xurgatu dezakeena baino kutsadura handiagoa sortzen dugun bitartean, ekologismoa ez da ideologia edo pentsamolde hutsa, ezinbesteko beharrizan bat baizik.

Egia da aspalditik hasiak garela kontzientziatzen, baina proposamen konkreturik ez daukagu. Nork daki eguzki plaka baten beharrezko dimentsioak kalkulatzen? Edo biomasa galdara baten amortizaziorako beharrezkoa dugun denbora? Erabiltzaileok ezer gutxi dakigu ditugun hamaika aukeren gainean, eta kasu gehienetan irtenbide erraza bilatzen dugu, energia garesti eta kutsakorrak eskura jartzen baitizkigute.

### Tailerrak ekainean

Arizmendi Ikastolan *Zuk zeuk sortu* lemarekin ekainean hasiko diren tailer laburren bitartez, energia iturri garbiak ezagutzeko aukera konkretuak eskainiko dituzte, izan ere, dauzkagun energia iturri jasangarriek ehunka aplikazio dituzte, eta ekonomikoki oso bideragarriak dira.

Tailerretan energia eta jasangarritasunaren funtsezko kultura ere ikusiko da, ikuspuntu globala izatea beharrezkoa baita ekintza konkretuak martxan jartzeko. Tailer bakoitzean askotariko gailuen osagaiak, funtzionamendua, dimentsionatze kalkuluak, beharrezko inbertsioa eta hainbat teoriaz gain adibide praktikoak erakutsiko zaizkie benetako instalakuntza baten parte hartzeko aukera emanez.

Helburua izango da ikaslea gai izatea tailerrean ikusitakoa bere kabuz eguneroko bizitzan integratzeko edo profesional batengana proiektu zehatz batekin joateko. Herritarra teknologia berri horiekin harremanetan jarriz gero, enpresen eskaintza ez ezik erabiltzailearen aldetik ere eskaera sortzen da. Erabiltzaileak aukera izango du energia garbi eta merkea exijitzeko.



Etxola jasangarri baten eraikuntzan. | ARIZMENDI IKASTOLA

### Energia iturri garbiagoak badaudelako

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak energia berriztagarriak herritarrengana hurbiltzeko hainbat tailer jarriko ditu martxan ekainean. Tailer irekiak izango dira, eta interesa duen edozeinek parte hartu ahal izango du. *Zuk zeuk sortu* lemapean, energia fotovoltaikoaren inguruan tailer bi prestatu dituzte: *Furgoneta fotovoltaikoa*, eta *Etxola jasangarria*. Ekimen horrekin biztanleriari gero eta garestiagoak diren energia iturri kutsakorren aurrean hautabide jasankorrak jarri nahi dizkiete eskura, energia garbiak eguneroko bizitzara txertatzeko aukerak emanez.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera** Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK

# KULTURA

# Lete ez zen bakarrik egon Amaian

## Entzuleak ere bete betean sartu ziren Sortuko dira besteak emanaldian



Mikel Urdangarin, Pier Paul Berzaitz, Arantxa Irazusta eta Petti elkarrekin kantuan; Elorrietak, Arzallusek eta Sarduik ere hartu zuten parte. | JULIO CALLEJA

**OIHANA ELORTZA** | ARRASATE

Xabier Lete ez zen bakarrik egon Amaia antzokian, ez horixe. Zazpi abeslari, sei musikari, 600 entzule baino gehiago eta Laboa, Imanol, Sarrionandia edo Urepeleko artzainaren konpainia ere izan zuen.

Leterena berarena da "sortuko dira besteak" esana, eta horren adibide izan zen, duda barik, zapatuan Arrasateko Amaia antzokian egindako emanaldia. Estilo, belaunaldi eta herri ezberdinetako zazpi musikarik, zazpi artistak, argi utzi zuten Xabier Letek eurengan ere utzi duela arrastoa, edo pisua.

### Bi ordu t'erdi ere motz

Pier Paul Berzaitzek hasi zuen emanaldia eta haren segidan etorri ziren banaka, Arantxa Irazusta, Mikel Urdangarin, Petti, Eñaut Elorrieta, Amets Arzallus eta Alex Sardui. 30 pieza jo zituzten guztira. Bi ordu t'erdiko emanaldia eskaini zuten, bukaeran Arrasateri eskerrak emateko Arzallusek bota zuen bertsoa barne. Eta bi ordu t'erdi horietan emanaldian sartuta egon ziren antzokira joandakoak. Tarteka txaloka eta askotan kantuan.

Emanaldiaren lehen zatian banaka abestu zuten artistek, baina bigarren zatian binaka, launaka eta denak batera ere kantatu zituzten abestiak. Hain zuzen ere Leteren zortzi kantu ezberdinen zatiez osatutako poupurria abestu zuten Urdangarinek, Irazustak, Berzaitzek eta Pettik elkarrekin. *Nafarroa arragoa* kantuarekin hasi eta *Itsasoan urak handi* abestiarekin bukatu zuten, tartean *Berriz itzuliko banitz* habanera ere kantatu zuten. Ez bakarrik, noski, ia Amaia antzokia bete zuten entzuleekin batera baizik.

### Laboa, Imanol eta beste

Xabier Leteren poema ez hain ezagunak ere kantatu zituzten, baina ezagunak ere asko eta asko, eta entzuleak ezin ba abestu barik egon, tentazioa horren zen handia!

Berdin pasatu zen Alex Sarduik *San Simon eta San Juda* kantatu zuenean ere, Eskixu edo Gatiburekin kantatzen duen keinu eta mugimendu berdinekin. Horren segidan kantatu zuen, tonu serioagoan, Letek 1977an idatzi zuen *Presoaren eskutitza*.

Amets Arzallusen *Zergatik garen berebereak euskaldunok* eta *Mugari jarritako bertsoak*, eta Pettik indartsu abestu zuen *Amsterdam* abestia maila berean jarraitu zuten entzuleek. Mikel Urdangarinek Imanolen *Mendian gora* kantua aukeratu zuen eta Eñatu Elorrietak, berriz, Mikel Laboaren *Izarren hautsa*, emanaldiko azkena. Edo ez. Izan ere, Xabier Letek propinak ematen zituela-eta, zapatuko kontzertuan ere horixe egin zuten musikari eta abeslariek, eta lauzpabost kanturekin osatutako poupurria eskaini zuten guztiek. *Xalbadorren heriotza* izan zen azkenetan azkena.

Xabier Lete gogoan formulari jarraitu dio *Sortuko dira besteak* emanaldiak, artista gazteagoak parte hartzen dutena. Arrasatekoa izan da *Sortuko dira besteak* emanaldietan lehena, eta izango dira gehiago.



**EÑAUT ELORRIETA**
ABESLARIA

"Gurasoen etxean asko entzun dut Xabier Lete. Gustatzen zitzaidan eta bere poesiak irakurtzen hasi nintzenetik gehiago ulertzen dut kanten bidez transmititzen ziguna. Asko gustatzen zaizkit bere poemak eta Ken Zazpi taldean ere erabili ditugu. Arrasaten, estilo, herrialde eta belaunaldi ezberdinak elkartu gara, eta erakarri nau aniztasun horrek, gustatu zait".




**JOXAN GOIKOETXEA**
MUSIKARIA

"Xabier Letek bazuen beti erantzun bat euskaldunon, gizakion, inkognitendako. Arrasaten estreinatu dugun Sortuko dira besteak formulan aske, libre, ibili gara denok. Xabier Leteren estetikatik urruntzen ari gara, baina berak esandakoa da "sortuko dira besteak", eta sortu eta sortuko dira".



**AMETS ARZALLUS**
BERTSOLARIA

"Nik neuk ez nuen inoiz Xabier Lete zuzenean jotzen ikusi. Entzun, ordea, askotan, etxean entzuten zelako. Bertsolariok asko edan dugu bere doinuengandik. Amaiako kontzertuan gustura egon naiz, jendearen txaloak eta erantzuna jaso dut, eta nire irakurketen gaineko zalantzak banituen ere, gustura gelditu naiz. Emanaldi goxoa izan da".




Zea Mays egubakoitz gauean Oñatiko Gaztelekuan. | JULIO CALLEJA

KRONIKA

# Gaztelekua ia beteta, Zea Maysekin

**ANDER MONEDERO** | OÑATI

Jakina da azken urteetan Zea Mays talde bilbotarraren jarraitzaileak gero eta gehiago direla, eta hori argi geratu zen egubakoitz gauean Oñatiko gaztelekuan. Nahiz eta gaztelekua ez bete, 350 pertsona baino gehiago izan ziren kontzertuan.

Gaueko 23:30ak aldera igo ziren Zea Maysekoak oholtza gainera eta orduko, adin eta era guztietako jendea talde bilbotarraren zain zegoen. Aiorak, taldeko abeslariak, *Gabon Zea Mays* esanda hasi zen kontzertua. Emanaldiaren hasieran, talde bilbotarrak *Morphina* eta *Era* diskoen abesti batzuk jo zituzten, hori bai, azken diskoak dituen hiru abesti arrakastatsuenak bukaerarako utzi zituzten.

Azken diskoari errepasoa egin ostean, 1998. urtean beraien lehenengo lanean kaleratutako *Itsasoa* kantua jo zuten. Abesti horrekin, ikusleak, eta batez ere taldea hasieratik jarraitu duten zaleak, berotzen hasi ziren. Lehenengo ilaretan zeuden ikusleei aurpegian irribarreak ikusten zitzaizkien eta taldeak hori ikusi ostean, gero eta gusturago jotzen ari zirela nabaritu zitzaion. Abesti horren ostean, Errekalde auzoko taldeak beraien disko zaharretako abestiak jotzen jarraitu zuten. Ikusleak beroen zeuden momentuan, emanaldia bukatutzat jo eta zaleak gehiagoren zain geratu ziren. Taldeak atsedenaldi txiki bat egin zuen. Ikusleek bazekiten taldearen abesti ezagunenak falta zirela, eta aretoa hustu beharrean, *Beste bat!* oihukatzen hasi, eta taldea berriz irtengo zain geratu ziren. Atsedenaldi horren ostean, Zea Mayseko kideak indarberrituta irten ziren gaztelekuko oholtza gainera.

Bukaerako set horretan lau abesti jo zituzten. Momentu horretaraino gorde zuten taldea hain ezagun egin duen *Negua joan da ta* abestia. Ikusleak abesti horren zain zeuden eta lehenengo doinuekin batera, ikusleak, mugitzen eta abesten hasi ziren -baten batzuk saltoka ere hasi hasi ziren-. Taldeak publikoaren berotasuna ikusita, *Era* diskoaren beste bi abesti jo zituzten: *Ihes* eta *Kukutza III*. Kontzertua bukatzerakoan, ikusleak pozik irten ziren gaztelekutik, bilbotarrek beraien jarraitzaileak pozik utzi zituzten-eta.

**FITXA**

MUSIKA

**ZEA MAYS**

**Estiloa:** Rock, pop

**Non:** Oñatiko Gaztelekuan.

**Ikusleak:** 350 pertsona baino gehiago.

**Eguna:** Egubakoitza, martxoak 30.

**Iraupena:** 75 min.

## Helduak gustura ibili ziren dantzan

Dantzaldia izan zuten atzo Bergarako Zabalotegi aretoan Herrixa Dantzan egitasmoaren baitan. Lehenik, arratsaldeko seietan, haurrak aritu ziren dantzan, eta zazpietan berriz, helduen txanda izan zen. Lagun dezente batu zen, besteak beste, euskal dantzak egiteko. Giro bikaina izan zuten.



JULIO CALLEJA



JULIO CALLEJA

## Mary May gazteendako kantuan

Mary May abeslari arrasatearrak kontzertua eskaini zuen atzo, domeka, Arrasateko erdiguneko gaztegunean eta Ameriketako folk doinuez disfrutatzeko aukera izan zuten bertara joan ziren gaztetxoek. Guztira 15 lagun inguru elkartu ziren bakarlariaren doinuez gozatzeko.

# Governors-en 'Bertigo' abestiaren bideoa hilabete barru ikusgai

- Bideoklipean Willy Toledo aktore madrildarrak parte hartzen du
- Bi egunetan grabatu dute Bilboko kale nagusian eta Arrasaten



Bideoa grabatzeko, besteak beste, garabia bat erabili zuten. | A. M.

**ANDER MONEDERO** | ARRASATE

Governors talde arrasatearrak *Bertigo* abestiaren bideoklipa grabatu berri du. Grabaketa lanak martxoaren 22an hasi zituzten Bilboko On Diego Lopez Haroko Kale Nagusian, eta zapatuan bukatu zituzten Arrasateko Polmetasa fabrika zaharrean. Paneo 360 enpresako David Zabalaren gidaritzapean grabatu dute. Zabalak taldearen *Kristal kolpatuak* bideoa zuzendu zuen eta emaitza ikusita, talde arrasatearrak zuzendari lekeitiarrarekin errepikatzea erabaki du.

*Bertigo* abestia 'Collage' izeneko diskoa ixten duen abestia da eta pertsonen bizitzan bertigoa sortzen duten gauzei buruz hitz egiten du: erronka berriak, hipotekak, desjabetzeak, ardurak... Hori dena islatzeko erritmo biziko bideoklipa izango dela esan digu Juan Sang taldeko abeslariak.

Bideoan, taldea Polmetasa zaharrean jotzen ikusiko da, zuzenean erabiltzen duten su eta ke eta guzti. Ez hori bakarrik, martxoaren 22an Bilboko On Diego Lopez Haroko Kale Nagusian grabatutako irudietan Willy Toledo aktore ezaguna agertzen da. Sang-en esanetan, Toledo ez da bideoklipeko pertsonaia nagusia, baina bideoan protagonismoa du. Toledorekin lan egitea oso "erraza" izan da. Hori bai, bideoa grabatzeko 20 ordu baino gehiago behar izan dute.

**Bideoa hilabete barru**

Grabaketa lanak egin ostean, bideoaren muntaia egitea besterik ez da geratzen. Governorseko kideek hilabete barru kaleratzea aurreikusi dute.




Governors 'Bertigo' abestiaren bideokliparen grabaketan. | ANDER MONEDERO

KRONIKA

# Musika erlijiosoa ezagutarazteko emanaldia

**FITXA**

| | |
|---|---|
| MUSIKA | |
| **GANBARA GAZTE ABESBATZA** | |
| **Generoa:** | Musika erlijiosoa. |
| **Non:** | Arantzazuko basilikan. |
| **Ikusleak:** | 50 pertsona inguru. |
| **Eguna:** | Egubakoitza, martxoak 30. |
| **Iraupena:** | 70 minutu. |



Ganbara Gazte abesbatzak Aitor Olea eta Eli Mendiaraz organisten laguntza izan zuten egubakoitzean. | JULIO CALLEJA

**ANDER MONEDERO** | OÑATI

Hirugarren urtez, Ganbara Gazte abesbatzak *Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu bat...* izeneko ekimenaren barruan emanaldia eskaini zuen egubakoitz arratsaldean Arantzazuko Basilikan. Aurten, gainera, Basilikaren aldarean egin beharrean, koroan egin zuten eta horrek emanaldiari kutsu intimoagoa eman zion.

Oñatiko abeslari gazteek Aitor Biainen gidaritzapean, zazpi pieza eskaini zituzten ordubete luze iraun zuen emanaldian. Musika erlijiosoan organoak protagonismo handia du, eta horretarako, Aitor Olea eta Eli Mendiarazen laguntza izan zuten. Bi organistek emanaldia musikatu zuten. Basilikako koroaren akustika onak eta abeslarien ahotsek bikote polita osatu zuten eta bertara gerturatu zirenek musika erlijiosoaz gozatzeko aukera polita izan zuten.

Emanaldiak bi zati izan zituen, lehenengoa lau abestik osatu zuten: Gabriel Fauré-ren *Pavane*, Elgar-ren *Ave Verum*, Francisco Ibañez Irribarria arabarraren *Dona Nobis Pacem* eta Leo Delibesen *Messe Breve*. Azken pieza horrek lau zati ditu, guztira, ia hogei minutu iraun zuen, eta bertan, Ganbara Gazte abesbatzak, beti bezala, maila altua erakutsi zuen.

Pieza luze horren ostean, abeslari gaztetxoek etenaldi txiki bat egin zuten, eta horren ostean, beste hiru pieza kantatu zituzten: Josu Elberdinen *Ave Verum*, behin baino gehiagotan abestu duten Xabier Sarasolaren *Pater Noster* eta Satoren *Veni Sacnte Spiritus* abestiarekin bukatu zen emanaldia.

**XXI. mendeko musika bultzatu**

*Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu bat...* ekimenarekin Ganbara abesbatzak XXI. mendean egiten den musika erlijiosoa bultzatu nahi du, gaur egungo abestiak publikoaren artean ezagutarazteko. Ekimen horren lehenengo edizioan pop eta rock doinuak landu zituzten; bigarrenean, euskal folka oinarri duten abestiak kantatu zituzten; eta egubakoitzean, berriz, organoarekin jotzen diren kantu erlijiosoak interpretatu zituzten.

# Jatetxe Gida








## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

**Eskaintza**

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

**Egunero zabalik.**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.




## Garaia jatetxea

Garaia Berrikuntza Gunea / Goiru kalea 1 / ARRASATE
Tel.: 943 71 02 28 / 647 83 23 86
*ostalaritza@grupogureak.com*

**Eskaintza**

- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela
- Aparkalekua eta terraza



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
Tel.: 943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35 / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
*www.restaurantelasa.es*

**Eskaintza**

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.**




## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
Tel.: 943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**

GURE MUSIKA TALDEAK

# "Abestiak osoagoak dira, eta gure izaera eta estiloa irudikatzea lortu dugu"

- Anders Bjorler (At The Gates) eta Marios Lliopoulus (Exhumation) gitarra joleek bi abestiren grabazioan parte hartu dute
- Aurreko diskoak grabatzen ikasitakoa praktikan jartzeko, auto-ekoizpenaren aldeko apustua egin du talde arrasatearrak



Darkness By Oath taldearen *Near Death Experice* diskoaren argazki promozionala. | DARKNESS BY OATH

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Duela 12 urte inguru Alex eta Aritzek sortu zuten Darkness By Oath taldea. Muturreko metal doinuak egiten esperientzia zuten: Alexek Denialen gitarra jotzen zuen eta Aritzek Numen abesten zuen. Gaur egun, Diego Piñeirok, Ruben Alonsok, Tristan Iñiguezek, Asier Bilbaok eta Aritz Navarrok osatzen dute Darkness By Oath. Taldeak death metal melodiko doinuak jorratzen ditu, eta martxoaren 23an hirugarren diskoa kaleratu zuen, *Near Death Experience* izenekoa.

**Suediako Göteborg eskolako death metala egiten duzue. Ze desberdintasun ditu AEBetakoarekin edo death metal klasikoarekin?**

Göteborg eskolako death metala, AEBetakoarekin alderatuta, melodikoagoa da. AEBetakoa teknikan oinarritzen da, abiadura du oinarri, eta Suediakoa, berriz, metalaren estilo desberdinak fusionatzen ditu; hau da, thrash eta heavy klasikoaren ukituak ditu. Gu 15 urterekin estilo hau entzuten hasi ginen eta taldea sortu genuenean argi genuen estilo honetan oinarrituko ginela.

***Near Death Experience* zuen hirugarren diskoa da. Zer-nolako esperientzia izan da diskoaren grabazioa.**

Zenbat eta disko gehiago kaleratu, orduan era errazagoa da beste bat egitea. Hasieran, lan osoa zure esku dago; hau da, diskoa grabatu, kaleratu, kontzertuak lortu... Oso gogorra da, lan handia eskatzen du, musika egiteaz aparte, beste mila gauza dituzu egiteko. Gero, bigarren diskoa kaleratu genuenean, Alemaniako zigilu batekin kaleratu genuen eta kontzertuak lortzeko Bartzelonako *management* enpresa batekin fitxatu genuen. Orain, eskaintza egitea eta kontzertu onak eskaintzea da gure lana.

**Aurreko diskoa Dan Swano ekoizlearekin egin duzue. Orain, berriz, auto-ekoizketa. Zergatik?**

Esperientziak asko irakasten du eta orain, nahi duguna egiteko gai garela uste dut. Lehenengo diskoan akats pilo bat egin genituen eta bigarrenean, hori ez errepikatzeko, death metala ekoizten esperientzia handia duen Dan Swano suediarrarengana joan ginen. Emaitzarekin gustura geratu ginen, baina diskoan Swanoren estiloa entzun daiteke eta guretzat garrantzitsuak ziren detaile batzuk bigarren planoan geratu ziren. Disko honetan, berriz, gure lanaren kontrol guztia izan dugu.

**Zer eskaintzen du disko berriak?**

Soinu aldetik aberatsagoa da. *Near Death Experiece*-ek death metalaren arlo gehiago jorratzen ditu: Suediako *Old School* soinuaren eta Göteborg eskolaren arteko nahasketa da. Abestiak osoagoak dira, bakoitzak bere izaera du eta taldearen izaera eta estiloa irudikatzea lortu dugu.

**Diskoa ezagutarazteko bideoklipa ere grabatu duzue.**

Aurreko diskoa kaleratu genuenean bi bideoklip egin genituen, eta, oso ondo funtzionatu zutenez, oraingoan ere bideoa egitea erabaki dugu. David Zabalak egin du bideoklipa, eta emaitzarekin oso pozik gaude.

**Gaur egun bideoklipak beharrezkoak dira taldea promozionatzeko?**

Bai, beharrezkoak dira. Irudiak abestia janzten du eta publikoak asko eskertzen du. Youtuben bideoklipa jarri eta bi astera 2.000 pertsonak ikusi zuten. Sare sozialek asko erraztu dute promozio lana.

**Cyclon Empire zigiluarekin diskoa kaleratzeak ate asko ireki dizkizue.**

Bai, diskoa Europa osoan banatu zuten, Alemanian eta Belgikan emanaldiak egiteko aukera izan dugu. Eta orain, *Near Death Experience* diskoarekin aurrekoarekin baino apustu handiagoa egin dute: Europan ez ezik, Euskal Herrian eta Espainian banaketa zabalagoa izango dugu.

**Diskoetxe baten egoteak aukerak asko zabaltzen ditu?**

Bai, diskoetxeak diskoak saldu nahi ditu, eta, horretarako, kaleratzen dituen diskoen promozio zabala egiten du, kontzertuak lotzen ditu publikoa taldeak ezagutzeko... Death metal entzuleengana iristeko aukerarik onena da zigilu batek diskoa kaleratzea. Hori bai, profesionalak ez garenez, ahal dugun guztia egingo dugu, baina guretzat ezinezkoa da bi hilabeteko bira bat egitea.

**Urteak pasa ahala, death metaleko talde askorekin jotzeko aukera izan duzue.**

Hasieran, gure inguruko taldeekin jotzen genuen, eta, bigarren diskoa kaleratu ostean, Dark Tranquillity taldearekin jotzeko aukera izan genuen; eta baita Alemanian eta Belgikan death metal jaialdietan ere. Taldearekin hasi ginenean, horrelako gauzak ezinezkoak ziren.

**Kontzertuak jotzeko garaia da.**

Bai; zapatuan lan berriaren aurkezpena egin genuen, eta, orain, ahalik eta kontzertu gehien jotzeko asmoa dugu. Oraingoz, beste bost kontzertu lotu ditugu, gehienak etxetik gertu.

# ZURE IRAGARKIAK

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu. Hortik aurrera, ez da onartuko aldaketarik edo iragarkia bertan behera uzterik. GOIENAk ez du iragarkien ondoko operazioen erantzukizunik.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Etxea salgai Matienan (Laubideta). Guztiz berriztatua, kalitate handiko altzari eta materialekin. Hegoaldea. 3 logela, bainugela, 18 m2-ko egongela balkoiarekin eta sukalde hornitua, balkoi itxiarekin. Prezioa: 246.000 euro (negoziagarriak). 615-73 85 52 edo 688-86 18 78. Etorri ikustera!

**Abadiño.** 98 m2-ko pisua salgai Abadiñoko Muntsaratz auzoan. Bizitzera sartzeko prest dago. Prezio negoziagarria. 678 -83 60 50.

**Arrasate.** Aukera paregabea. 204.000 euro. Eguzki dorrean etxebizitza salgai. Eraberritua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua. Denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. 650 -01 05 15.

**Atxondo.** 200 m2-ko txaleta salgai. Sukaldea, bi egongela, lau logela, hiru bainugela(bata logela baten barruan),trastelekua. Altzariz hornitua. Berogailua,zoru erradiantea eta aspirazio zentrala. Terraza eta 4.000 m2-ko terrenoa. Prezioa: 900.000 euro (negoziagarriak). 615-70 12 23.

**Berriz.** Berriz erdian pisu berria salgai. 80 m2. Oso kokapen ona. Guztiz jantzita dago. Sukaldea, egongela, komun handia, 2 logela (bat zurezko ganbaratxoagaz, balkoiagaz, despentsa txiki bategaz). Berogailua zoru irradiatzailea da. Oso eguzkitsua da. 607-52 24 26.

**Durango.** 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua; 3 logela, sukaldea-jangela, egongela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m2 eta 8 m2-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz betea eta guztiz jantzia, berogailuaren galdara jarri berria, hormako lau armairu, aluminiozko leihoak, ateak eta zorua aldatuta. Garaje eta igerilekuarekin. Deitu telefono honetara: 655-70 46 84.

**Elorrio.** Salgai estreinatzear dagoen 162 m2-ko terraza duen atikoa (73 m2). 2 logela, egongela bat, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta trastelekua. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Aukera paregabea!. Deitu telefono hauetara: 615-75 59 85 (goizez) eta 636 -22 49 02 (arratsaldez).

**Elorrio.** Elorrio erdialdean 75 m2-ko pisua salgai. 3logela, 2 bainugela eta 8 m2-ko trastelekua. Sukalde ekipatua, 2 armairu horman sartuak eta igogailua. 230.000 euro. Garajea aukeran. 634-45 72 01.

**Eskoriatza.** Erdigunean etxebizitza ia berria salgai. 102 metro koadrokoa. Duplexa. Bi logela, ikasteko gela, bi komun, sukaldea, eta egongela handia. Garajea eta trastelekua. Beherapen oso handiarekin. 245.000 euro. 675-71 16 93 / 688-67 63 96.

**Gasteiz.** 57 m2, egoera onean, kalefakzioa eta ura elektrikoak, hegoaldera begira, 1. Solairua, 5 ate pisu bakoitzeko, igogailua, eraikinak 20-30 urte ditu, 2 logela, 2 komun (bainerarekin), sukaldea (garbigailua, mikroondasa, etab.), balkoia, moketa logeletan, parketa egongelan eta baldosak gainontzekoan, banakako garajea, itxia,eskiak gordetzeko tokia, piszina eta belardia urbanizazioaren barnean,aurrean plaza bat dauka, kolunpioekin etab. orain dela urtebete hormak margotu ziren eta zorua aldatu zen, altzariekin. 665-75 78 07. marian.formigal@gmail.com.

**Iurreta.** Pisu bat salgai Arriaundin, Iurretan. 78.000 euro. 685-72 80 42.

**Mobil homea Iratxen.** Nafarroako kanpinik onenean. 45 metro koadro ingurukoa. 6-8 pertsonarendako. Bikotearendako logela bat eta bi oheko bi logela. Jangela-egongela eta sukalde hornitua. Portxea eta lorategia. 686 77 04 97 edo jm.urrataxi@hotmail.com

**Otxandio.** Apartamentu jantzia salgai trastelekuarekin. Igogailua. 675-71 72 83.

**Otxandio.** Otxandion 90 m2-ko pisua salgai. Oso eguzkitsua, 4 logela, egongela, sukaldea, komuna eta balkoia. Berritua. 150.000 euro. 675-90 52 27.

### 102. EROSI

**Durango.** Baserri bifamiliar osoa erreformatzen dizut, baserri erdiaren truke, durangaldean. Beste proposamenen bat badaukazu, kontutan hartuko dut. 618-93 62 14.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Bi komun. Argitsua. Prezio onean. Deitu telefono hauetara: 647-22 09 38 / 665-72 28 46.

**Bergara.** Erdigunean 72 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Eguzkitsua. 606-65 58 08 / 660-04 25 25.

**Bergara.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Dena kanpoaldera begira. Igogailua, lau logela, bi komun, sarrera, egongela eta sukaldea. Hornitua eta jantzia. 607 32 74 32

**Bergara.** Lau logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 608-17 77 55.

**Durango.** Durangoko alde zaharrean etxebizitza errentan ematen dugu. 78 m2, 3 logela, sukaldea, egongela eta despentsa (700 euro). Harremanatarako deitu 686-21 49 64 telefono zenbakira.

**Hondarribia.** Gela bakarreko apartamentua alokatzen da Hondarribian aste santu eta pazko astean, hondartzaren parean. Interesatuak deitu telefono honetara: 617-55 25 43.

**Irura.** Iruran pisu berritua,ederra, alokairuan, 500 euro (eskudirutan). Toki lasai eta eder batean kokaturik. Konpromisorik gabe ikus ezazu. Jabe eta bizilagun euskaldunak! 85m2 , 3 logela, wc 1, balkoi 1, trastero 1, elektrodomestikoak berri berriak, sukaldea, garbigailua, labea, mikruina..., komuna berria, instalazio elektriko berria, kalefakzio berria gas naturala, Climalit lehioak, oso argitsua eta ekialdeko kokapena (eguzkia egun osoan), egurra lurrean... Zoragarria eta zuk estreinatuko zenuke!. 676-05 18 85. joxibalerdi@hotmail.com

**Lakuntza.** Logela batekoa, oso polita eta apaina. Herriko etxe batetan kokatua. 679- 50 54 64 Itziar.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean 80 m2ko etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta logela. Balkoiarekin. Jantzia. 695-75 85 26.

**Zaldibar.** Erdialdean, guztiz berriztua. 660-45 87 56.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Antzuolan etxea behar dugu errentan. Baserria ere hartuko genuke. 626 73 40 19 edo 699 24 86 99

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa. Partikular artekoa. Deitu 634 12 56 87 zenbakira.

**Durangaldea.** Pisu edo apartamentu baten bila nabil durangaldean. 645-00 96 02.

**Elorrio.** Alokatzeko pisu bila nabil Elorrion. Altzariekin. 94-658 21 91.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Kontratuarekin. 678 73 66 54

**Arrasate.** Pertsona bat behar da Altamira auzoan 4 logela eta 2 bainugela dituen etxebizitza osatzeko. Etxea oso ondo dago eta langileak bizi dira bertan. 653 71 44 57

**Arrasate.** 36 urte neska pertsona baten bila etxebizitza osatzeko. 680-74 67 80.

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat alokagai dugu unibertsitate ondoan. 630 71 35 83

**Bergara.** Logela ematen da errentan etxebizitza osatzeko. Erdigunean. 608 17 77 55

**Durango.** Logela batalokagai Durangon. 630-76 18 28.

**Durango.** Logela bat alokatzen da Durangon, Tabira auzoan. 645-00 96 02.

**Iurreta.** Pisu batetan logela alokagai, Iurretan, neska euskaldun batentzat. 200 euro. 633 -23 38 48.

### 106. BESTELAKOAK

**Trukea.** Saloun (Pineda) daukadan etxebizitza trukatuko nuke Arrasateko etxebizitza bategatik. Erdi berria. Urbanizazio pribatua. Hondartzatik 300 metrora. 943 79 45 74

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** 15 metro koadroko garaje itxia salgai Espoloian. 20.000 euro. Deitu 19:30etatik 22:00etara zenbaki honetara: 606 74 15 32

**Berriz.** Garaje itxia salgai. 42 m2. Ate automatikoagaz. Ura eta argiaren instalazioak, iaztik. Komuna eta bodega txiki bat. 2-3 kotxe. Txokoa sukaldeagaz. 615-75 21 36.

**Berriz.** Berrizen, Learreta-markina kalean garajea salgai. Eskola aurrean. Sarrerak errepidera ematen du. 30 m2. 663 -39 75 88.

**Durango.** Garaje itxia salgai Durangon, Konbentukale 23an. 667 35 14 00

**Elorrio.** Garaje itxia salgai elorrio erdialdean, 20.000 euro. 660-45 87 56.

**Iurreta.** Garajea salgai Iurretan, Eleixalden. 636-22 07 96.

**OÑati.** Garaje itxia, 17 m2koa, salgai Arantzazu kalean. Prezio onean. 635-06 24 79.

**Otxandio.** Garaje itxia salgai Otxandion, pertsianarekin. 675 -71 72 83.

### 202. EROSI

**Durangaldea.** Durangaldean karabana gordetzeko garaje itxia edo pabelloia erosiko nuke. 30 eta 90 m2 artekoa. 2.5m-ko gutxieneko altuera (atea barne). Sarrera zabala. 691-70 69 13 (18:00etatik aurrera).

### 203. ERRENTAN TEMAN

**Durango.** Garaje itxia alokairuan Sasikoa inguruan. 75 euro. 688-80 70 92.

**Durango.** Garajea alokairuan Durangon. 50 euro hilean. 675 -71 95 54.

**Durango.** Lurpeko garaje irekia Murueta Torren, Landako gunearen alboan. Auto ertain batentzako plaza maniobragarria eta trastero itxia. Trasteroak 2,35m x 1. 65m ditu, bizikletak eta bestelakoak gordetzeko geometria egokia. Ikusgai interesa duenarentzat. Prezioa eztabaidagarri. Kontaktua: 645-72 24 05 (Jon).

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**Gasteiz.** Azken erabilera: Tailer mekanikoa, garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariak eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonei moldatua. Hiri erdigunekiko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzea ere posible da: 800euro/hil. 665-75 78 07 (Ana).

### 302. EROSI

**Bergara.** Lokal bila gabiltza san lorentzo edo Matxiategi kaleetan. 50 m2tik gorakoa. 654-35 50 16.

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARETXABALETA**
Neska euskalduna behar da tabernarako, asteburuetan. Deitu 18:00etatik aurrera. 688 68 54 65

### 402. ESKAERAK

**Abadiño.** Persona nagusien zaintzarako, garbiketarako edo umeen zaintzarako lan bila. Orduka, gauez edo asteburuetan. Sukaldatu, plantxa egin,... Ospitaletan, garbiketan eta nagusien zaintzan esperientzia. 696-75 35 30

**Abadiño.** Umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako eskaintzen dut neure burua. Deitu telefono honetara: 697-25 87 24

**Aretxabaleta edo Arrasate.** Haur Hezkuntza ikasi duen 22 urteko neska haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Goizez edo arratsaldez. Deitu telefono honetara: 688 88 39 57

**Aretxabaleta.** Emakume euskalduna umeak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest. 666 26 07 62

**Arrasate.** Arratsaldetan edo asteburuetan lan egingo nuke tabernetan edo nagusiak zaintzen. 606 64 16 09

**Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan.** Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatua eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77

**Bergara eta Arrasate.** Nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke, baita garbitasuna lanak egiten ere. Ordutegia: 16:00etatik 21:30era. Esperientzia eta erreferentziak. 677 81 10 00

**Bergara.** Denetariko errekauak eta erosketak egiten dira. Bergaran bakarrik. 666 46 69 69

**Bergara.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko arratsaldetan. 610 34 97 88

**Bergara.** Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. Esperientziaduna. 680 77 06 46

**Debagoiena.** 10 urte baino gehiagoko esperientziadun lehen mailako igeltserua lanerako prest, alikatatu eta pladur ezagutza maila handia. Eusebio. 633 68 89 23

**Debagoiena.** Emakume arduratsua garbiketa lanak egin (etxebizitzak, bulegoak, eskailerak...) eta pertsona nagusiak saintzeko prest. 671 98 94 34

**Debagoiena.** Esperientzadun gizona artzai lanetarako eta baserriko mantentze lanak egiteko eskaintzen da. Ezagutza traktore eta bestelako makinari manejuan. Eusebio. Deitu telefono honetara: 633 68 89 23

**Debagoiena.** Gela-zerbitzari tituludun emakumea hotel eta ostatuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Deitu telefono honetara: 671 98 94 34

**Debagoiena.** Gizon arduratsua, pladur montatzaile laguntzaile bezala lan egiteko prest. Esperientziduna. 677 62 22 21

**Debagoiena.** Mutil gaztea nekazaritzan esperientzia duena, baserrietako ortuetan lan egiteko prest. 698 38 00 32

**Debagoiena.** Neska gertu orduka lan egiteko, ospitalean gauak eginaz, nagusien zaintzan edo garbiketan. Deitu telefono honetara: 636 80 87 68

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu, garbileta edo bestelako lanetan jarduteko. Deitu telefono hauetara: 671 80 12 89 edo 935 16 94 54

**Debagoiena.** Emakumea prest nagusiak zaindu, garbiketa edo bestelako lanetan jarduteko. 603 77 58 82

**Debagoiena.** Eraikuntzarekin lotutako edo bestelako edozein lanetarako mutila prest. 677 70 93 80

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumezko batek, nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzte. Maite. 650 17 74 87 edo 943 76 48 26

**Debagoiena.** Gizonezkoa gertu eraikuntza laguntzaile, margoketa, lorazain zein nagusien zainketan jarduteko. 671 80 12 89 edo 935 16 94 54

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak lagundu eta zaintzeko. 628 52 74 68 edo 943 53 49 71

**Debagoiena.** Gizonezkoa gertu garbiketa lanak egiteko: etxeak, elkarteak, tabernak, atariak eta abar. Eskarmentuduna. Miguel. 634 41 90 51

**Debagoiena**. Interna bezala lan egingo nuke. Deitu telefono honetara: 606 64 16 09

**Debagoiena.** Mutila gertu garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 680 95 65 57

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Nagusiak zaintzen edo igeltsero laguntzaile bezala aritu izan naiz. 685 42 72 80

**Debagoiena.** Mutila prest garbiketa lanak egiteko edota adinezko pertsonak zaintzeko. 680 95 65 57

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Baita garbitasun lanetan ere. Egunez, gauez edo ospitalean ere bai. Angela. 659 57 93 89

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Baita garbitasun lanetan ere. Egunez, gauez edo ospitalean ere bai. Elena. 627 6049 99

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke, baita garbiketa lanetan ere: atarteak, tabernak eta abar. 679 30 65 28

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago, edozein ordu eta egunetan. Berehala hasteko prest. Etxean bertan bizi izaten ere bai. Autoa daukat. Gasteiz aldean ere lan egingo nuke. Marco. 696 38 10 07

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo denetariko garbitasun lanetan jardungo nuke: atari, elkarte, taberna eta abarrak. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Deitu telefono honetara: 682 31 97 37

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Erizain laguntzaile titulua daukat. Bestelako lanak ere egingo nituzke. 689 18 04 12

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu etxe, taberna zein atariak garbitzeko. Baita nagusiak eta umeak zaintzeko ere. Orduka eta etxean bertan bizi izaten. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska arduratsua umeak zaindu, orduka garbiketak egin edo nagusiak zaindu zein paseoan laguntzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

---

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 102 m². 4 logela. Igogailu, berogailu eta trastelekuarekin.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 240.405€.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. Prezio ona.
- Masterreka 70 m². 2 logela. Igogailu eta garajearekin.
- Zabalotegi 55 m². Balkoi eta trastelekuarekin. Prezio jaitsierarekin. 114.192€.
- Justo Garate plaza. 80 m². 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailuarekin. 154.760€.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395€.
- Simon Arrieta 80 m². 2 logela. Balkoi, igogailu, berogailu eta trastelekuarekin. 210.354€.
- Zubiaurre 51 m². 102.000€.
- Zabalotegi 54 m². Balkoiarekin. 96.000€.
- Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€. .
- Bolu 140 m² duplexa. Terraza eta garajearekin. Aukera ona.
- Ibargarai 74 m². Igogailu eta garajearekin.
- Burdiñate 53 m². Apartamentua, oso ondo.
- Bidekurutzetan 60 m² obra egiteko. Oso prezio ona.
- Zubieta 240 m², ortuarekin.
- Urteagan etxebizitzak estreinatzeko. 195.000€.
- Bidekurutzetan etxebizitzak estreinatzeko. 1, 2, 3 eta 4 logela. AUKERA ONA.
- Masterreka 104 m². 3 logela. Estreinatzeko. Trastelekuarekin. 294.495€.
- Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.
- Lorentxokon etxebizitzak estreinatzeko. 3 eta 4 logelakoak. AUKERA ONA.

**Antzuola:**
- Baserria 200 m². 3 logela. Berria. Garajearekin. Lursailarekin.
- Buztinzurin apartamentua estreinatzeko. Aukera ona.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**Elgeta:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Salvador 90 m². 3 logela. berogailu eta trastelekuarekin. 82.000€.

---

**ARRASATEKO UDALA**

*Lehiaketaren iragarkia, Toki Argiko Jubilatu Etxeko taberna ustiatzeko eskubidea esleitzeko.*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko martxoaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen Baldintza Plegua onartzea, Toki Argi Jubilatuen Etxeko tabernaren ustiapena esleitzeko, kontsezio administratibo erregimenean. Aldi berean, lehiaketa publikoa deitzea erabaki zuen aipatu kontsezio administratiboa esleitzeko. Azkenik, lehiaketa publikorako deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea ere ebatzi zuen. Honen bidez lehiaketa publikoa iragartzen da:

***1. Kontratuaren xedea:***
Arrasateko Udalak, Toki Argi Jubilatuen Etxearen jabeak, lehiaketa publikoa deitu du kontzesio administratiboa emateko; horren arabera, hor dagoen taberna erabiltzea eta ustiatzea baimentzen zaio kontzesionarioari.

***2. Epea:***
Kontzesioaren epea urtebetekoa izango da behin-betiko adjudikaziotik hasita, eta isilbidez beste batez luzatu ahal izango da, gehienez ere lau izan arte, beti ere aldeetako baten batek salatu ezean hori hiru hilabete lehenago.

***3. Bermeak:***
Behin-behineko berme bat eman behar dute lizitatzaileek, Sektore Publikoko Kontratuen Legean adierazten den moduan 100,00 eurokoa.

Behin-betiko bermea 1.200,00 eurokoa izango da.

***4. Dokumentazioa eta informazioa lortzeko:***
a) Erakundea: Arrasateko Udala. Gizarte Zerbitzuen saila.
b) Helbidea: Herriko Plaza. 20500 Arrasate
c) Telefonoa: 943 25 20 07.

***5. Eskaintzen aurkezpena:***
a) Aurkezteko epea: Iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun naturaleko epean.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu asteburuetan zerbitzari lanak egiteko. Esperientzia dut eta ingelesez ere ondo moldatzen naiz. 649 57 70 59

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak, nagusiak zaintzen, sukalde lanetan eta abarrean lan egiteko. Deitu telefono honetara: 610 99 70 46

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. 618 04 15 45

**Debagoiena**. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbitasun lanetan aritzeko. 629 01 40 33

**Debagoiena.** Neska prest garbiketa lanak egiteko eta baita ere haurrak edo adinezko pertsonak zaintzeko. 618 04 15 45

**Debagoiena.** Tituludun eta esperientziadun ileapaintzailea lan egiteko gertu. Makilajea eta manikuran ere esperientzia. 629 01 40 33

**Debagoiena.** Umeak eta nagusiak zaintzen eta garbiketak egiten lan egingo nuke. Bestelako edozer lanetan ere bai. 699 07 99 69

**Debagoiena.** Webguneak diseinatzen lan egingo nuke. Sandra. 618 04 15 45

**Durangaldea.** Umeen edo nagusien zaintzarako lan bila. Interna, externa edota asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 696-63 95 21

**Durangaldea.** Umeen edo nagusien zaintzarako lan bila. Interna, externa edota asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 632-99 96 92

**Durangaldea.** Interna edo externa modura lan bila. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketa lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. 679-71 64 42

**Durangaldea.** Nagusien edo umeen zaintzan, edo garbiketarako lan bila. Jardunaldi osoan, orduka, asteburuetan... 3 urtetako esperientzia. Deitu telefono honetara: 681-21 82 30.

**Durangaldea.** Pertsona nagusien zaintzan, peoi modura, igeltserotzan,... Lan bila. 663 -62 57 43.

**Durangaldea.** Basoan, nagusien zaintzan edota laguntzaile modura aritzeko lan bila. Paperekin. Deitu telefono honetara: 681-11 41 62.

**Durangaldea.** Pertsona nagusien edo umeen zaintzarako, garbiketarako, sukalderako,... Edota edozein fabrikarako lan bila. Lan baimenarekin. Esperientzia eta erreferentziak. 628 -34 98 11. Juana

**Durangaldea.** Asteburuetarako lan bila. Garbiketan, umeen edo nagusien zaintzan. Esperientzia eta erreferentziak. 697 -12 64 38.

**Durangaldea.** Interna bezala pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientzia eta erreferentziak. 632-33 15 65.

**Durangaldea.** Nagusien edo umeen zaintzarako edo garbiketa lanetarako prest. Interna, externa edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Deitu telefono honetara: 660-64 20 89.

**Durangaldea.** Nagusien zaintzan, mendiko lanetan, lorezaintzan, biltegietan edo edozein fabrikan lan egiteko prest. Esperientzia batez ere mendiko lanetan. Deitu telefono honetara: 646-41 89 07. Santiago

**Durangaldea.** Kutxazain, biltegi lanetan, okindegian, harategian edota pastelerian lan egiteko prest. Esperientzia. Nagusien zaintzan ere, orduka. Geriatriako kurtsoa eta administrazioko laguntzailea. 650-37 61 88 Thelma.

**Durangaldea.** Andra sukaldari laguntzaile modura, nagusien eta umeen zaintzarako edota garbiketarako lan bila. Goizez, gauez edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 678 -23 02 66.

**Durangaldea.** Igeltserotzan, arotzegian, margoketa lanetan edota basoan lan egiteko prest. Txofer bezala ere. Gidatzeko baimena. Esperientzia. 646-25 81 74.

**Durango.** Bulegoen, etxeen , portalen... garbiketerako edo nagusien zaintzarako lan bila. Jardunaldi erdian, aukeran goizez, astelehenetik zapatu eguerdira. Esperientzia. 676-54 66 91 (Lola).

**Durango.** Durangoko emakumea orduka etxeko lanak egiteko prest, informeekin. 94-466 89 26 edo 688-65 90 90.

**Durango.** Emakume euskalduna etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia handikoa. 675-70 32 61.

**Durango.** Garbiketan zein ume edo nagusien zaintzan lan bila. Lanaldi osoan, orduka edota asteburuan. Esperientzia eta erreferentziak. 618-35 37 18.

**Durango.** Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna edo externa. 683-47 28 05.

**Durango.** Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna. 632-11 77 23.

**Durango.** Garbiketa edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxeen edo portalen garbiketa, ospitaletako edo etxeko zaintzak,... Jardunaldi osoa edo erdia, gauez, orduka,... Esperientzia. 690-68 73 95.

**Durango.** Garbiketa edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxeen edo portalen garbiketa, ospitaletako edo etxeko zaintzak,... 16:00etatik 20:00etara. Esperientzia. 646-92 52 15.

**Durango.** Nagusien, umeen zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Jardunaldi osorako, asteburuetan,... Erreferentziak eta esperientzia. Deitu telefono honetara: 681-21 82 30.

**Durango.** Nagusien zein umeen zaintzan edo garbiketarako lan bila. Interna, externa, orduka edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 619-15 58 04.

**Durango.** Nagusien zaintzan interna modura lan bila. Esperientzia alzheimerdun eta dementziadun nagusien zaintzan. 630-25 32 25.

**Durango.** Pertsona nagusien zaintzan edo garbiketan aritzeko lan bila. Interna, externa edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 603-95 41 94.

**Durango.** Pertsona nagusien zaintzarako lan bila. Interna modura. Esperientzia daukat. Deitu telefono honetara: 632-86 92 82.

**Durango.** Neska orduka, lanaldi osoan, interna edo externa modura lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzan. Esperientzia eta erreferentzia onak. 678-80 96 01.

**Durango.** Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketa lanetarako eta sukalde lanetarako ere. 94-466 82 12 edo 653-33 06 05 (Genevieve).

**Durango.** Neska orduka, lanaldi osoan, interna edo externa modura lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzan. Esperientzia eta erreferentzia onak. 603-07 13 83.

**Durango.** Pertsona nagusien zaintzan edo garbiketetan lan bila. 09:00etatik 13:00etara. Esperientzia. 633-03 86 09.

**Durango.** Nagusien edo umeen zaintzan edo garbiketan lan bila. Lanaldi osorako, erdirako edo gauetarako. Erreferentzia onak. 650-61 01 94. Rosa.

**Durango.** Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. Barne-zaintza, kanpo -zaintza, orduka, gauez edo asteburuetan. Erreferentziak eta esperientzia. 608-65 90 55 (Nieves).

**Durango.** Umeen edo nagusien zaintzarako edota garbiketarako lan bila. 669-32 11 75.

**Durango.** Pertsona nagusien zaintzan, garbiketan, segurtasunean, lorezaintzan, okintzan, gurdi-garraiolari,... Lan bila. 622 -47 39 41. Julian.

**Iurreta.** Pertsona nagusiak zein gaixo daudenak zaintzeko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. 699-74 57 23. Ines.

**Zornotza.** Umeak zaintzeko, jantokietan zerbitzatzeko, garbiketarako... lan bila. Esperientziaduna. 688-68 66 08 (Geraxane).

**Zornotza.** Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia. Deitu telefono hauetara: 688-68 66 08 (Geraxane) eta 678 21 39 67 (Rafa).

**Zornotza.** Lorezaintza, altzairuen muntaia, elektrizitatea edota pintore lanetarako lan bila. Esperientzia baita fundizioan ere. 678-21 39 67 (Rafa).

## 5. IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Durango.** Umeak zaintzeko edo partikularrak emateko prest. Magisteritzan diplomatua. Ingeleseko eta euskerazko titulazioekin. Esperientzia. 657-77 61 71.

**Durango.** Irakasle euskalduna klase partikularrak emateko prest; Lehen Hezkuntza zein DBH. 653-70 20 49.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana.** Oso egoera onean dagoen autokarabana salgai. Benimar, 6 plaza, 2.8 TD. 10 urte. 18.000 euro. 629 43 27 19 edo 943 76 56 96

**Audi A4 salgai.** Diesela. 2003 urtekoa. 160.000 km. Oso egoera onean. 673-49 36 39.

**BMW 325i E30.** 1988. Urtekoa, 170zp eta 220.000km. Kotxea egoera oso onean dago. IAT(ITV)a 2013ko martxora arte. Salgai ez delako erabiltzen. Prezioa ezin hobea 3100 euro. Xabi. 680-38 67 63.

**Fiat punto salgai.** Fiat punto salgai. 2007. Urtekoa. 48.425 km. 8.000 eur. Deitu telefono honetara: 665-74 56 03.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ahuntzumeak salgai.** Ahuntzume bi saltzen dira Mallabiko Elgetzu baserrian. Tel.: 606-70 91 18.

**Ardiak salgai.** Haurdun dauden ardiak salgai. Gorbeiako larrean ibilitakoak. Tel.: 94-631 71 17 edo 690-73 27 01. Cecilio.

**Artzai txakurra salgai.** 3-4 urteko euskal artzai txakur mantsoa salgai. Tel.: 692-81 90 35. Amaia

**Seter txakurkume ehiztariak salgai.** 150 euro. 695-71 00 68.

### 703. EMAN

**Txakurkumeak.** Bi txakurkume ar opari. Artzai txakurrak, Gorbeia arrazakoak. 630 33 92 28

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Agria motokultorea salgai.** Agria 2700 motokultorea salgai. Diesela. Tel.: 94-682 45 90. Luis.

**Aulki elektrikoa.** Gurpildun aulki elektrikoa. Egoera oso onean. 1.500 euro. Deitu 677 38 85 64 telefono zenbakira.

**Baserritar jantzia.** Mutikoarendako baserritar jantzia salgai. 1-4 urte bitarteko umearentzat. Praka, alkandora, blusoia, txapela, galtzerdiak eta abarkak. 50 euro. 653-72 22 54. marysea15@hotmail.com.

**Berogailu ekologikoa.** Pelet sistema darabilen berogailu ekologikoa salgai, egoera onean. Interesa izanez gero idatzi mitartegarai@euskalnet.net helbidera edo . 94 379 17 51

**Bixkiendako aulkia saltzen da.** Maclaren techno twin beltza osagarri guztiekin. 2010ean erosia. Gutxi erabilia. Kontaktua: 636-15 53 55.

**Bizikleta.** Neskatilarendako bizikleta salgai. 20 hazbetekoa. Egoera onean. 647 58 40 73,

**Bizikletak eramatekoa.** Bizikletak kauto gainean eramatekoa saldu nahi dut. "Feu Vert BX1" lapurreten aurkakoa dauka eta gutxi erabilia. 40 euro. 606 28 81 19

**Bizikletarako umeen aulkia salgai.** Bizikletarako umeen aulkia salgai. Ume txikia atzean eramateko, erosoa. Oso gutxi erabilia, eta merkea. 648-63 58 06.

**Casualplay s6 karrotxoa salgai.** Kapazua, prima easy arrautza eta karritoa saltzen dut. Euritarako 3 burbuila eta bi zaku oparitzen dira. 275 euro. Ikusi konpromisu barik. Tel.: 618-21 38 62.

**Chaise longueak debagoienan.** Banakako 2 chaise longue. Beltzak. Tamaina ezberdinak. Leku faltagatik saltzen dira. Berriak. Prezio interesgarria. 635-71 80 28.

**Durango.** Bulegoko altzariak salgai: mahaiak, aulkiak, batzar gela.... Egoera oso onean daude. Tel: 656-73 77 79.

**Eskiatzeko materiala.** 10-12 urteko umearendako praka, 36 neurrikoa, eta snow taula salgai, 1,25 neurrikoa, lokailuekin. 656 -78 64 64.

**Eskoriatza.** Apotzagan 11.000 metro koadroko lursaila salgai. Borda eta guzti. Deitu telefono honetara: 690-81 64 39.

**Ileordea.** Ile naturalez egindako ileordea salgai. Ilehoria. Luzea. 635 06 20 72.

**Isolatzailea salgai.** Isolatzailea (kortxo beltza) salgai Elorrion. Teilatuak, paretak eta lurra aislatzeko balio du. Prezioa negoziagarria da, eroandako kopuruaren arabera. 661-82 93 59.

**Kristalezko mahaia.** Bulegorako kristal eta altzairuzko mahaia salgai. 160x78x76 neurrikoa. Egitura altzairu eta kristal tenporizatuzkoa. Deitu 619 87 95 57 zenbakira.

**Lursaila.** Apotzagan 11.000 metro koadroko lursaila salgai. Borda eta guzti. Deitu 690 81 64 39 telefono zenbakira.

**Mahaiak eta aulkiaksalgai.** Egurrezko lau mahai eta aulkiak salgai. Txoko baterako egokiak. Tel.: 695-76 84 21.

**Mountain bike-a salgai.** Mountain bike horia salgai. 3 plato eta 8 pinoi. 6tik 10era urteko ume batentzat. 75 euro. Tel.: 94-682 07 67 (Igor).

**Ohe egiten den sofa.** Bi lagunentzat ohe egiten sofa. Ikea ps lovas markakoa, beltza arraia zuriekin (koltxoia barne). 160x205cm. Berria. Leku faltagatik saltzen da. Prezio interesgarria. 635-71 80 28.

**Ohe elektrikoa salgai.** Pertsona ezinduentzako, ospitaleen motako ohe elektrikoa saltzen dut. Berri-berria. Akaroen kontrako koltxoia, oheburua eta segurtasun barra. Mandoak zortzi botoi ditu. Lurretik 30 zm-tara jaitsi daiteke eta 95 zm-tara igo. Ikusi, konpromiso gabe. 700 euro. 636-43 00 20.

**Ordenagailua eta pantaila salgai.** Pentium 4, 1,5 gb ram. Disko gogorrak 160 Gb. Fire-ware txartela. Sistema eragilea w-xp sp-3. 100 euro. 669-65 48 87.

**Ordenagailua.** Ordenagailua eta pantaila salgai. Pentium 4, 1,5 Gb RAM. Disko gogorrak 160 Gb. Fire-ware txartela. Sistema eragilea W-XP Sp-3. 100 Euro. 669 65 48 87

**Panteoia.** Panteoia saltzen da Arrasateko hilerrian. Lau leku dauzka. Erabili gabea. Deitu 685 77 66 63 telefonora.

**Puff-a pistatxo kolorekoa.** Puff-a. Pistatxo koloreko puff-a (materiala: polipiel). Leku faltagatik saltzen da. Berria. Prezio interesgarria. 635-71 80 28.

**Sofak eta mahaia.** Hiru plazako sofa bat, plaza bakarreko bi eta egurrezko mahia salgai. Denak rustikoak. Egoera onean. 300 euro. 943-77 08 49.

**Txakurrendako karroa.** Txakurrak eramateko karroa salgai. Egoera oso onean. Alzaga etxekoa. Lau txakur eramateko modukoa. 360 euro. Deitu 19:00etatik aurrera 695 75 52 70 teleonora. Jabi.

**Txirrindulari zapatillak salgai.** Northwave evolution fbs leopard-trek. 43 zenbakia (27,5 zm-ko plantilla). Ia berriak (3 aldiz erabiliak). Prezioa: 125 euro. 626-46 44 22. Mikel.

**Umeak eramateko aulkia.** Umeak autoan eramateko aulkia salgai. 9-18 kilo artekoa. Deitu 658 12 43 38 zenbakria.

**Umea eramateko motxila.** Vaude jolly light umea eramateko mendiko motxila salgai. Estreinatzeko, etiketa eta guzti. 100 euro. 94-603 25 02.

**Xurgagailua.** (aspiradora). Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilitakoa. 659 62 02 49

### 802. EROSI

**Lursaila.** Lursaila erosiko nuke Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. Interesatuok 619 87 95 57

**Haur kotxea erosi nahi.** Haur kotxea erosi nahi dut. Bugaboo bee markako haur kotxea erosiko genuke. Interesatuek mesedez deitu 656-78 28 13 telefono zenbakira.

**Soinu txikia erosi.** Soinu txiki bat erosiko nuke. Tel.: 650 -72 27 47.

**Txanponak.** Zilarrezko eta urrezko txanponak erosiko nituzke. 656 75 76 98

**Zilarra erosten dut.** Zilarrezko gauzak erosten ditut: txanponak, etxeko kuberteria eta abar. Harremanetan jartzeko, deitu: 657-70 43 16. numipega@gmail.com.

**Birkiendako aulkia** emateko badaukazu, gustura hartuko genuke. Oñati. 662 57 48 84

### 806. GALDU

**Eskumuturrekoa Bergaran.** Ibargarai kalean martxoaren 11n zilarrezko eskumuturrekoa galdu nuen. Eskertuko nuke norbaitek aurkitu badu deitzea: 943 76 70 95 edo 661 10 29 66

**Telefonoa Urkulun.** Martxoaren 22an, arratsaldean, Urkulun karkasa morea duen mobil beltza galdu dut. Aurkitu baduzu mesedez 685 72 19 86. Mila esker aldez aurretik.

### 803. EMAN

**Bidali zure ordenagailua Boliviara.** Bidali zure ordenagailua Boliviako eskoletara. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Boliviako bigarren mailako eskoletara. 655-71 76 66.

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Neska bila.** Neska polit, sentibera eta ezkongabea naiz eta antzeko neska bat ezagutuko nuke Arrasate edo Bergaran. Interesatuok 615 75 09 90

**Mutil euskaldun jator baten bila Bilbon.** 50 urteko neska euskalduna naiz. Alaia, irekia, berriketari ona, lagun zintzoa. Gustuko dut igeri egitea, snderismoa (baina oso suabea,jeje), zinea, kantatzea, euskal kulturaren mundua, hondartza, bidaiatzea, lagunekin irtetzea, txangoak egitea... Bizitzaz disfrutatzea. Nire antzeko mutil bat ezagutu nahiko nuke,bi oso zenbaki polita delako. Harremanetan jartzeko nire telefono zenbakia 606-25 05 84 da.

**Arrasatetik Donostiara autoan.** Egunero Arrasatetik Donostiara joateko autoa partekatzeko jende bila nabil. Arrasatetik 8:30ean irtetzen naiz eta Donostiatik 17:30etan. Imanol. 669-13 20 08.

**Durangotik Tolosara autoa konpartitzeko.** Durangon bizi naiz eta Tolosan egiten dut lan. Kotxea konpartitzeko pertsona bila nabil. durangotolosa@gmail.com. 680-58 41 25.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
SALMENTAK
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Garajea. Trastelekua. 260.000€.
**AMARA** 2 logela, sukaldea, egongela bikoitza, bainugela. Terraza. Eguzkitsua. 231.400€.
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Eguzkitsua. 234.335€.
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Terraza. Altua. 282.475€.
**ERDIALDEA** 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Balkoia. 187.515€.
**ERDIALDEA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Sartzeko. 198.000€.
**ANTIGUA** 70 m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Oso polita. 299.000€.
**EGIA** Mandasko Dukea. 75 m2. 2 leiho Mandasko Dukera. 197.932€.
**HERRERA** 2 logela, sukaldea, egongela bikoitza, bainugela. Berritua. Kalera. 180.000€.
**MARTUTENE** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Kanpora. Parkinga. 167.982€.
**PASAI ANTXO** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Balkoia. 170.000€.
**PASAI DONIBANE** Herriko plazan. Pisua gehi ganbara. 100 m2. Terraza. 180.000€.
**LEZO** Oso polita. 80 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena kanpora. 210.000.
**LEZO** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Berritua. 124.800€.
**ASTIGARRAGA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 156.203€.
**ERRENTERIA** Altua. Igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoiak. 180.000€.
ALOKAIRUAK
**PASAI ANTXO** Zumardian. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Igogailua. 775€.
**ANTIGUA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. 650€.
**PASAI DONIBANE** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 650€.
**LEZO** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. Balkoia. 690€.
**LOIOLA** Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 675€.
**HERNANI** Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza 15m2. Oso polita. 650€.
**AMARA** Altua. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Terraza. 850€.
**ULIA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Berogailua. Parkinga. 825€.
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

www.inmosalbide.com
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
**Aia.** Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m2ko terraza. Oso prezio onean 39.000.046 pezeta!
**Aia.** Baserria berritu berria. 125 m2-ko bi solairu ditu. 25 m2-ko terraza. Terrenoa, 110.000 m2. 50.000.000 pezeta.
**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.
**Bergara.** Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema gasarekin. Aparta. Lehenbailehen saltzekoa.
**Iraeta.** Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. 39.000.000 pezeta.
**Getaria.** Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Oso prezio onean. 39.000.000 pezeta.
**Zarautz.** Itxasmendi. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta terraza. Argitsua. Prezio berria: 46.000.000 pezeta.
**Errioxa. Haro.** Txaleta. 4 logela. Lorategia. Garajea. Txokoa. Igerileku komunitarioa. 38.000.000 pezeta.
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA
**EMUN KOOP. E.k, lan munduan euskararen normalizazioan diharduen enpresak, langile premiak asetzeko eta lan poltsa osatzeko hauek behar ditu:**
**EUSKARA PLANAK GARATZEKO HIZKUNTZA TEKNIKARIAK**
**Kontuan hartuko da:**
- Taldeen lidergoan eta proiektuen kudeaketan aritua izatea, eta komunikatzeko eta taldeak dinamizatzeko gaitasuna izatea.
- Euskararen normalizazioan edota euskalgintzan esperientzia edukitzea.

Horretaz gain, honako arloetan esperientzia duten pertsonen curriculumak jasotzeko epea ere ireki dugu: IMMIGRAZIOA eta KULTURGINTZA
Probak, apirilaren 26an, arratsaldean, egingo dira, eta hautatutakoei bakarrik deituko zaie.
Curriculuma sartu gure webguneko (www.emun.com) "lan bila?" atalean.
**Azken eguna:** apirilaren 16a.



Research In Motion konpainiaren egoitza nagusia. | RIM

# Kinka larrian jarraitzen du Blackberryren enpresak

Galeren aurrean zuzendaritzako zenbait goi-karguk utzi egin dute RIM konpainia, eta hornidura arazoekin jarraitzen dute

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Galera eta merkatuan posizio sendoa ezin lortzeak kolokan jarri du aspalditik Research In Motion (RIM) konpainia. Blackberry telefono eta gailen fabrikatzailea da enpresa hori eta krisi larriaren azken ondorioa izan da goi-kargu batzuek utzi egin dutela konpainia. Azken hiruhilekoan galerak izan dituzte mugikor berriaren entregei ezin izan dietelako aurre egin. Gainera, konpainiaren apusturik sendoena PlayBook delako tableta izan da baina oso salmenta txikiak izan ditu gailu berriak.

**Galerak ezin gelditu**

Aurtengo lehen hiruhilekoan 94,2 milioi euroko galerak iragarri zituen RIMeko presidente Thorsten Heinsek. Analisten arabera espero zen aurten akzio bakoitzeko 0,61 dollarreko irabaziak izatea baina hornidura arazoek zalantzan jarriko dituzte emaitza horiek.

Martxoaren 3ra arte 11,1 milioi Blackberry eta 500.000 PlayBook ekoiztu ditu RIMek auretn. Kopuru murritza esperotako irabaziendako.

## Kindle Touch salgai dago jada 3G konexio eta guzti Europako herrialde nagusietan

**J.B.** | ARRASATE

Azkenean salgai ipini dute Frantzia, Espainia, Erresuma Batua, Alemania eta Italian Kindle irakurgailuaren bertsio ezagunena. WiFi bertsioak 129 euro balio du eta 3G konexioa duenak 189 euro. Vodafonek ere eskaintzen du 3G bertsioa, doako konexioarekin gainera, mundu osorako balio duena liburuak erosi eta sare sozialetan ibiltzeko. Orain arte bakarrik Kindle Single delako modeloa egon da salgai Europako herrialde nagusietan, 99 eurotan, eta gainontzeko modeloak inportazio bidez soilik eskura zitezkeen.

Modelo berriak 6 hazbeteko pantaila dauka, 3.000 liburutik gora biltegira ditzake eta karga bakarrarekin bi hilabeteko erabilpena dauka bateriak. Eskariak apirilaren 27an hasiko dira bidaltzen.

**Auto-publikazioa**

Amazon orain egileak euren lanak zuzenean argitaratzeko tresnak eskaini ahal izateko dabil lanean. Kindle Direct Publishing tresna berriarekin egileak %70a jasoko du.



Kindle Touch modeloaren irudi bat. | AMAZON

## Jaurlaritzak agindutako software librearen legea, erdibidean azkenean

**J. B.** | ARRASATE

Software librearen aldeko apustua egingo zutela iragarri zuen Patxi Lopezen gobernuak legealdiaren hasieran, baina promes hartatik ezer gutxi jakin da orain arte, eta, ematen duenez, erdibidean geratuko dira, ekintzetatik baino asmoetatik gertuago. Hilabeteetan lanean ibili eta gero, aholku batzorde bat eratuko dute – ekintza zehatzak bideratzeko ahalmenik izango ez duena – , eta horrekin batera lege-dekretu bat kaleratuko dute, legealdiaren amaieran argitaratzeko.

**Direktorio bat sortuko dute**

Lehen zirriborroa gertu dauka Lopezen lantaldeak. Europako Batasunak bere garaian softwa-re librearen aldeko gomendioa egin zien administrazio publikoei haiekin euren aplikazioak gara zitzaten, eta orain dela hiru urte Idoia Mendiarekin elkarlan hitzarmena sinatu zuten sektoreko enpresek. Hala ere, onartuko den dekretuan software librea sustatzeko lana besterik ez dela egingo jasotzen omen da. Software librearen direktorio moduko bat osatuko da eta zerrenda hori publiko egingo da nahi duenak erabil dezan.

## Tuitak, komunerako paperean

Twitterreko kontu bat aukeratu eta komunerako paperean inprimatzeko aukera ematen du enpresa batek.
Izena eman, Pay Pal bitartez ordainketa egin eta etxera bertara bidaltzen ditu paper sortak enpresak irakurri eta ostean erabiltzeko prest, Twitter kontu bat besterik ez da behar.



SHITTER.COM

## Iruzkin plataforma bat prestatzen dabil Google

**J.B.** | ARRASATE

Google+ sarea, web zerbitzuak eta bilatzaile nagusia lotuko dituen gune bat da sortzen dabiltzana. Bestelako guneetan ere iruzkinak uzteko Facebookek daukan sistema antzerakoa izango litzateke, baina, kasu honetan, Google zerbitzu guztiak batera hartuko dituena. Facebookek eskaintzen ez dituen tresna eta zerbitzu oso interesgarriak baditu ere, ematen du Googlek lehiaren urratsak imitatzeko asmoa daukala epe ertainera erabiltzaileak bereganatu edo dagoeneko dauzkatenek sare soziala gehiago erabiltzeko.

Iruzkin sistema berriari dagokionez, Googleko ordezkari batek adierazi du ezberdina izango dela eta diferentzia nagusia izango dela iruzkinak bilaketetarako ere indexatuko dituztela. Horrela, Google bilatzaileari askoz ere ahalmen handiagoa emango diote. Oraingoz, ez dute iragarri noiz ipiniko duten martxan iruzkinak egiteko sistema berria.

## ICANNen jarduerarekin haserre daude AEBak

**J.B.** | ARRASATE

Estatu Batuetako gobernuak mehatxu egin dio ICANN erakundeari ez baldin baditu domeinuak emateko arauak gogortzen. Irabazi asmorik gabeko erakundea da ICANN eta AEBek emandako eskumen batekin Interneteko domeinuak banatzen ditu. Zehazki, ICANNek hartutako azken erabakietako bat jarri du zalantzan Estatu Batuetako gobernuak; izan ere, edozein hitz izan daiteke aurrerantzean Interneteko domeinu. Gobernuak erakundearekin batera ezarri gura ditu irizpideak, eta, gainera, uste dute ICANNeko kide ohiak erabaki berriei probetxua ateratzen egon daitezkeela. ICANNek gura du hirien ala marken izenak ere domeinua osatu ahal izatea eta erabaki horrek piztu ditu errezelo guztiak

Momentuz ICANNek Ameriketako Estatu Batuekin daukan hitzarmena datorren urteko irailera arte luzatu dute eta horren ostean dira egoera berriz aztertzekoak.

## TELE-BEGI



AINHOA VITORIA

# 'Fargo' telesail berria

Azkenaldi honetan, liburu ospetsuak pelikuletako istorio bilakatzen ari dira. *Best seller*-ak txarteldegietan errege dira: *Crepúsculo*, *Millenium* eta, azken egunotan, arrakasta izan duen *Los juegos del hambre*, besteak beste.

Istorioek formatu batean arrakasta izan baldin badute, beste formatuetan ere funtzionatu beharko lukete. Horixe pentsatuko zuten *Fargo* pelikularen sortzaileek. 1996an Oscar sariak jaso zituen Coen anaien filma beste formatu batean ikusiko dugu laster. Telesail bihurtu nahi dute.

Momentuz, ekoizpen-etxeen artean negoziaketetan dabiltza; beraz, ez dago ezer ziurtatuta. Eta, oraindik, ez dakigu Frances McDorman aktoreak, *Fargo* filmagatik Oscarretan aktore onenaren saria irabazi zuen aktore frantziarrak, telesail honetan parte hartuko duen. Gustura ikusiko genuke berriz ere, telebistan, Marge Gunderson-en papera egiten. Egun, telesail askotan ikus ditzakegu polizien istorioak, erailketak edota lapurretak. Baina inoiz ez Frances McDormanen xarma eta Coen anaien istorio bitxi, zentzugabe eta ahaztezin hau.

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

#### ASTELEHENA, 2



**Huheziko film laburren berri**

20:20

Laugarren mailako ikasleek sei film labur grabatuko dituzte, eta, ondoren, guztiak elkartuta film luze bat egingo dute.

**12:30** Magazinea
**13:30** Onein
**13:52** Altxor Txokoa
**14:25** Ikusten
**14:38** Zorion Agurrak
**14:43** Berriak
**15:03** Eguraldia
**15:08** Ur eta lur
**15:31** GCC
**16:06** Bertso saioa
**16:29** Ikusmira
**16:41** Zorion Agurrak
**16:46** Berriak
**17:06** Eguraldia
**17:11** Ekogune
**17:41** Onein
**18:03** Berbaz
**19:03** Ikusmira
**19:25** AsteON
**19:55** Berriak
**20:15** Eguraldia
**20:20** Magazinea
**21:05** Berriak
**21:30** Eguraldia
**21:35** Harmailatik
**22:20** Magazinea
**23:05** Harmailatik
**23:50** Berriak
**00:05** Eguraldia

#### MARTITZENA, 3



**Eguraldi iragarpena**

15:08

Pello Zabalak, eguneroko moduan, eguraldi iragarpena egingo du. Datozen egunotarako iragarpena egingo du.

**12:30** Magazinea
**13:15** Harmailatik
**14:00** Beranduegi.tv
**14:18** AsteON
**14:48** Berriak
**15:08** Eguraldia
**15:13** Ikusten
**15:25** Harmailatik
**16:10** Onein
**16:47** Berriak
**17:12** Eguraldia
**17:17** Bizitegia
**17:42** Harmailatik
**18:27** Altxor Txokoa
**19:00** GCC
**19:33** Beranduegi.tv
**19:50** Berriak
**20:10** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Berriak
**21:20** Eguraldia
**21:25** Harira
**22:25** AsteON
**22:55** Magazinea
**23:40** Berriak

#### EGUAZTENA, 4



**'Ontziratu zaitez' kanpainaren berri**

22:27

*Ontziratu zaitez* izeneko kanpaina arrandegietara *tupper* kaxak eramateko sortu da; horren berri izango dugu *Ekogune*–n.

**12:15** Magazinea
**13:00** Harira
**14:00** Beranduegi.tv
**14:18** Ekogune
**14:48** Berriak
**15:08** Eguraldia
**15:13** Gipuzkoa kultura
**15:43** Onein
**16:13** Berbetan
**16:46** Berriak
**17:06** Eguraldia
**17:11** Jokoz Mintzo
**17:44** Harmailatik
**18:29** Bertso saioa
**18:52** Ekogune
**19:22** Erositaikasi
**19:40** Zorion Agurrak
**19:45** Berriak
**20:05** Eguraldia
**20:10** Magazinea
**20:55** Berriak
**21:20** Eguraldia
**21:25** Beranduegi.tv
**21:42** Magazinea
**22:27** Ekogune
**22:57** GCC
**23:30** Berriak
**23:55** Eguraldia
**00:10** AsteON
**00:40** Planik bai?

#### EGUENA, 5



**Zorion agurrak ikusgai**

10:56

Ikus–entzuleek Goienara bidalitako zorion agurrak ikusi ahal izango dituzue. Ordutegia duzue beheko taulan.

**10:00** Ipupomamua
**10:26** 28.Klip
**10:56** Zorion Agurrak
**11:01** Planik bai?
**11:11** AsteON
**11:41** Jokoz Mintzo
**12:14** Bizitegia
**12:44** Ur eta lur
**13:05** Onein
**13:27** Zorion Agurrak
**13:32** Berriak
**13:47** Magazinea
**14:47** Gipuzkoa kultura
**15:17** Harira
**16:52** Planik bai?
**17:02** Berriak
**17:17** Onein
**17:47** Zorion Agurrak
**17:52** Ekogune
**18:22** Gipuzkoa kultura
**18:52** GCC
**19:02** Altxor Txokoa
**19:35** Berbaz
**20:35** Beranduegi.tv
**20:50** Zorion Agurrak
**20:55** Magazinea
**21:55** Planik bai?
**22:05** Harira
**23:40** Gipuzkoa kultura

#### EGUBAKOITZA, 6



**Sukaldaritza saioa**

11:08

Gorka Salaberria sukaldariak plater hau prestatzen irakatsiko digu: azukia kalabazarekin eta soja berdea foierekin.

**10:00** GCC
**10:33** Ipupomamua
**11:03** Zorion Agurrak
**11:08** Onein
**11:45** Magazinea
**12:45** Bizitegia
**13:10** Berriak
**13:25** Jokoz Mintzo
**13:58** Onein
**14:21** Gipuzkoa kultura
**14:51** Zorion Agurrak
**14:56** Walker
**15:25** Berriak
**15:40** AsteON
**16:06** Gipuzkoa kultura
**16:36** Berriak
**16:51** Magazinea
**17:51** Zorion Agurrak
**17:56** Harira
**19:31** Beranduegi.tv
**19:46** Magazinea
**20:46** Ekogune
**21:16** GCC
**21:49** Berriak
**22:04** AsteON
**22:39** Bertso saioa
**23:02** Bizitegia
**23:32** Magazinea

### ARRASATE IRRATIA

#### Euskal Herriko Itzuliaren hasieraren berri 107.7an

Euskal Herriko Itzuliari gaur emango zaio hasiera eta Arrasate Irratiak gertu–gertutik jarraituko du hasiera hori. Irteera puntuan egongo da antolatzaile taldeko Antton Elortza oñatiarra, eta lasterketaren nondik norakoak emango dizkigu, zuek 107.7ko uhinen bitartez informazio hori jaso dezazuen. 10:30ean izango da hori.

#### Hainbat sari zozketatuko ditugu eguaztenean

Zozketa eguaztenean egingo dugu eta hainbat sari irabazteko aukera izango duzue. Besteak beste, hilaren 12an egingo den *Kooltur ostegunak* egitasmoaren Izate taldearen kontzerturako sarrerak izango ditugu. Parte hartu zozketan: deitu 943 25 05 05era edo *idatzi irratia@goiena.com* edo *@arrasategoiena*–ra. Zorte on!

#### Aste Santurako proposamenak egingo dizkizuegu

Aste Santuko oporrak hartu aurretik, eguaztenera bitartean, bailaran Aste Santuan egin dezakezuenaren berri emango dizuegu *Igo autobusera!* irratsaioan. Herrian izango diren zerbitzuen berri ere emango dizuegu eta Joxe Landak jaiegunetarako eguraldi iragarpenak egingo dizkigu. Hori guztia eta gehiago 107.7ko uhinetan izango duzue.

## TELE-ALBISTEAK

# Oñatiko erlojupekoaren ibilbidea ikusgai 'Harmailatik' saioan

Debabarrena eta Kanpanzar Harrobiak taldeetako txirrindulariek erakutsiko digute ibilbidea



Bailarako ziklistak erlojupekoaren ibilbidea ezagutzen. | XABI URTZELAI

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Gaur, astelehena, *Harmailatik* kirol saioan, Euskal Herriko Itzuliaren seigarren eta azken etapan jokatuko den erlojupekoaren ibilbidea gertu-gertutik ezagutzeko aukera izango duzue.

Oñatin izango den erlojupekoak 19 kilometro ditu, eta ibilbidea egingo dugu Debabarrena eta Kanpanzar Harrobiak taldeko txirrindulariekin.

Besteak beste, txirrindulari hauek izango dira erlojupekoaren ibilbidea egiten: Mikel Aristi, Aitor Umerez, Eneko Lizarralde, Jon Rivero, Alex Aranburu, Iker Ezkibel, Hodei Orobengoa eta Jon Ander Kortabarria.

Bada, erreportaje zabala eskainiko dizuegu, eta, ondoren, txirrindulari gazteek euren iritziak emango dizkigute. Esango digute nolakoa iruditu zaien ibilbidea, teknikoa den edo ez, gogorra egin zaien, eta beste hainbat kontu.

Hori eta gehiago gaur, astelehena, 21:35ean izango da *Harmailatik* saioan. Beraz, ez hutsik egin!

# Ima Beristain Antzuolako alkatea elkarrizketatuko dugu 'Harira' saioan

Herritarrek euren kezka eta galderak bidali ahal izango dituzte, alkateak erantzun ditzan

A.T. | ARRASATE

Astero-astero Debagoieneko alkate bat gonbidatzen dugu *Harira* izeneko saiora, eta bihar, martitzena, Antzuolako alkate Ima Beristain izango da Goiena telebistan.

Herriko kontuak izango dituzte hizpide alkateak eta Eneko Azkarate aurkezleak. Horrez gain, ikus-entzuleek saioan parte hartzeko aukera ere izango dute, alkateari galderak eginda. Izan ere, saioa zuzen-zuzenean izango da, 21:25ean, eta ikus-entzuleen galderak erantzuteko aukera izango du alkateak.

**Egin galdera alkateari**

Hainbat modutara bidali ahal izango diote alkateari galdera edo kezka ikus-entzuleek. Zuzenean galderak bi modutara egin ahal izango dira: telefonoz deituta 943 25 05 05 zenbakira edo Twitter bidez, *#harira* traola erabilita. *Goiena.net*-etik *streaming* bidez ere eskainiko da saioa, eta, jakina, galderak edo iruzkinak egiteko aukera izango dute erabiltzaileek.

Galderak aurretik bidaltzeko aukera ere izango da: posta elektronikoz *harira@goiena.com* helbidean.

## ZORION AGURRAK




OÑATI
**Xabat Igartua Arrizabalaga**
Apirilaren 7an, 10 urte. Zorionak, Xabat! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu pila bat etxeko denen eta bereziki Oxelen partetik.



BERGARA
**Miren Irizar Arzamendi**
Apirilaren 7an, urtebete. Zorionak, politxori! Etxeko guztiek, eta bereziki Telmo, aita, ama, amama Amaia eta Gurutze, aitita Iñaki, aitona eta amonak. Muxu potolo bat, potxola!



BERGARA
**Garazi Arana Mendizabal**
Apirilaren 7an, 3 urte. Zorionak denon partetik eta ondo-ondo pasatu eguna.



OÑATI
**Itziar Barrena Jausoro**
Apirilaren 7an, 13 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat etxeko danon partetik!



OÑATI
**Xabier Kortabarria Otxoa-Aizpurua**
Apirilaren 6an, 4 urte. Zorionak, Xabier! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo handi-handi bat familixa danaren partetik.



ESKORIATZA
**Martin Berezibar Arevalo**
Apirilak 5ean. 7 urte. Zorionak, txapeldun! Zure lehengusu eta familia guztiaren partetik!



ARRASATE
**Ana Delgado Salas**
Apirilaren 5ean, 67 urte. Zorionak, ama! Ondo pasatu zure egunean. Zure seme-alaben partetik, muxu handi bat.



ANTZUOLA
**Inar Cabo Mundiñano**
Apirilaren 5ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat aitatxo, amatxo eta Ekhiren partetik. Ongi pasatu zure eguna!



ANTZUOLA
**Maddi Alonso Berezibar**
Apirilaren 5ean, 2 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat danon partetik, baina bereziki Xabi, Oinatz eta Ibairen partetik.



ARRASATE
**Abel Parra Bermejo**
Apirilaren 5ean, 43 urte. Zorionak, *guapo*! Ederto pasatu eguna eta ondo pasatu oporretan, marrubizko kiloka muxu potolo laguntxo guztien partetik



BERGARA
**Naia Unamuno Martinez**
Apirilaren 4an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Patxo handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Marenen partetik.



BERGARA
**Anouk Muruamendiaraz Arevalillo**
Apirilaren 4an, 3 urte. Zorionak eta muxu potolo bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Ioar Gonzalez**
Apirilaren 3an, 2 urte. Zorionak, txiki! Eta muxu handi bat etxeko danon partetik. Ondo-ondo pasatu zure egunian!



ARRASATE
**Lide Villar Lumbreras**
Apirilaren 3an, 8 urte. Zorionak etxeko printzesatxoari, familia guztiaren partetik! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat.



ARRASATE
**June Villar Lumbreras**
Apirilaren 2an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik! *Supermegahiper* ondo pasatu eguna.



ARRASATE
**Maren Etxabe eta June Urionabarrenetxea**
Apirilaren 2an eta 3an, 6 eta 3 urte. Handitzen-handitzen ari dira gure printzesa maite-maitiak! Zorionak, bikote! Marrubizko patxo potolo-potoloak Nahia, Markel eta amama Mariatxenen partetik.



OÑATI
**Eleder Teran Fernandez**
Apirilaren 2an, 8 urte. Zorionak, Eleder! Ondo-ondo pasatu eguna, merezi dozu-eta! Zure primuen partetik!



BERGARA
**Paul Lazkano Ezpeleta**
Apirilaren 2an, 4 urte. Zorionak, politxoi! Azkenian ailegau da eguna, e? Lau urte, gizontxo bat einda zare! Zure familixakuen, eta bereziki, Maddiren partetik muxu pilia eta ondo-ondo pasatu oporrrak!



ARRASATE
**Maren Beltran de Guevara Zabarte**
Apirilaren 2an, 10 urte. Zorionak familia guztiaren partetik eta ondo pasatu zure eguna!



ARETXABALETA
**Catalina Gabilondo**
Apirilaren 1ean, 97 urte. Zorionak eta patxo handi bat familia guztiaren partetik.



ELGETA
**Irati Arbulu**
Apirilaren 1ean, 9 urte. Egun ona pasatu eta muxu potolo bat, bereziki Joneren partetik.



OÑATI
**Eneko Azkargorta Markez**
Martxoaren 31n, 2 urte. Zorionak, Eneko! Gure mutikotxue handi inda! Jada bi urtetxo beteten ditxu! Etxeko danen partetik oso-oso ondo pasatu eta zorionak, *poittena*!



ARETXABALETA
**Izeia Garai Lazkano**
Martxoaren 31n, 5 urte. Zorionak, pixpirrin! Ondo pasa dezazula zure urtebetetze eguna eta muxu potolo asko etxekoen partetik!




ARRASATE
**Maike eta Lia Axpe**
Martxoaren 31n, 6 urte. Zorionak, potxolak! Nahiak eta etxeko beste guztiek patxo handi bana botatzen dizuete.



ANTZUOLA
**Nora Lasa Oncala**
Martxoaren 30ean, 6 urte. Zorionak, polita! Sei urte bete dituzu. Muxu handi bat aita, ama eta Oierren partetik.



ARETXABALETA
**Aratz eta Uxue Astola**
Aratzek 8 urte ,martxoaren 30ean eta Uxuek 6 urte, martxoaren 22an. Zorionak bixoi familiakoen partetik.



ARRASATE
**Danel Ezpeleta Larrañaga**
Martxoaren 30ean, 8 urte. Zorionak, Danel! Oso ondo pasatu zure egunean etxeko guztien, eta batez ere, Naroa, ama eta aitaren partetik.



ARRASATE
**Pitxi**
Martxoaren 29an, 42 urte. Zorionak, tio Pitxi! Ederto ospatu eguna, mendizale! Kiloka marrubizko muxu goxo-goxo, familia eta bereziki zure loba Beñat eta Marenen partetik. Muxutxuek, *guapeton*!



OÑATI
**Danel Guridi Olalde**
Martxoaren 29an, urtebete. Zorionak, pottoko! Ondo pasatu zure lehengo urtebetetzea. Muxu handi bat aitatxo, amatxo eta bereziki Nahiaren partetik.



ARRASATE
**Julen Aranburu Zubia**
Martxoaren 29an, 2 urte. Zorionak, piratatxo! Ondo pasatu eguna eta belarri tirakada handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Markel eta Lideren partetik! Pa!



BERGARA
**Amaia San Torcuato Labaien**
Martxoaren 28an, 19 urte. Zorionak, andereño! Primeran pasatu eguna eta domekan zelebraukou errealak irabazten dabenian eta ordua da jada kotxeko karneta etaratzeko Anoetara eta ekipoko partidotara eramateko, eh!



OÑATI
**Aimar Elorza Sanmiguel**
Martxoaren 28an, 4 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo handi bat familixa danan partetik!



OÑATI
**Aitor Freire**
Martxoaren 27an, 8 urte. Zorionak, txiki! Besarkada handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Mikel Aranburu**
Martxoaren 27an, 12 urte. Zorionak, Mikel! Dozenara iritsi zara. Ondo pasatu zure egunean. Hamabi tirakada etxeko denon partetik.



ARRASATE
**Anai Madinabeitia Vazquez**
Martxoaren 27an, 2 urte. Zorionak, txiki! Familixaren partetik.



BERGARA
**Peio Galfarsoro Arregi**
Martxoaren 26an, 8 urte. Aupa, txapeldun! Konturatu orduko zortzi urte. Ondo pasatu eta zorionak etxeko guztien partetik, bereziki Olatz eta Maider.



ESKORIATZA
**Patxi Orobengoa Hernandez**
Martxoaren 26an, 30 urte. Zorionak, aitatxo! Oso ondo pasatu etxeko guztien eta, bereziki Aner eta amatxoren partetik. Muxu handi bat.



BERGARA
**Jone Pagaldai Orbea**
Martxoaren 26an, 34 urte. Zorionak, prexioxa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean eta muxu piloa lagun eta familia guztiaren partetik . Muxu asko, *guapisima*!

### Zorionak!

**Internet**
Sar zaitez *goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.
**Posta elektronikoa**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.
**Ordezkaritzak**
Etor zaitez GOIENAko ordezkaritza batera.

## JAIOTAKOAK



### Danel Nuño Otamendi

Eskoriatza 3,090 kilo. Martxoaren 28a. Gurasoak: Leire eta Jon. Argazkian, Danel sehaskan lo.



### Danel Urrutia Garcia de Albeniz

Oñati. 3,030 kilo. Martxoaren 24a. Gurasoak: Nagore eta Jon Ander. Argazkian, Danel aitarekin.



### Jon Ander Idigoras Martinez

Eskoriatza. 2,620 kilo. Martxoaren 27a. Gurasoak: Miren eta Arkaitz. Argazkian, Jon Ander amarekin.



### Unai Burgos Perez

Arrasate. 3,300 kilo. Martxoaren 26a. Gurasoak: Miriam eta Martin. Argazkian, Unai sehaskan lo.



### Alejandro Correa Osorio

Aretxabaleta. 2,750 kilo. Martxoaren 29a. Gurasoak: Mariluz eta Carlos. Argazkian, Alejandro sehaskan.

## Jaiotzak

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.



Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



### Iradi Azkarate Zubillaga

Arrasate. 3,260 kilo. Martxoaren 29a. Gurasoak: Maider eta Iban. Argazkian, Iradi amama Txaro eta Maixolekin.



### Ekain Alvarez Fuentes

Arrasate. 3,650 kilo. Martxoaren 28a. Gurasoak: Maite eta Antonio. Argazkian, Ekain ama eta aitarekin.

## BABESLEA

UME
Garibai 6 ARRASATE
Tel.: 943 79 97 86
MARKA AUKERA ZABALA
HUNTER
Lili Gaufrette
ROXY
Pepe Jeans LONDON
IOTTUM simply dutch
CHIPIE KIDS
BOSS HUGO BOSS
Levi's KIDSWEAR
DKNY DONNA KARAN NEW YORK
Timberland
catimini
IKKS JUNIOR
ELSY Girl
DDP
DIESEL
RAMS 23
FAMILIA UGARIENTZAKO %10eko DESKONTUA

## DENBORA-PASA

### HITZ GEZIDUNAK




LUMA

### BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.





### SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK



BILA-BILA 7



## AI, ENE!

### Musika, baita igerilekuan ere



Nork esan zuen igerileku guztiak laukizuzenak izan behar direnik? Argi dago, irudimen apur batekin ez dela zaila orijinala izatea.
**www.facebookfails.com**

## AHOBERO

### "Zenbat pertsona harrapatu dituzu gaur goizean gauza horrekin?"

EDIBURGOKO FELIPE | PRINTZEA

Isabel erreginaren senarra ez zen fin ibili egokitutako ibilgailuan zihoan ezindu bati esaldi hori zuzentzean. Ez da egiten duen tankera honetako lehen hanka-sartzea; baina inporta al du horrek, kasu honetan moduan, inguruko guztiek barre egiten badute?
**www.20minutos.es**

## EGURALDIA

Max. 19º

Min. 6º

Ekaitzak jotzeko aukera handia izango da edonon, egunaren bigarren partean bereziki.
**euskalmet.net**

ASTELEHENEKOA

goiena"

2012-04-02

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

## HAMARREKOA

**Iñigo Larrinaga** Kazetaritza eta irakasle ikasketak egindakoa, agur esan berri dio Goenkale hasi zenetik hemezortzi urtez bidelagun izan duen Koldori; telebistako platoak ikasgelengatik trukatu ditu | TXOMIN MADINA

# " Koldok Iñigo hezi du aktore eta pertsona moduan"

**1. Nola daroazu Koldorengandik banandu izana?**
Ondo. Egun gutxi daramatzat oraindik baina ondo; bizitza aurrera doa, beste lan batean nago... Gainera bizitza ez da lana bakarrik; beste gauza batzuk ere betetzen dute: familiak, seme-alabek, lagunek...

**2. Zergatik orain?**
Beti arrazoi asko daude: gidoigileak nitaz aspertuta egon behar zirela uste dut, zer asmatu jakin gabe; ez nengoen pozik ETBko zuzendaritzarekin, euskarazko produktuekiko eta *Goenkale*-rekiko ezaxola apur bat zegoelako; eta banuen beste gauza batzuk egiteko asmoa eta irakaskuntzan aukera sortu zen.

**3. Zer erakutsi dizu Koldok?**
Koldok, ez dakit; *Goenkale*-k asko. Koldok Iñigo hezi du aktore eta pertsona moduan; gure bizitzak batera joan dira: oso gazte hasi ginen *Goenkale*-n eta orain adin bat dugu. Aktore profesional moduan hezi, hazi eta ikastea ekarri dit.

**4. Batez ere hasieran, *Goenkale*-k tabu asko hautsi zituen. Nola bizi izan zenuten?**
EHUn fenomeno soziologiko moduan ere ikertu zuen! Kalera irten eta maitasun guztiarekin, baina jendea gainera botatzen zitzaizun... Izugarria baina polita izan zen.

**5. Aktore lanei, betirako agur?**
Inoiz ezin da ezeri aterik itxi baina presarik ere ez daukat. Ondo dago distantzia hartu eta egindakoari begirada botatzea.



AGM

**MAKILA MAGIKOA BANEUKA...**

**"Hainbeste gauza egingo nituzke..."**

"Gauza pila bat egingo nituzke: krisi hau amaituko nuke; politika eta egoera ekonomiko honetan jarraituta, dugun lehendakaria kendu egingo nuke, ez zait gustatzen–eta; egon gabe nago, eta Greziara joango nintzateke; niretzat eta familiarentzat osasuna eskatuko nuke... Behin edukiz gero, ez nuke makiltxoa askatuko!"

**6. Eta orain irakaskuntzara.**
Aurrez ere ibilita nengoen begirale moduan-eta. Orain serioago egongo naiz; momentuz oso gustura nago, asko ikasten, lankide berriak ezagutzen... Hau ere aberasgarria da.

**7. Ikasleek, zer esaten dizute?**
Ez naute asko ezagutzen; Bilboko ikastetxe baten nago, eta Bilbo oso zabala da. Gero begiratu dute Googlen, badakite aktorea naizela eta uste dut harro daudela. Ez ezagutzeak ez nau arduratzen, nahiago nuen inguru ezezagun batera mugitu eta gauza biak ez nahastea.

**8. Erredakziotik galdera: kontziente zara duzun euskal sex-symbol famaz?**
Ez, Ondarroan bizi naiz, bi seme-alaba ditut... Euskal George Clooney? Norbaitek horrela ikusten banau, ongietorria izan dadila, baina ez dut neure burua horrela ikusten.

**9. Urtebetez Las Vegasen bizi izan zinen.**
Kazetaritza amaitu eta 25 urterekin joan nintzen lehengusu *amerikanuan* etxera. Niretzat pasada bat izan zen, uste dut begirik itxi ere ez nuela egin; jendeak horterotzat du, baina denborarekin beste gauza batzuk topatzen dituzu.

**10. Iñigo Larrinaga geldigorra dela esango bagenu...**
Horrela da, ezin naiz geldi egon, beti zerbait egiten egon behar naiz. Nekatu arren, horrelakoa naiz eta horrek mugitzen nau borrokatzera eta gauzak ilusioarekin egitera.

## BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



### 1512–Haria–ez–da–eten–2012

Istorio eta historia ez dira gauza bera, zuztar berdina duten arren. Kontua da ez dagoela sinesterik, zer ez diguten sinestarazi gure historiari buruz; historia ez baita sinetsi behar den zientzia bat; hau diot, Euskal Herriko/Nafar Erresumako historiaren inguruan, azkenotan iritsi zaizkidan hainbat berri jakinda, zinez ezinezko eta sinestezin egiten zaidalako, onartu behar izatea, gure iraganari buruz dudan ezjakintasuna. Agian euskaldun orok du, neu barne, erakutsi diguten historia, asmakizun gehiago dela gertaera baino. Baina hori ez dugu aski. Ezagutu beharra dugu gertatutakoa; Horrek lagunduko digu gure izaerari buruz dugun zenbait susmo eta sentipen ulertzen eta egungoa esplikatzen.

Zergatik da euskara gure hizkuntza nazionala; zergatik egungo Nafarroako Euskal Erresuma zatikatu, debekatu eta ukatu honetan, hainbat lekutan baino hobeto bizi garen arren, greba orokor batek hain erantzun orokorra izan duen; zergatik ez ditugun sentitzen geure, Madrilgo Gorteak edo Parisko Asanblada; zergatik dagoen desterraturik eskoletako Curriculumetik Euskal Herria kontzeptua.

Historia, egiazkoa, gaur egungoa ulertzeko izan dadila. Ba horixe egiten saiatuko dira Arrasaten datozen asteetan izango ditugun historialariak. Zalea bazara, adi; mereziko du eta.

